



Iturria: *Iztueta'ren olerkiak*, Juan Ignazio Iztueta (Jose Garmendia Arruebarrenaren edizioa). Kardaberaz, 1978.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/I/IztuetaOlerkiak.htm>

## OLERKIAK

Juan Ignazio Iztueta

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetza Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## ITZ-AUREA

**Manuel Lekuona**

Oso egoki etorriko da, euskal-literaturaren Historiarako Liburu onen gaurko argitaltzea. «Iztueta'ren olerkiak».

Iztueta, dantzari bezela da, batez ere, ezaguna, eta baita Kondairazale bezela ere. Bañan Kondairazale bezela, egin zuan prosa bera ere, eta baita Dantzaetaz argitaldu zituan Musikak berak ere, danok, Olerkiz apainduak eman zizkigun. Aren idaz-lan guztietan azaltzen zaigun arnaskiro guzia, Olerki-giroa da.

Iztueta'ren nortasuna ezagutzeko, beraz, oso bearrezko gauza da, Iztueta'ren olerkaritza ezagutzeko. Olerkaritza, naiko berezia. Eta orain arte bear bezela aztertu gabea.

Alako garaian bizi izatea egokitu zitzaion, izan ere-ta: bi Prantzesteren eta bi gerrate zibilen barru-barruan: Konbentzionalen Prantzestea (1794-1796) eta Napoleon'en Prantzestea (1808-1813) eta Erregalistaen gerrate zibila (1820-1822) eta Lenengo Karlistatea (1833-1839).

Naspil askotxoko urte-aldia, gizon baten Historia argi-ezagutzeko...

Ala ere, gure gizonarentzat, naspil-artean bañan ere, naiko Literaturlan egindako urte-aldia.

\* \* \*

Olerki-soroan Iztueta'k egindako lana, Liburu ontan azaltzen da naiko argi. Orregatik bait da Liburu au, dan bezain ondo etorria gaur.

Gañerakoan uste bait det nik, Iztueta, Olerki-alorrean zerbait sortzalle, kreatzalle ere izan zitzaigula. Eta ori adieraztera iritxi nai nuke nik, ain zuzen, eta batipat, Aurre-itx Prologo ontan. Gauza aundirik ez, bañan bai zerbait gauza jakingarri.

\* \* \*



Lenengo, beintzat, esan dezagun, Iztueta'ren lanak bi alderdi dituela: 1) bertsolari-alderdia, bertsolari jator; bañan baita 2) olerkari-alderdia ere, «olerkari poeta» esan litekean sail ortakoa... Salbo-ta, gero, Bilintx izango zan bezela, izan genduala gure Iztueta: bertsolari eta olerkari; bertsolari, aozko literatur-zale, eta olerkari, idatzizko literatur-zale. Bi bideak ezagutu ta praktikatu ere zituana, alegia.

\* \* \*

Olerkari bezela, Iztueta etzan izan beste munduko gauza. Bañan, ori bai, gai ortan ere asko ageri izaten zitzaion bere beste alderdia, bertsolari-alderdia. Nolanai dala, itz-neurtua oso ondo ta «aire ta bote» esan oi dan bezela, erabiltzen zuan.

Pentsaera beti ere naiko goreta, naiko «goititua», gauza bera biribiltzen «luze-antxa» ezik; erderaz «reiterativo-xamarra» esango litzakena; imajiña, beratsuak erabiltzen zituana, alegia, batez, ere tematika beretsuko lanetan: Gipuzkoa'ren goraimenak kanta bear zituanean, adibidez.

\* \* \*

Iztuetaren bertsolari-alorrean, eredu bat artuko degu guk emen, benetan eredu bezela artu ditekana: «Kontzezi'ri» edo «Maite bat maitatzen det maitagarria». Eta eredu ortan, beste gauza geiago ere bai, bañan batez ere «puntu-jokua», «rima-jokua» esango gendukeana da gauza eza-gungarri-ezagungarria ta benetan nabarmena. Iztueta'k garrantzi berezi-berezi bat ematen dio, rimari, puntuari; eta rimaganako duan itzal eta iritzi aundiak olerki-estilo, bereziki «iztueta» bat, sorrerazten dio.

\* \* \*

### RIMA, PUNTUA

Rimak, puntuak euskal-bertsolaritzan garrantzi aurdia izan duala, ez dago bi aldiz esan bearrik. Rima bere izatez axaleko gauza dan arren — erderaz gauza «adjetiboa» esan ditekera zerbaite dan arren— koplazaarretan, inoiz, axal ez baño mami izateraño garrantzia ematen zaio — erderaz «sustantiboa» esango litzakeana, alegia—. Oro gure Kopladiako «izarra», «dizarra» ta «bizarra» alkarrekin ain estu alkartzen dituan izaera, azala mami biurtzen duan izaera, alegia, euskal-Literaturan ain jator bizi dana...

Iztueta'ren eskuetan, rima, askotan, ustekabe sortzen da; ideiaz ustekabe, sorpresan, bañan ain Iztueta'ren gogora ta gustora, berak airoski jarraitzen bait dio rima berari, salbo-ta pelotariak pelota «aire ta bote» erabiltzen duten bezela.

Ikus, ain zuzen, «Kontzezi'ri»ren lenengo bertsoa:

begi ederra du, ta guztiz argia;  
daukat *urruti*;  
bañan ezin kendu det *buruti*  
aren *itxura*;  
saldu al baliteke *pixura*,  
urrearen *truke*  
nork erosi faltako ez *luke*.

Puntuaren, rimaren indarra dabil or aire-ta-bote, ain egoki.

Eta ez bait da «Kontzezi'ri»renean bakarrik. Ikus, arako beste «Ezkonberrien» bertsoa sake polit ura:

Ezkonberriak pozkidaz daude  
egin diralako gaur elkarren jabe  
*Elizan*;  
gauza ederragorik ezin *izan*.  
Ai! orain banengo ni zuen *ditxan!*

Begira baita beste au ere, Iztueta'ren arte onen eredu:

Geldi, geldi, geldi  
Berdillari'ri;  
erabil *konpasa*,  
ez dakion *pasa*.  
Martin'ek *ba daki*  
nola *erabaki*  
aren *zortziko*:  
ez du *lendabizikoa*.

Ageri dan bezela, rima-joku ortan benetan maisu da gure Iztueta. Puntuaren, rimaren bapatasun azkar ortan, alegia.

Iztueta'k joku ori, sistema bezela, eskola bezela erabiltzen bait du; eta ori esan nai nuke nik: joku bizkor ori, gure Iztueta'ren eskola ta siste-



ma berezia dala. Puntuari bere barruko muin ori, orren bapatean, orren jarraitu-jarraituan ateratzea, alegia. Beste bertsolariak puntua geienetan bi errenkadaz bein erabiltzen duten bezela, berak segi ta jarraitu-jarraituan erabiltzea, alegia.

Ikus, eredu, beste au:

Atsegiñetan arkitzen naiz ni  
 arkitzen naiz ni,  
 ezkontzen diralako maite gozo bi  
*gustora;*  
 ortako jaio ziran *mundura;*  
 Gipuzkoa guztia txit *poztu da.*

Edo-ta beste au:

Gaur *ezpatadantzari,*  
 aurren-*azkendari,*  
 Korpus ta *San Joan*  
 dituztela *gogoan,*  
*zaldibitarak,*  
 gazte ta *zarra,*  
 oi dabilza *dantzari*  
 beren Erriko *plazan.*

\*\*\*

## RITMOA

Eta zer esan Iztueta'ren ritmoetaz?

Iztueta'k eta Bilintx'ek, besteak beste, gauza au egin zuten biok berdin: beren bertsoak kantatzeko, doñu zaarrez gaiñere, doñu berriak ere aukeratu zituztela: Bilintx'ek Santesteban'en «Urra, papito» bere «Juana Bixenta Olabe»rentzat, eta Iztueta'k, orduan kalerik-kale kantatzen zan «Churrupanpli» izeneko kanta, bere «Kontzeziri»rentzat. Gero, beste bertsolariren batzuek ere erabili bait zuten doñu ori —lenengo Karlitatean, adibidez— beren bertso-paperetan. Gure Iztueta'k, ordea, inork baño leenago: 1806'gn urte-inguruan, Logroño'ko Inkisizioaren kartzelan egin bait-zuan bere lana, eta andik laister samar banatu bertso-paperetan, eta bereziki 1825'gnean norbaitek Londres'en argitaldu liburu batean, gure onen egilleak adierazten digunez.

\*\*\*

Ritmoari buruz, gogora dezagun berriro ere «Kontzezi'ri»ren lenengo bertsoa:

Maite bat maitatzen det maitagarria;  
 begia ederra du, guztiz argia.  
 daukat urruti;  
 bañan ezin det kendu buruti  
 aren itxura;  
 saldu al baliteke pixura,  
 urrearen truke  
 nork erosi faltako ez luke.

Gauza bitxi asko señalala litezke bertso ontan; leen aipatu ditugu bertsoaren rimak: *urruti, buruti; itxura, pixura* adibidez... Bañan neretzat oso gauza bitxia, tarte ortan dabillen ritmo-jokua da: erderaz «pie quebrado» esan oi dana. Guk «oin errena» esaten bait diogu. Oin errena, joku orrek bertsoaren ritmoa eten egiten bait du. Ibillia eten, eta, leen esan degun bezela, puntu rima berriak sarrerazi.

Geienean erabiltzen ditugun bertsoetan, ritmoa ta rima, asi ta buka, beti berak izan oi dira bertsoaren barruan. Bañan Iztueta'ren ontan ez da ola.

Puntu-aldatze orrek eta ritmoaren aldatze onek, astindu bat ematen dio bertsoari; eta betiko puntuak eta betiko ritmoak ematen digun logaleantxa astindu guri. Eta orixe da «oin errenaren» egitekoa bertsolaritzan.

Eta gauza onen osagarri, eta leen aipatutako pelotariaren irudiari jarraituaz, esan bait liteke beste au ere; bertsolaritzan geienetan erabiltzen dan kanta-eran, bertsolaria, pelota-jokoan beti ere pelota, lasai, atzera botatzen duan pelotariaren antzekoa dala; bañan oin errenarekiko kanta-eran, bertsolariak aurre-jokua egiten duala, eta oin erren bat kantatzen duanean, pelota atzera bearrean, aurrean ziplora botatzen duala, edo-ta —Atano baten antzera— aurrean «utzi-dejada» bat egiten duala; sorpresa-jokua...

\*\*\*



«Oin errena» esate ori nundikan datorren, esan dezagun orain.

Txalapartan, jotzalle batek, eten gabe, beti pausu berean ari duan arierari, *tukutuna*, esaten zaio; eta beste jotzalleak tartean jotzen duanari, berriz, *errena* esan oi zaio; *errena*, kojoa, alegia, «pie quebrado», ots, konpasaren kontra dabillen oiña, pausoa...

(Oyartzun'en, toberajotzalleen artean, tukutunari, *biya* esaten zaio, eta errenari, «*pikatzeillea*». Gure arirako, guk egokiago degu *errena*).

\* \* \*

Bukatzeko, ikustagun berriro, «Kontzezi'ri»ren lenengo bertsoa, angotz iru oin errenak azter ditzagun. Bere ritmoan ikusiko degu. Begira:

Maitate bat / maitatzen / det mai/tagarri/a;

begia / du ede/rra guz/tiz argi/a.

Dau/kat urru/ti;

bañan e/zin kendu / det buru/ti

a/ren itxu / ra ;

saldu al / balite/ke pixu/ra,

u/rrearen tru/ke

nork ero/si falta/ko ez lu/ke.

«Daukat urruti» «aren itxura» eta «urrearen truke», iru «oin erren». Irurok bertsoari ematen dioten grazia, ez da esaten errez. Grazi ori, ordea, ez bait dago rimaren pelota-jokoan bakarrik. Ritmoak ere laguntzen dio eta ez gutxi, iru oin erren oien bitartez.

Ritmo daktoliko-daktolikoan, lenengo bi errenkadak pentapodioak dira, ots, bostna oiñekoak. Laugarrena, seigarrena ta zortzigarrena, berriz, launa oiñekoak. Iru oin errenak, biña oiñekoak, bañan asieran anakrusis bana dutela. Errenkada bakoitzaren bukaerak, oin trinkotu zorrotzak dira.

Bukatzeko, esan dezagun aizkenik, gure Iztueta'k ezagutzen zuala, baita, gero «Betroiarena» eta «Prantxisku, zer dakarrek?» esango zitzaion zortzi edo bederatzi puntuko bertso famatua ere.

Ikus eredu bat, zortzi puntukoa: tripodio daktilikoa; bukaera-aldean puntu-sail luzeduna.

Arruiz'ko balleko

koplari berria

goi-goieneko mallan  
ago jarria,  
lurreratu naye  
agure elbarria;  
nere urte-joanaz  
nai baduk balia,  
para juzkaria,  
naiz predikaria,  
errain dik egia  
zeñengan gelditzen dan  
jakinduria.

Oyartzun'en, 1977'gn Ekaiña'ren 14,  
San Antonio biaramona,  
LEKUONA zaarrak



## BIZITZA BAT LABURKI

«Sinistatu bearnazuz berrogei egun igaroetan ez dezana izan lo  
piñka bat egiteko dui bat asti ere, zergaitik izan deran erakutzi bearra 50  
Espata dantzari-rekin, 25 motil gastetxori, antxiñarako kanta urritar-  
rak...»

«Oizoz gañera izan det gaurik guzjenak galdu biarra Enskara-  
razko itz neurtu eta beste itzkaida amitx egiten.»

(Iztuetak Paulo Ulibarri-ko Yaunari egin zion eskutizatitak  
1828garren urtean Garagar illaren 13-an).

Joan Inazio Iztueta'ren bizitza itz gutxitan azaltzea ez da oso lan erreza. Zaldibia'n, 1767'ko azaroaren 29'an, jaio zan Joan Inazio Iztueta jauna. Ta Zaldibin bertan, bere etxe Iztueta-enea'n il zan, 1845'ko abuztuaren 18'an, iya larogei urte zituala. Bizitza luzea benetan. Eta betea. Europa, España ta Euskalerrian, makiña bat gorabera, burruka ta guda izan ziran urteak aiek! Iztueta bera ere aruntza ta onera, ederki astinduta ibilli zan denborak.

Joseph Iztueta, Lazkaukoa, ta Maria Inazia Etxeberria, Zaldibikoa, ziran Joan Inazioaren gurasoak. 1755'ko otsaillaren 24'an ezkondu ziran Zaldibian. Arek, 23 urte, ta onek, 18, zituztela. Amabi seme-alaba izan zituzten: 7 mutill eta bost neska. Joan Inazio, bostgarrena zan. Artu-eman aundienak, bere anai zarrenarekin, Diego Inazioarekin, izan zituan Joan Inaziok. Baita Maria Ana, Jose Maria ta Frantzisko Inazioarekin ere.

1783 urtean, jaso zuten Joan Inazio'ren gurasoak, *Iztueta-enea* etxea. Joan Inazio jaio baño len, urte bat aurretik. Onek esan nai du, etzirala izan lastaigille beartsu batzuk, askok esan oi duten bezela, aien beartasuna nabarmendu naiean. 1803'ko epaillaren 2'an, 12.999 «vellon»-errealen balioa ezarri zioten etxeari. 1773'an Joan Inazio'ren aita, Joseph Iztueta, asita zegon aundizki-agiria ateratzen. Ementxe ikusten da, bere arbasoen langintzak ospetsuak zirala. Ta ala zegokien Lazkauko torre-etxetik zetozen ondorengoai. Gaur ere, antxe ikusi leike etxe onen aurrean arrizko armarrri aundi bat, aurrekoen aundiaren ezaugarri bat bezela.

Sevilla'ko Indietako artxibo edo agiritegian, Joan Iztueta'ren izena arkitzen degu; Lazkaun jaioa, ta Guatemalako Gueçalagan illa. Joan Inazioaren aita, Zaldibi'ko udaletxeko diru-zai bezela agertzen da. Ta eliz nagusian beren ill-obia ba-zeukaten. 1789'ko agorraren 29'an, 53 urtekin, il zan. Bere emaztea berriz, 1808'ko epaillaren 14'an, 19 urtetan alargun egon ondorean, eta gorabera ta naigabe ugari igaro-ta. Joan Inazio espe-

txean zegolako, ta Jose Mariak jaramonik egiten etziolako, biotz-miñ aundiak igaro bear izan zituan. Frantzisko Inazioaren izkutatzea, ta arrastorik gabe gelditzea. Ba-zitekean izatea, Joan Inazioaren semen ardurara bere gain artu zualako. Joan Inazio denbora luzean egon bait zan espetxean, eta bere erraiña, Linzuain'go Joakina ere 1802'ko urtean il egin bait zan.

Joan Inazioaren bizitza, ez degu aiñ ondo ezagutzen. Bere bizitza une ta denbora batzuetako agiririk ez daukagu. Ezin genezake ba ezertxo ere jakiñ garai oietzaz. Orixe gertatzen zaigu, aren aurtzaro ta 1790'ko ilbeltzaren 11 arteko gazte-aroaz ere. Urte ontan ezkondu zan Linzuain'go Maria Joakinarekin, 22 urte zituela. Joakina Urnietakoa zan eta 19 zeuzkan.

Garai artan, Zaldibian, erri-barruan, 18 etxe zeuden. Eta 96 sendi, nekazaritzan edo artzantzan. Orduan, Aralar mendian, artzai asko zebillen. Antziñak eta ao-jakintzak diotenez, Joan Inazio txikia zan. Kolore onekoa. Begiratu bizikoa. Humore onekoa. «Txuri» deitzen omen zioten. Mutiko argia. Laister asi zan nabarmetzen bere lagunen artzan. Idazle ta erriko maixu izan bear zuanak, alako idazkera ederra ta liburu zaletasuna euki bear zuanak, nun ikasi zuan eta nun ezi zan? Ziur ez dakigu. Agian, Lazkauko karmeldarren lekaidetxean. Joan Inazioaren amak, bere azke-naian, konbentu ontan iru meza esateko agindu zuan. Eta, 1827'an, Joan Inaziok, eta ango karmeldar batek alkarri idazten zioten.

Joan Inaziok, bere aurreneko emaztearengandik, bost seme izan zituan. Jose Inazio, dantzaria. Bere aitarekin Donostian bizi izandu zana, ta gero Irun'en. Eta Maria Ana, Maria Antonia, Josepa Frantziska ta Jose Manuel. Maria Antonia ta Josepa Frantziska beren aitarekin ere bizi izandu ziran.

Joan Inazioaren garai ontako egiñak zer-edo-zer ezagutzen ditugu. 1791'an, erriko azokan gauz asko ornitu ta saltzen ditu: Olio gozoa, bale edo ballenak, bakallaoa ta sardiñak. Bere ezkon-anai Jose Antonio Mancisidor da erantzuten diona ta bere gaiñ artzen duana. Urrengo urtean, bere etxe ta Amundarain ibaiaren ondoan dauden bi errota, artzen ditu alkiler edo akuran.

1790-1800 bitartean, gorabera auek izan zituan gure Joan Inaziok. 1793'ko agorrean, bere arreba Maria Mikaela il zitzaion, 22 urtekin. 1794'an, bere besoetako ta illoba kuttun Joan Inazio Manzisidor jaio zan, martxuan. Urte ontan bertan, azaroan, izan zuan bere irugarrena: Maria Antonia. 1799'ko garagarrillan, Diego Inazio, bere anai zarrena, il zitzaion; eta bere arreba Joana Frantziska, Pedro Jose Armendariz'ekin



ezkondu, Azpeitian. 1798'an, oraindik gordetzen dan agiri baten bidez, Jose Antonio Lasari artalde bat saltzen dio. Garai artarako, artalde aundia zana. Neguan, Donostiko belardietan larratzen zuan. Eta, azkenik, 1799'ko abenduan, bere aurreneko Linzuain emaztearengandik izan zuan bostgarrengo ta azkeneko semea: Jose Manuel.

Berri gutxi, ainbeste denborako, ta bere pertson eta izakerari dagozkionak, gutxiago. Aldi ontan guztian, bere erri Zaldibian bizitu zan, aldin-aldin Donosti ta Irun'a irtetzen zala.

Obeto ezagutzen ditugu, Joan Inazioren XIX mendeko aurren urteak. Aldi gogorra au Joan Inaziorentzat. Bere bizitza ere apika orren zuzena. Salaketa asko izan zituan, eta auzi ugari erlijio gaietan ajolagabekeria ta emakumeekin ibillera txarrak, erantsi zizkioten. 1801'ko abenduaren 6'raño, Billafrankan baituta egon zan, itxura danez, Gainza'ko Martin Antonio Aldosoro eskribauaren etxean, lapurretaren bat egin zualako. Urte ta ill oietan beroietan, 18 egunean, Tolosako espetxera eraman zuten. Emen, kartzelan zegoala, il zitzaion, Zaldibian, ere aurreneko emaztea Joakina Linzuain, 32 urtekin.

1802'ko mayatzaren 11'an, Tolosako espetxetik Azpeitia'kora igaro zuten. Orduntxe, bere anai Jose Maria Zaldibi'ko maixu ta organista izendatu zuten, eta bere ama larri-larri dabill bizi-modu ta diru kontutan. Joan Inaziok Azpeitiko kartzelan jarraitzen du. Baiñan, 1805'ko otsaillaren 24'an, zigorra arintzen zaio, ta Enparan errota daukan bere ezkon-anaia-aren etxera pasatzen dute. Egun batzuk ondorean, bere anai Jose Maria iltzen da 26 urtekin. Antxe ezagutu zuan Maria Konzeption Bengoetxea, Bengoetxeako Kontxexi. Irudianez, espetxean au ere, aur bat il zualako. Aldekaitz baserriko labean neskatill bat arkitzen dute ta, 1803'ko uztaren 13'an, Joan Inazio Nikolas Odriozolak bataiatu zuan, Maria Inazia izena jartzen ziotela. Joan Inaziok eta Bengoetxeako Kontxesik beren alabatzat artu zuten, eta onela legez artuta gelditu zan.

Baiñan, ordurako, urte ontan bertan, 1806'ko jorraillaren 20'an, Logroñoeko izkutuko espetxera eraman zuten Joan Inazio. Emen, zazpi illabetetan egon ondorean, 1806'ko abenduan Azpeitian agertzen zaigu. Logroñoeko Inkisizioaren kartzel izkutueta agertu zituan geyenbat gure Joan Inaziok, Bengoetxeako Kontxesi'renganako zeuzkan irrika ta maite-miñak.

Espetxetik askatu ziranean, Azpeitiako eleizan ezkondu ziran biyak, 1808'ko otsaillaren 9'an. Urrango illean eta Zizurkil'en jaiotzen zan, Joan

Inazioren irugarren emaztea izan bear zuana, Maria Ascension Urruzola. Baiñan ez ditzagula gertakizunak aurreratu.

Urte onen (1808) epaillaren 27'an, bere ama iltzen zaio Zaldibian, ill onen beraren 14'an bere azkenaia egin ondorean. Ba zekian Joan Inazioren bigarren ezkontza.

1808'ko abenduaren 16'an, Kontxesi'gandik izaten du bere bigarrena: Balentin Eusebio. 1824 abenduaren 20'an, 16 urte zituala, Balentin Eusebio idazten dio La Habanatik bere aitari. Emen, La Habanan, batuko zitzaion bere anai ta Joan Inazio-Kontxesiren irugarrena, Jose Frantzisko.

1808'ren azkenetik, (garai ontan Azpeitia zebillen) 1813'ko uzta abuztu arte, ez daukagu Joan Inazioren berririk. Bere bizitzaren une illun bat da au. Ez dakigu ezertxo ere aldi onetzaz Joan Inazioren bost urte erabateko illuntasunean daude [1]. Donosti soldaduz inguratua egon zan illa-beteetan, Bidasoa'ko mugatik aruntz dabill, San Juan de Luz'en, Donibane'n. 1814'ko garragarrian, Donostian arkitzen degu, denda baten jabe. Urte onen (1814) abuztuaren iruan, Iruñatik idazten dio Martin Onrubiak, eta ala esaten dio: «Nere lagun eta jauna. Poz aundia artzen det ondo zaudelako, ta zure sendian lasai ta pakean arkitzen zeralako».

Biyak, Joan Inaziok eta Joxe Aranburuk, Martin Onrubia bidez, Getarian zegon frantzitar gudalosteari, 400 manta ta 260 lastai-koltxoi eman zizkioten. 1813'ko uztaren 1'an, aldegin zuten Guetariatik soldadu auk. 33.276 «vellon»-erreal balio zituan eskeintza onek. Beiñere etzuan ordaiñik artu.

Kontxesi'rekin egin zuan ezkontzak etzuan asko irau. 1815'ko epaillaren 18'an bere, azkenaia egin ondorean, 39 urte zituala, ill artan bertan il zan, 28'an. Azkenai ortan, bizi ziran etxea aipatzen du, ta egiten ari ziran beste bat ere bai. Joan Inazio Iztueta, bi etxeen jabe izatera iritxi zan: Bat, Bidosola kalean, beko Puyuelo ere zeritzaiona. Bestea, Triperia kalean, eta gaurko San Joan da.

Bere bigarren alarguntasun ontan (1815-1828), Joan Inaziorekin bizi ziran Donostian, bere lenengo emaztearengandik izan zuan Joxe Inazio, dantzaria. Maria Antonia, ta Joxepa Frantziska. Kontxesi'rengandik izan zituanak ere antxe zeuden, batez ere Inazia. Balentin Eusebio ta Joxe Frantzisko, La Habanan azaltzen bait dira aldi au bukatu baño len.

1817'ko abuztuaren 11'an, Donostiako San Bizente parrokian ezkontzen zan Joxepa Frantziska alarguna Donostiko eskribaua zan Joakin Ramon Sorraiz'ekin. Onen papel-xortak (1813-1831 bitartekoak),



Oñati'ko Unibertsidade edo Ikastetxe Nagusian gordetzen dira. Geroago, (ta gorabera batzuketan) 1818'ko ilbeltzaren 2'an, eliz ortan bertan ezkontzen zan Maria Antonia, Manuel Paris-ekin. Au, Lobaina baserrikoa zan, Antigu'ko parrokiari.

Urriari, Santa Fe'ko pestak dirala-ta, Joan Inazio Zaldibian ikusten degu. Emen, 1820'ko urriaren 13'an, bere esku ta lur-ondasunak, bere arreba Anari ta ezkon-anai Jose Antonio Manzisidor'i, uzten dizkie.

1824 urtean, (jaurgo ta lege-zaleak galdu, ta «absolutista» edo al-osodun erregeak irabazi zuanean, —Iztueta errege al-osodun zalea zan—) Inazio Erramon Barojaren irarkolatik irtetzen da bere dantza liburua. Urte bete baiño geyago kosta zitzaion egitea. Ain zuzen, urte ortan, bere alabari baimena ematen dio, dantza ospetsu bat egiteko. Aurretik, gure dantzak berpizteko asmo bakarrarekin, ardura ta ajola bereziarekin, bera-ri erakutsi zizkion ta ortarako ezi zuan.

Londres'en erbestetuta zegoen, Pablo Mendibil'en bidez, bere liburuaren agerpen-bilduma bat argitaratzen du Londres'en; ez ordea, erderaz ere itzulita sartu zuan «Kontxesi'ri» olerkariari, onoko oarr maltzur au jarri gabe: *«El poeta bascongado fue más feliz que el gallego, cuyos versos amorosos le acarrearón la muerte en la misma cárcel. Iztueta salió de ella e inmediatamente dio la mano de esposa a su esposa, por quien tan apasionadamente suspiraba.»*

Oraindik 1824'an, ez ditu eskuratu 33.776 erreale, frantziko guda-los-teai, 1813 urtean, emandako janarien ordaiñez. Ezta 10.000 erreale ere, ordun bertan eman zizkien 400 mantegatik. Esan bearrik ez dago: onek miñ ematen dio.

Urte onen urriaren 16'an, Donosti'ko «Puerta de Tierra'ren» zaind-ari jartzen dute. 1826 urtean, agindutako dantza-soñuen liburua argitara-tzen da. 1828'ko epaillaren 3'an, Donosti'ko San Vicente parrokiari, ezkondu baiño len, Kontxesi'rengandik izan zuan Inazia, Segura'ko Jose Antonio Azpiazu'rekin ezkontzen da. Andik illa-betera, jorraillaren 8'an, inguruan bere semerik gabe bere burua ikusten dualarik, Joan Inazio Iztueta irugarren aldiz ezkontzen zaigu, Zizurkil'go Maria Ascension Urruzola'rekin. Iztuetak, 60 urte zeuzkan. Mariak, 20.

1829'ko epaillan jaiotzen zaie aurreneko ondorengoak: Martina Anto-nia. Urte ortan bertan idazten du 40 orriko liburuska bat, Juan Jose Mogel apaizari zuzendua, bere dantza liburuaren aurkako Bartolome de Santa Teresa praillari erasoaz. 1831'ko abenduaren 24'an izaten du bigarrena, bere irugarren ezkontzatik. Pedro du izena. Gazterik il izan bear zuan.

Urte auetan asko idazten du Iztuetak. Santiago Unzeta ordezkariari, Batzar eta Diputazioko idazkari Erramon Gereka'ri egin zizkien eskutitzak adie-ratzen dute ori. Lecluse frantzesarekin, Bautista Arrizabalagarekin, Agus-tin Paskual Iturriagarekin, Pablo Ulibarrirekin eta beste askorekin ere, izan zituan artu-emanak idazkiz. Joan Inazio Iztuetaren izenak oiartzun aundia zeukan, eta Paris'tik ere galdetzen zioten.

1832'an, Bizente Binuesaren Kultura-Etxean euskeratzez itzaldi bat egiteko, Madrid'ko jaun batek ots-egin zion Joan Inaziori.

Donostian, amar urtetan ertzain izan ondorean, 1834'an, alkate egin zuten. Baiñan, alaberraren zirtoak! Urte ortan bertan, azaroan, bere arreba Maria Ana, Manzisidor'en emaztea, il zan Zaldibi'n. Atsekabe aundia artu zuan.

1840'an, gerra dala-ta, sei illa-beteko saria ez duala jaso, mintzatzen da. Baiño, geroago, bai, jaso zuan. 1844'ko abuztuaren 7'tik asi-ta, 1845'ko uztaren 1 arte, Guipuzkoako gordairuan izandako diruen sar-irterak aztertzen baditugu, irtera, langille-sari ta artzekodunen artean, auxe ira-kurriko degu: «A don Juan Ignacio de Iztueta por el importe de dos libra-mientos que expidió a su favor la Diputación foral con fechas de 1 de nov. y 1 de dic. de 1835 para pago de su sueldo como alcaide de Corregimiento de esta provincia, 910 reales».

1837'an, Billafrankan, Esteban Gaztañagaren aurrean egindako idaz-ki batean, Zaldibi'ko bizilagun bezela agertzen da. Baiñan galdetu gene-zake: Liberala izanik, eta Donosti beroien menpean egonda, nolatan igaro zan Iztueta, karlisten mendean zegoen Goierri? Gaurkoz, galdera aueri erantzuten ez da oso errez. Egia, auxe da: 1840 baiño leenago, ziur Zal-dibin dagola, eguneko sei erreale eskuratzen ditula bizitza guztirako sari bezela. Sari au ematen zitzaion, «a condición de que a su muerte habían de quedar como propiedad de esta Provincia tanto la obra que anterior-mente tiene escrita sobre los bailes y canciones antiguas del País, como cualquiera otra que publique o deje escrita sobre el carácter, usos y cos-tumbres del País».

Vergara'ko besarkada urtero ospatzen zan urte-bertan, 1841'ko gas-tuen zirrinndan, Iztuetaren kontua, taldearengatik, 3.250 erreale da. Banke-ta kendu ezkerok, aixa, aundiena.

Urte auetan, eta sutsu, bere «Gipuzkoako kondaira» eratzen eta egi-ten ari da. Iztueta ilda andik bi urtera, 1847'an, argitaratuko zan, bere lagun on Agustin Paskual Iturriaga apaiza zala bide.





Iya 78 urte zituala egiten du bere azkenaia, ta egun artan bertan iltzen da Zaldibin, 1845'ko abuztuaren 18'an. Egundotan, gorabera aundiko ibilketa baten ondorean, Gipuzkoako gizon baten bizitza bukatzen zan. Batzuk maixeatu zuten. Beste batzuk, atsekabetu ziran.

Geldi ta sakabanatuta jo zituzten kanpai-otsak, Zaldibiko inguru guztietan zabaldu ziran, berri ituna eramanez; Aralar'ko mendi-saietsetan dau-den baserrietaiaño. Abuztuko arratsalde artan, txistu ta txakurren zaunka artean, artzaiak beren ardiak eraman zituzten sarobera. Lurra mendiko laño zuriz estali, eta Txindoki, batzutan margoztuta, beti bezelaxe, antxe zegon tente.

[1] Errenka ta itz auek idatzi ondorean, Jesus Elosegia jaunak, «Boletín de los Amigos del País» aldizkarian (XXXII urtea, 1.º eta 2.º Lb. 296-300 orr.) «Iztueta, prantzes-zaletua, saldukeriagatik Azpeitia'n auzipetua» izen-buruarekin, oraindik orain lantxo bat argitaratu du.

Bertan gauza ontaz jabetzen gera: «Varios vecinos de Azpeitia, Iztueta entre ellos, fueron mencionados y señalados... como individuos que en el año de la dominación francesa, 1809, mostraron la suficiente actividad como para merecer la nota de "afrancesados" que se les atribuía por parte de numerosos vecinos de la villa».

1814'go otsaillaren 23'an, Azpeitia'ko Jose Domingo Vicuña idazkariak, Iztuetaren izakera ta gizatasunaz eman zizkigun garrantzizko ondorengo zeatztasun auek, aipatu ditzagun:

«Juan Ygnacio de Ynstueta: pelo largo castaño, cejas del mismo color, nariz afilada, frente mediana, barba cerrada, cara ermosa, estatura baja».

Eta jarraitzen du: «De ciertas declaraciones tomadas a Iztueta durante el proceso, llegamos a saber que el 24 de abril de 1810 se traslada con su mujer Concepción Bengoechea (y sus niñas) desde la villa de Azpeitia donde residía desde el año 1802, a San Sebastián. Sumando los días que pasó en cárcel del Correimiento de Tolosa, de resultas de este proceso, hallamos: de 28 de febrero a 12 de mayo 1814, y de 19 mayo a 4 de noviembre = 8 meses de cárcel. Y en cuanto a los días de reclusión en su casa de San Sebastián: 12 de mayo a 15 de junio, 1814: un mes y trece días».

## BERTSOLARI

*«Las contiendas poéticas a juicio de árbitros que las calificquen, como se practicaba entre los famosos arcades, son uno de los juegos más frecuentes entre la gente campesina, marinera y artesana de Guipúzcoa. Todos, puede decirse, nacen poetas, todos versan y ninguno escribe sus versos; pero apenas los cantan, corren de boca en boca por todos los pueblos, y la alabanza o vituperio del magistrado íntegro o injusto, del hombre o de la mujer viciosos o ridículos, el elogio o la burla del diestro vencedor o del presuntuoso vencido en los juegos públicos, todo está sujeto a esta inexorable magistratura de los bersolaris populares, cuya libertad es indestructible y se puede decir inatracable. Siendo esta verdadera costumbre un verdadero baluarte que, fundado como el de la imprenta en la opinión pública, ataca las usurpaciones y atentados de la arbitrariedad, no es extraño que los satélites de ésta, que por igual los encuentra aun en los países más libres, procuren socavarlo y cuando no, dirigir a él a los menos sus rabiosos e inútiles tiros».*

(Del folleto escrito por Iztueta y publicado en Londres por Pablo de Mendivil en 1825 como presentación de su libro de danzas).

Joan Inazio Iztuetak dauzkan ainbeste alderdi eder eta arrigarrien artean, ba dago bat oso gutxi ezagutzen dana, ta laburki bederik, ikasi bearrrekoa: Bere bertsolaritza, bere olerkari-arnasa. Zalantzik gabe, esan dezakegu, oraindik Iztuetaren alde au ez dala bear bezela ta gutxigorik ere ikasi ta aztertua izan. Eta ori, erriko gaiak erabiltzea ta bertsotan jarri ta abesatea, bere joerarik aundiena izan zala. Lan ortantxe, ain zuzen, Iztuetaren nortasuna ta ospea sendotu ta zabaldu ziran eta.

Joan Inazio Iztueta mutill argia zan. Eresi ta musikarako, belarri onekoa. Gaztetandik sortu zitzaion ba, olerkari antzera mintzatzeko gogoia ta irrika. Zalantzik gabe, Iztuetak bertsolari ta olerkari arnasa zeuzkan, eta griña onek iraun zion il zan arte. Inguru guztiari begiratzin ziola, zentzu denak zabaltzen zituala edozein erako giroari, eziñ esaneko zaletasun bat bere barru-barruan nabaritzen zuala... bere goi-atsa irtetzen zala esan dezakegu, lau bertsotako aapaldietan bere «Gipuzkoako Kondaira» ta beste bere lanak, bertsolari abesten zituanean.

1802'ko otsaillan, Billabonan, Amezketako Zabala ta Hernaniko Txabalategi bertsolarien artean eratu zan leiaketan, epailari aukeratua izateak, nik uste det zer-edo-zer baiño geyago ere esan nai duala. Artean, 33 urte besterik ez bazeuzkan ere, Goierri'ko mugetatik aruntz, Gipuzkoa osoan ezaguna zala, garbi asko adierazten du. Bere dantza liburuan, Iztue-



tak berak esaten baldin badigu ere, berak ezinda, bere ordez Pernando Amezketarra joan zala.

Leiaketa klase auetara zeñen egotzia zegon, eta beroietara nolako zaletasuna zeukan, garbi asko adierazten digu Ladislao Velascok [1] itzegiten digunean, «del certamen más notable que ha conocido este siglo» (siglo XIX).

Iztuetak bertsoetako zeukan joera ta zaletasun auek, (bere bertsoetatik zati txiki bat besterik ez degu ezagutzen), trebetasun aundiegia-ekin, Karmelo Etxegarai jaunak esan zuala ezeztatzen dute. «Iztueta maneja a su arbitrio la prosa vascongada, pero no así el verso, que se le mostró siempre rebelde... a excepción de una sola, en que su alma apenada gimió con acentos tan intensamente sinceros, que logró encontrar la expresión artística del estado de ánimo».

Guretzako, iritzi okerra benetan Etxegarai'rena. Iztuetari bertsolari arnasa ta goi-atsa ukatzen dizkio.

Oso beste erara pentsatzen zuan Manterola jaunak, 1787'ko bere «Cancionero»an [2], Iztueta «es uno de los que con más entusiasmo han cultivado en este siglo la hermosa lengua eúskara» esan ondorean, auxe esaten digu: «Como poeta nos ha legado además de buen número de versos sueltos desparramados en sus obras y varias pastorales y villancicos, una preciosa composición que se publicó por primera vez hacia 1844 con el título de "Iztuetak bere emazte Kontxesi'ri biak ezkongai zeudela ipinitako itz neurtuak"». Irakurleak ikusiko duan bezela, Juan Inaziok goi-ats au bazuan bertso ta olerkietan ere. Artzantza ta beste gai askori buruz bertso asko egin zituan. Gau-abestiak ere idatzi zituan. Alditxarrez, ez ditugu ezagutzen artzaiarenak eta gabon kanta oiek. Batzuek bakarrik oiturakoac. Baño agertzen zaizkigu Juan Inazioren garrantzia, irri-zuri eta ziurtasuna. Zalantzik gabe, bere gazte denborakoak noski. Ez da arritze-koa «Txuri» edo «Kapagin txikia» deritzeziela jakitea.

Jesus Elozegi Irazusta jaunak arkitu duan, 1808'ko jorraillaren 28'ko agiri batean, Iztuetak, Logroño'ko kartzel ixillean iru egun zeramazkiala, ta zeaztasunak Joan Inaziok berak auzitegiari ematen zizkiola, irakurtzen degu: «el reo presentó tres pliegos de papel que había pedido para hacer unos apuntes, los que se le dieron, y en ellos extendió en Bascuence unas canciones que compuso en Zaldivia sobre el nacimiento de Ntro. Sr. Jesucristo, sobre los preceptos del Decálogo, desengaños del mundo y penas del infierno, los que suplicó se tuvieran presentes para prueba de su modo de sentir en los puntos de creencia cristiana que abrazan; y aun que

por las dificultades de su inteligencia parecía inútil el unirlos a la causa, mandó el Inquisidor se unieran, y en ella existen» [3].

Emen daukagu balio aundiko aipamen edo aitormen bat, naiz baka-rrik izan, «para prueba de su modo de sentir en los puntos de creencia cristiana». Onek ez du esan nai, beste gaietaz ere tankera ontako aitormenik egin etzuanik.

Orañ esandako agiri ontan aipatzen diran abestiak, «Gau pozgarria-gorik» eta «Gure Jainkoak» izenburuarekin, erlijio-kantuen atalean jartzen ditugun aurrenekoak ongi izan ditezke.

Ez «Jesusen jayotzako gau pozgarritsuan» atalean datozenak. Ayek, aita Antonio Zabalak dion bezela, berandugokoak dira. Iztueta eldu edo zartu zaneakoak. Ta au, arrazo'i askorengatik. Aietako bat, Iztuetaki «jauna» ezartzen diotelako. Errege- seme Bonapartek egin zuan eusko olerki erri-koien bildumatik, eman zien aita Zabalarí, gabon kantuen bertso-papel au. Chikago'ko New Library'an, arkitzen da gaur. Santa Ageda, Eguberri Urtezar, San Joan... gauekoen antza dute bertso auek. Eta Iztuetak ala era-biltzen ditu [4].

Iztuetak Dekalogotzaz egin zituan kantak ez ditugu ezagutzen. Inpernuko zigorraz eta mundu ontako etsinenaz egin zituanak berriz, «Nere kristau maiteak» izenburuarekin, Tolosan, 1895'an, bere bigarren agerraldian, argitaratu zuan bere dantza liburuko 191-194 orrietan daudenak, dira seguru asko. Edo obeto esateko, «Aste santua dator» deitzen zaienak. Ok baldarragoak dira. Aiek, ikasiagoak eta fiñagoak. Zaldibiko lapur baten auzian arkitzen ditugu, «Zubitako lapurra». Gero, «Nere kris-tau maiteak»ean finduak izan ziran-ba.

Iztuetarekin artu-eman aundiak zeuzkan, Juan Frantzisko Albisu de Yrivek idatzi ta aldatu zituan. Baiñan, ez zortziko, bost bertso-ko aapal-dietan baizik. Itz bukaera gordetzen zuala. Ez ordea metrika edo neur-bidea. Gure lagun Lorentzo Sukiak dionez, au exkax-xamarra da. Guk, orregatik, zortzikotan eskeintzen ditugu. Zuzenketak aipatutako Loren-tzok egin ditu [5].

Oiexek dira Iztuetaren aurreneko kantak. Baldar-xamarrek. Janse-riotarrak. Manikeotarrak, agian. Joan Inazio Iztuetak, dotriña ikastekoan, sermoita mixioetan entzun zituan gauzen oiartzuna, dudik gabe [6].

Oitura-olerkietan sartzen ditugunak ere garai ontakoak dirala, diru-di. «Eztarianac». «Erbia jan orduan». Eta abar. Maite-miñezko batzuek ere bai.



Iztuetaren idazkietan bi zati bereiztu bear dirala, esan bearrean gaude. Iztueta bertsolaria. Iztueta olerkaria. Azitzen zijoan eran, bertsoetan oitzen ari zan moduan, liburu-ikasketak egiten zituan neurrian... Joan Inazio aurreratzen zijoan. Benetako olerkari izatera iritxi zan. Eresiz ta goi-atsez betetako olerkiak badauzka Iztuetak. Bere idazki askatueta ere, olerkia ta goi-atsa arkitzen ditugu. Aralar eta Txindokiaz idazten duanean bezela: «Kanpo zabal ikusgarriari begira ezin aspertzuz». Edo ta, Zaldibiko ibai Amundarain'en jatorria kantatzen ari danean.

Liburu ontan sartzen ditugun bertsoen artean, (eta ezagutzen ditugun denak sartzen ditugu), maitasunezkoak leku berezia daukate. Iztueta, ondoena, maite-bertsoetan azaltzen da. Joan Inazioaren izakera, oiexetan dago batik bat. Ortxe dago bere indarra. Bere biotza. Bere ametsak. Bere griña ta bizia. Berak esaten digu:

Eguin det alegiña  
sartutzat zure miña  
egun da santa sekulako  
nere aingeru piña.

Guda-arnasa, burruka ta aberritasuna... ainbeste txalotzen ditun Iztuetak, (dudik gabe, bere dantzak orixe dira), gero bere idazkietan, iya beti, maite-miñetan ari da. Arritzekoa benetan! Antxe dago gure olerkariaren izakera ta biotza.

Irakurleari eskeiñi aurretik, bere lekuan, eresi liburuaren izkiaz ikasketak bat egitea, bearrezko deritzaigu [7].

Berez, edo eztaiak, sendiko, lagun-arteko gertakizunak zirala ta, ots-eginda, bota zituan bertsoak dakarzkigu liburu ontan. Jakiña, geyago ere egingo zituan eta botako zituan prestaerarik gabe. Askok, makiñabat galdu ere egingo ziran.

Joan Gorostiagak, ez arrazoi txikiarekin, onoko au idatzi izan du: «*La poesía vasca no ha sido escrita para ser leída, como un producto a la venta; ella ha sido creada para ser recitada o cantada; para ser cantada o ser recitada en presencia del público, hasta que el público participa en ella*» [8].

Beste orrenbeste esaten degu Iztuetaren bertsoetzaz. Batzuk (eta ala gertatu izan da), euskal elertian, onenetakoen ondoan jarri litezke [9]. Iztuetak beroietan eguneroko bizimodua ta erriaren gorraberak kantatzen

ditu. Alai ta jostari kantatu ere. Axarikeria ta maltzurkeria darioten bertsoak. Danen gaiñetik, (berriz ere esan dezagun) maite-miñezkoak eta eztaietakoak, nabarmentzen dirala. Oitura zarrak, fueoak eta Euskalerrria kantatzen ere, ez da atzean gelditzen.

Atera ziran denborari ta batez ere gaien muiñari begiratuaz, Joan Inazioaren bertsoak, ondorengo atal auetan bildu ditugu: Erliziozko bertsoak. Oiturazkoak.— Bere adiskideari edo Laun artekoak.— Amodiozko eta Gipuzkoako Furoen eta Kondairakoak.

Bertso bakar bat ere ez gaitzestearren, eraskin bat ere jarri deciu. Iztuetaren paperetan dagon bertsoak argitaratu gabe gelditu ez dediñ [10].

Iztuetaren irugarren emaztearen ondorengo dan Bilbao'ko Perez Yarza Bajineta familiaren etxean, dauden bertso-paperetan, badaude batzuk Iztuetak berak eskuz idatzitakoak. Baiñan, zoritxarrez, egunik ez daukate, ta eratzeta oso zaill biurtzen da. Ta, orriaren be-aldean oar batzuk jartzen baldin baditugu ere, azterketa sakonago bat bear zuten bertso oiek. Gai auetan gu baiño ikasiagoa dagon bat edo batek, lan au egingo al du noizbaiten.

#### LIBURU AU ZERGATIK ARGITARATZEN DEGUN

Gure aurreneko liburuak [11] argitaratu bezañ laister, Iztuetaren bertsoak ezagutu eratzeko gogoia etorri zitzaigun. Zaldibia'n eta inguruetan, aurren-aurrena ta batez ere bertsolari bezela izan zaal Iztueta ezagutua, uste bait genduan eta uste degu. Bere bertsoak, ezagutzen ditugunak beintzat, bildu ta argiratu ezkerok, Iztuetaren alderdi garrantzitsuenetako bat agertzen genduala iruditzen zitzaigun, eta iruditzen zaigu. Joan Inazioaren biotza ta griña nundikan dabiltzan jakiteko modurik onena auxe dala, uste bait degu.

Baiñan, beste arrazoi bat ere badago, ta ez txikiena, lan au egitera bultzatzen ziguna. Izan ere, gure lenengo liburuan argitaratu ziran bertsoetan, irarkolako oker eta akats askotxo daude. Jatorrizko bertsoak, asko beintzat, oso egoera txarrean bait daude. Batzuk naikoa puskatuta, ta idazkera ere, naiz ederra izan, askotan illunduta dago, ta zailla egiten da.

Bildumak geyagorako ematen etzualako, gure liburu artako bertsoen izkia oso txikia zan. Orregatik, liburu ta edozein paperetan Iztuetak zeuzkan bertso guztiak, bearrezkoa zala beste liburu batean argitaratzea, pentsatu genduan. Ez da lan txikia izan. Batzuk bereiztu ezkerok, jatorrizko paperak, bertsoak noiz egin ziran egunaren arrastorik ez bait daukate.



Beroien eraketa oso lan nekeza biurtzen da-ba, Joan Inazio, bere bizi guztian, etengabe bertsoak egiten aritu zala, pentsatu ba genezake ere.

Auexek dira ba, Joan Inazio Iztuetaren bertsoak argitaratzeko, izan ditugun arrazoiak. Batek baiño geyagok, Iztueta aintzakotzat ez artzea, ordainduko duala uste det. Etzuten ezagutzen, noski, Joan Inazioren medar aberatsanetako bat. Ortzen ikusiko degu, Iztueta dala bertsolari-leiaketen aitorlerik onena, beste gauz askorena bezelaxe. Ta Joan Inazio, euskera izkuntzan eta euskaldunen artean, bertsolari ta olerkari berezi bat dala.

Bukatu aurretik, eskerrik beroenak bati baiño geiagori eman bearean gaude. Lenen, Justo Maria Mocoroa jaunari. Bera bakarrik da orain arte, jatorriko ta Bilbaoko paperak aztertu dituan. Berak zuzendu ditu, gure lenengo liburuan izan ziran okerrak, klase guztietakoak. Biotzez eskertzen diogu. Bertsoak, Iztuetarenak diran ala ez jakiteko, eta beste gauz askotarako, Mocoroa jaunaren jakintza aundia ta bere aolkuak, begin aurrean euki ditugu.

Berdiñ-berdiñ eskerrak ematen dizkiogu Manuel Lekuona jaunari. Ta ez bakarrik nere liburu au bere itz-aurreak iriki ta goratzen dualako. Baita, 1967'ko abenduan, «Zeruko Argia» aldizkarian, Iztuetak bere Kontxesi'ri egindako bertsoak bikaiñ, oi duan lez, ikasi ditualako ere. Zer esanik berriz ez, euskera barrutian egin dituan lan jator eta jakintsuagatik, euskerari bultzada aundi bat ematen diola aurrera bidean. Baiñan, gauz eta lan auek irakurleak sobra dakizki ta denak ezagutzen ditugu.

Beste nere bi lagun ere eskertu gabe ezin nezazke utzi. Antonio Garmendia jauna zaldibitarra ta Zaldibi'n apaiz dagona. Ta Lorentzo Sukia jauna. Biyak asko lagundu didate. Antoniok, batez ere, okerrak zuzentzen, eta Lorentzok, bertsoen neurkitzan. Eta nola ez ekarri onera nere lagun maitearen lanak? Baztarrika'tar Joxe Marik euskera garbian ipiñi ditu nik erderaz izkribituak eta Eguia'tar Luise'k orraztu. Danoi berriz ere, milla-ka esker!

[1] «Los Eúscaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya. Sus orígenes, historia, lengua, leyes costumbres y tradiciones». Barcelona 1879, 554 págs.

[2] Serie 1ª, tomo 1.º, págs. 38-39.

[3] «Iztueta, preso en Guipúzcoa y Logroño», por Jesús Elósegui. Bol. de A. del País, año XXVII, cuadernos 1.º y 2.º, págs. 22 a 24, San Sebastián, 1971.

[4] Villancicos inéditos de Iztueta, por Antonio Zavala, S.J., en «El Diario Vasco», Días de Navidad, 1967.

[5] Véase el índice de nombres de personas y lugares, pág. 266, de «Juan Ignacio de Iztueta Echeberría (1767-1845)», por Jesús Elósegui, Colección Auñamendi, San Sebastián, y en «Iztueta, preso en Guipúzcoa y Logroño», pág. 9, Bol. de los A. del País, año XXVII, cuadernos 1.º y 2.º, San Sebastián, 1971.

[6] «Iztueta, bersolari», por José Garmendia en «La Voz de España» de San Sebastián, 20-X-67 y «Estrofas inéditas», id. en «El Diario Vasco», 29-XI-67.

[7] Véase en la pág. 65-67.

[8] «Antología de poesía popular vasca», por D. Juan Gorostiaga, en Biblioteca Bascongada de los Amigos del País, Monog. n.º 13, pág. 6.

[9] «Las cien mejores poesías de amor de la lengua vasca», por Santiago Onaindía, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, 1975, Conchesiri, n.º 57, pág. 116, y n.º 58 Dama eder bati, 116-121.

[10] Ikus, bukaeran, bertsoak. Iztuetak beti maite izan zituan bertsoak. Beti bertsoak atsegiñ izan zitzaizkion. Edozein eratakoak zirala. Bere paperetan arkitu ditugu, Donosti'ko 1827'ko Iñauterietako, ezarrita, «Estudiantina de Salamanca»ren bertsoak. Baita «Romería de Uba»renak ere, urte ortakoxe Pazko bigarreneko, «Comparsa de gitanos andaluces en la Romería de Uba» izenburuarekin. Eta «Fernando Amezketarrak ipiñitako itz neurtuak», Mendizabal'en irarkolan.

[11] Obras inéditas de Iztueta, José Garmendia. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1968.



## ERLIJIOZKOAK

*«El reo (Iztueta) presentó tres pliegos de papel que había pedido para hacer unos apuntes... y en ellos extendió en Bascuence unas canciones que compuso en Zaldibia sobre el nacimiento de Ntro. Sr. Jesucristo, sobre los preceptos del Decálogo, desengaños del mundo y penas del infierno...».*

(Datos para la Sumaria en la cárcel secreta de Logroño,  
23 de abril 1806).

*«...en lo demás digo a Ud. que puede mandar con franqueza, que se santifique en la cuaresma, pero bien...».*

(Juan Bautista de Arrizabalaga en carta desde Tolosa,  
el 1 de abril 1829).

## GAU POZGARRIAGORIK

Ez dago Iztuetak idatzita. Naiz bere ikulturen bat euki.  
Estrofa edo aapaldien zenbaketa, jatorrizkoarena da.

### Sarrera

#### 1

Ai, au Aur zoragarri  
guri ta mardula  
guzion onerako  
jaio da mundura.  
Deseatzen genduen  
eguna eldu da  
baita arras ill-ere  
gendukan beldurra.

#### 2

Gau pozgarriagorik  
nere iritzian  
ezin izan diteke  
sezula guzian;  
Adanen bekatua  
pararik azpian  
Jaunak ifini gaitu  
beraren grazian.

### Zortzikoa

#### 3

Illak eta biziak  
konsueloz daude  
egin dalako Aur  
zeru lurren jabe;  
bizi gaitzke ongi  
ta pozez alere  
Luzifer gaiztoaren  
beldurrikan gabe.



## 4

Eguerri bezperan  
 Belengo errira  
 gure salbatzallea  
 gabaz etorri da;  
 zoraturik nago ni  
 berari begira;  
 Adanen bekatuak  
 betiko ill dira.

## 5

Artzaiak emen datoz  
 utzirik ardiak,  
 animo ar dezagun  
 anima garbiak;  
 ...) ren mirariak  
 ...) larriak  
 ...) ren gaitu  
 .....

## 6

Semea egin eta  
 dontzella garbia  
 emen izusten degu  
 Birgiña Maria;  
 auxen da milagroa  
 gozo ta .....  
 ... beraren ditxa  
 ..... gaitean .....

**Euskaritxoa**

Zarrak eta gazteak  
 goazen bertatik  
 Jesus adoratzera  
 biotz biotzetik;

guziok salbatzera  
 jetxi da zerutik,  
 nor dantzatuko ez da  
 Jesus, gaur zugatik!



## GURE JAINKOAK

Recitado

Idazkera ez da Iztuetarena. Aapaldi laburrak, baiño mamitsuak.

Gure Jainkoak agindu ziguna  
igorri du, izanik biotz biguñia:  
gizon egiñik bere seme maitea,  
zer nai degu geiago egitea?

Gure artean derilla bizi,  
ez digu egin mesede gutxi:  
egun gozo au zaizunean iritxi,  
beraren egin-bideak ditzazun ikasi.  
Au eskatzen diguna badakigu berdi...  
bestela izan gentzake noizbait...

## JESUSEN JAIOTZAKO GAU POZGARRITSUAN

(Euskal errietako gazteriak kantatzeko  
Iztueta jaunak ipinitako itz neurtuak)

Antonio Zabala jesuitak emon dizkidan gabon kantak.  
Errege-seme Bonapartek euskal bertso ta erriko olerkiaz egin  
zuan bildumatik artuak daude. Gaur, Chicagon dago, «New  
Library»an.

1

Agur, Jesus, Maria, Jose,  
Joakin eta Ana;  
badakigu Jesus maitia  
jaio zan gaua dana.

2

Erriko zenbait galai gazte  
kantuz gera atera,  
atsegiñezko poz andi bat  
zuei gaur ematera.

3

Egiatzko berria da ta  
bear degu sinitsi,  
Jaungoikoaren Semea gaur  
zerutik zaiku jetxi.

4

Iñork ezin berri bat eman  
au dan baño obea;  
Belenen jaio omen zaiku  
gure Salbadorea.

5

Urte askoan egon gera  
egun onen begira,  
Adanen bekatu guziak  
sezulako ill dira.



6

Atsegingarrizko berri au  
munduak dezan jakin,  
adierazo du zeruak  
izar eder batekin.

7

Izar oni nora dijoan  
jarraitu bear zaio,  
ekusi nai duenak aur au  
non ta nola dan jaiio.

8

Goazen bertatik Belena  
aur eder onen billa,  
sendatu digunean pozez  
bekatuaren miña.

9

Belengo estalpean dago  
Jesus larru gorrian,  
ollarrarekin astoa ta  
idiaren erdian.

10

Salbadore batentzat da au  
humildade aundia;  
asnasarekin berotutzen  
ari zaio idia.

11

Aur eder au bera dalarik  
zeru ta lurren jabe,  
jaiio nai izan du mundura  
ondasunikan gabe.

12

Zerutikan jaxirik digu  
aur onek erakutsi,  
nola bear degun guziok  
mundu onetan bizi.

13

Egiten baldin baditugu  
onen esanak ongi,  
berarekin egongo gera  
zeruan beti beti.

14

Onelako berri ederra  
degunean ekarri,  
limosna on bat uste degu  
gaur etxe onetati.

15

Jakiñean etorri gera  
gazteria guzia,  
limosnagillea dala txit  
emengo nagusia.

16

Urrea biralduko digu,  
zerren daukan gordea;  
nagusia bezin prestua  
da etxeko andrea.

17

Errian alako andre bat  
senti ez det besterik;  
bera dator solomo eta  
lukainkaz beterik.





## 18

Gaztaña egosiak eta  
sagarrakin ogia;  
igual da ekartzen badu  
urdai puska lodia.

## 19

Eskale guziak dituzte  
ate oek zabalak;  
gurasoen gain gañekoak  
dira seme alabak.

## 20

Barkatu utsegiterikan  
baldin egin badegu;  
beste urtean ere pozik  
etorriko gera gu.

## 21

Obeto kantatuko degu  
askoz ere gaur baño,  
Jaungoikoak gau on diela  
datorren urteraño.

Donosti ..... gian [1]

(1) Emen puska bat falta da, ta ezin jakin moldiztegiaren izena.

## ATSEGIÑAK

Dudik gabe, Iztuetak idatzak daude. Era ta esabideak Iztuetarenak izan ditezke. Beste baten lanaren eraketa bat dirudi. Agian, erderazko XVIII mendeko kanta batena, «Gozos» esaten zaiona. Iztuetak eta bere sendiak, Karmen'go lekaidetxe onekin zer-ikusi aundia zeukatelako, bertso aukeratu ditugu. Karmendar batek idatzi zion Iztuetari Donosti'ra 1827'an. Bere azkenian, Iztuetaren amak meza batzuk utzi zizkion lekaidetxe oni. Iya gure egunak arte, Karmen'go Ama Birjiñaren eguna sinismen eta debozio aundiarekin ospatzen zan konbentu ontan, jendetza asko joaten zala. Konbentu ontan ikasi zuan Frantzisko Inazio Lardizabal'ek. «Testamentu zar eta berriko kondaira» idatzi zuena, eta gure errietan ainbeste irakurtzen zana. Bartolome de Santa Teresa praillea ere, ementxe bizitu zan. Iztuetaren dantza liburuarren oso aldekoa ez zan.

## 1

Gure pozgarri beti zerana  
eta bitarteko indartsua:  
bear-orduan iguzu eskua  
Karmentar Jaungoikoaren Ama

## 2

Odeitxoan ain eder garbia  
iduritu zitzaioneti  
dontzilla amatzat eban onetsi  
Elias onak miraria;  
zure eliztxoa begiragarria  
modeltzat lenen jaio zebana  
bear-orduan, etc.

## 3

Zu maitatuzeko aiñ lenenak  
Elias-en semeak ziraden  
legez ta bidez zor zitzaien  
izatea Jainkoaren amarenak;  
zuengaitikan gogo berarenak  
gaiñ-izen eder au du emana.  
Bear-orduan... etc.



## 4

Argaitikan zuk onore anitz  
 Karmentarrai zenien egin  
 bizi ziñalaz laguntzarekin  
 zure landareaz milla aldiz;  
 azalduaz asko itz on agitz  
 ugariturik zure gogoana.  
 Bear-orduan... etc.

## 5

Karmengo lorearen jatorri  
 Elias-en ondorengoak  
 ta lagunkide elizakoak  
 Apostoluak ziran mandatari:  
 berri ona mundu guztiari  
 egiazkiro berak emana.  
 Bear-orduan... etc.

## 6

Done Simon buruzariari  
 eman izan zenion zutuna  
 doaigarritzat jarri ziguna  
 bere semeaz ezagungarri;  
 igesteko infernuko  
 da gordetzalle guztiz on dana.  
 Bear-orduan... etc.

## 7

Ondo bizi ta illtzen dan ure  
 ezagungarri arekin beti  
 zedorren bidez garbilekuti  
 irtengo da prest an bada ere;  
 zure laguntza duela bere  
 egatuko da gloria-gana  
 Bear-orduan... etc.

## 8

Zure kutun on maitagarria  
 ain da ezkutarma mena, ezik  
 ezta berunik ez altzaidurik  
 eman legikeonik larria;  
 eulezkoa da baiño, arrigarria  
 su ta izotzak garaitzen dituana  
 Bear-orduan... etc.

## 9

Karmentarren loreak dirade  
 santu andien nabardadeak  
 Lengeriol, Done igarleak  
 dontzilla garbi ta konfessore;  
 aita santuakin, irakasle,  
 zure mendia zerutzen dute ala.  
 Bear-orduan... etc.

## 10

Ondrazat eman zizun doneak  
 iraungo du Karmentarrekin beti  
 iritsi zuelako ernai da goiti  
 Elias beraren ipinleak:  
 Taborren Kristo erakusleak  
 glori argiro agertu ebana  
 Bear orduan... etc.



## ASTE SANTUA DATOR

Paper aundi batean dago. Estrofa edo aapaldi laukoetan sartuta. Frantzisko Inazio Albisu Irivek aldatu zituan. Berdiñ amaitzeagatik, seguru asko, bost errenkako aapaldietan daude jarrita. Guk amarrekoetan jarri ditugu. 1817'ko lapur baten auzian arkitzen ditugu, folio batzueri josita. Neurketa kontuan ez dira ainbestekoak. «Nere kristau maitiak» baiño traketsagoak dira. Ona emen Lorentzo Sukiak egin ditun konponketak. Lenengo estrofaren bigarren errenkan, «nere kristauak sarri» ordez, «O! kristauak sarri» izan diteke. Bigarrenorok, bigarren errenkan «gizonaren bide», dio, «gizonan bizie» ordez. Zazpigarren errenkan berriz, «erraz galtzenbaiegu», dio. «Errez galtzen badegu» izan bear luke. Zortzigarren errenkan, «nekez» ordez, «zaill». Irugarren aapaldiaren laugarren errenkan, «beti» ordez, «bai». Laugarren estrofan, zortzigarren errenkan, «Jaungoikoaren» ordez, «Jainkoaren». Bederatzigarren aapaldian, zortzigarren errenkan, «ederra» ordez, «eder». Eta amargarren errenkan, «usai» ordez, «usai». Amargarren aapaldian, bigarren errenkan, «ederra» ordez, «eder». Laugarrenean, «illaren» ordez, «illa», amaikagarren estrofaren laugarren errenkan bezelaxe. Amalagarren estrofan, laugarren errenkan, «nekatu» ordez, «neka». Amaseigarrenean, laugarren errenkan, «pekatu» ordez, «pekatu». Eta amargarren errenkan, «eztabaida» ordez, «ez baita». Emezortzigarren estrofan, laugarren errenkan, «onelako», «olako» ordez. Aapaldi onan bertan, seigarren errenkan, «ain gutxi» ordez, «da ez... dotorea». Azkenik, «Kapagin txikia da / kantore autore» ordez «Kapakin txikia / da kantore autore». Oartu gaitezen, laugarren estrofak, nolako antza daukan «Nere kristau maiteak»ekin. Ta bostgarrenak, zazpigarrenak eta amabostgarrenak, ogei ta irugarrenarekin. Euren gogaetak ere berdintsuak dira.

### 1

Aste santua dator,  
nere kristaubak, sarri;  
luzifer traidorea  
biziro da larri;  
nork bere pekatuak  
gogora ekarri,  
batere utzibage  
konfesatu garbi,  
Zerurako bidean  
naibadegu jarri.

### 2

Denbora gutxiko da  
gizonaren bizie;  
anima garbizeko  
egin diligentsie;  
iruripen utsa da  
mundu au guzie,  
erraz galtzen baitegu  
nekez irabazie;  
asarre egingo du  
Jaunak Justizie.

### 3

Aberatsa bezela  
igual pobrea,  
aditzeko pronto da  
beti konfesoia;  
balidin badauka ere  
lenago gordea,  
konfesatu ezker  
barkatzen da ordea,  
berekin badarama  
damu ta dolorea.

### 4

Dirurik eman bage  
ausen baita ditxa!  
kosta zitzaion bada  
Jesusi bizitza;  
zerura nai duanak  
gustoak uzi bitza;  
sinisten ezpadegu  
Jaungoikoaren itza,  
maite edukiko du  
portergak giltza.



## 5

Jaunaren arpegia  
 naiduanak ikusi  
 gusto lizun guziak  
 bearditu utzi;  
 mundu triste onezaz  
 obe degu etsi,  
 illbear degu bada  
 bigar edo etzi;  
 ori dakigularik  
 gera emen bizi.

## 6

Gusto guziak emen  
 dituan korputza,  
 geldituko da bada  
 aizkenean lur utsa;  
 pekatu egitea  
 bear degu lotsa;  
 gure ondoren dabil  
 beti eriotza;  
 deskidatzen bagera  
 luziferren poza.

## 7

Naigaberik ez eman  
 gure Jesus Jaunari;  
 gorputz ustel au degu  
 arratoian danari;  
 il-da norako geran  
 oroitzen danari,  
 biotz falso eta  
 kontzientzia larri  
 Batere durabage  
 bearko zaio jarri.

## 8

Anima arlotea,  
 korputza jantzia:  
 illtzen geran orduan  
 ai zer ganantzia!  
 zatar puska batekin  
 estalirik guzia:  
 ura ere ojala  
 ezpalitz ausia!  
 zuloan geldituko da  
 gauza itsusia.

## 9

Kostunbre gaiztoari  
 obe da uztea  
 kondenatu ez dedin  
 anima tristeia;  
 eskusatu bear da  
 modara jaztea;  
 korputza izanarren  
 eder ta gaztea,  
 ill orduko dario  
 usai ta pestea.

## 10

Lenago izanarren  
 eder ta galanta,  
 izugarria baita  
 korputz illaren planta,  
 naiz dela majoa ta  
 igualmente maja,  
 asizen dan orduan  
 apezaren kanta,  
 zulora bear ori  
 guzik lan onbata.

**11**

Kanpeatuakatik  
lenago kalean  
eztu inork egonai  
illaren aldean;  
larri izaten dira  
zulora artean;  
utziko baliote  
an ere pakean!  
mudantza ona baita  
istante batean.

**12**

Oroitu utsarekin  
arri litake kasi;  
penitentzi egiten  
beardegu asi;  
zulo zikin batean  
arratoiakin nasi,  
ura ere txikia  
ezin dezake azi;  
orra zer estadutan  
beardegun bizi.

**13**

Gorpuza zulora ta  
anima gaisoa  
urrukarria da  
ezpada nork jaso;  
disimuloarekin  
botarik lazoa,  
aren ondoren dabil  
luzifer falsoa;  
kuidaduz obe degu  
ipini pausoa.

**14**

Egin bearrak gera  
munduko aldia;  
esamina egiten  
nekatu memoria;  
gozatu nai duanak  
zeruko gloria,  
anima gaisoari  
egin guardia;  
gaiztoarentzat dago  
egualdi gorria.

**15**

Infernua guziz da  
paraje illuna;  
ez egin luziferrek  
agintzen diguna;  
allegatuko zaizu  
juizioko eguna,  
Jauna ofenditua  
damuko deguna;  
oraindik bizi gera  
ausen da fortuna!

**16**

Gure Jesus maitea  
esanaz oidago  
ez dezagula egin  
pekaturik geiago;  
guregatican zuan  
eriotza igaro,  
galanki azotaturik  
illbaño lenago;  
asarre egotea  
ezta bada milagro.



## 17

Idukiagatikan  
pekatu larria  
aisa para diteke  
anima garbia;  
baldin konfesatzeko  
ezpada nagia;  
bitarteko ona da  
birgina maria;  
Jaunak izan dezala  
miserikordia.

## 18

Jakinduria nailuke  
buruan gordea  
ongi ateratzeko  
onelako obrea;  
ez naiz filosofoa,  
ain gutxi dotorea;  
estudio bageko  
gizon bat pobrea;  
Kapagin txikia da  
kantore autorea.

## NERE KRISTAU MAITEAK

«Aste santua dator» baiño luzegoa da, ta aapaldi geyago dauzka. Tolosan, 1895 urtean, izan zuan bigarren argitaraldia. Bere dantza liburuan, 191-194 orrietan, Iztuetak agintariari eskeintzen die. Gorago esan degun bezela, «Nere kristau maitiak», «Aste Santua dator» baiño dotoreagoa. Geroago egiña bait dago. Bertso eskolatuagoak dauzka. Aita Eusebio Nierenberg'en liburu «Diferencia entre lo temporal y eterno»tik ere aipamen bat egiten du. Bere azkenaian eta liburuen zatian, «Kantiko espiritualak»en liburu bat aitatzen du. Bere gaztetasunean geyago ere egin zituan ustean gaude. Adibidez, Dekalogoaren aginduak. Esan degun lez, Logroñon izan zuan auzi-paperetan itz egiten da beroietzaz.

## 1

Nere kristau maiteak,  
jakiñean gaude  
Jesukristo degula  
Gure Jaun ta Jabe;  
bizi-gaitezen beti  
fedaren alde;  
gelditu-diradenak  
au sinistu gabe,  
infernuan sarturik  
erretzen oi-daude.

## 2

Erioak jotzean,  
estu eta larri  
anima egongo da  
gutziz arrigarri;  
lendanaz bekatuak  
gogora ekarri,  
bat ere utzi-gabe  
konfesatu garbi,  
Luziperren mendean  
ez gaitezen jarri.



## 3

Jesukristo izanik  
 aiñ Jainko noblea  
 osakaia daduka  
 guretzat gordea,  
 Anima sendatzeko  
 ezin-da obea:  
 artzen-badu damua  
 eta dotorea  
 sartuko-da zeruan  
 naiz izan pobrea.

## 4

Dirurik eman-gabe  
 Auxen baita ditxa!  
 bañan kosta zitzaion  
 Jesusi bizitza;  
 Geroztikan etsaiak,  
 arrantzan dabiltza;  
 ornitu nai duenak,  
 bautismoko itza,  
 gusto lizun guziak,  
 arras utzi-bitza.

## 5

Jaunaren arpegia  
 nai bada ikusi,  
 ibilli bear-degu  
 gustoen igesi;  
 alderatzen bazaizku,  
 begi biak itxi,  
 mundu triste onezaz  
 obe degu etsi,  
 infernuko leizera  
 ez gaitezen jetsi.

## 6

Munduan atsegiñak  
 dituen gorputza,  
 geldituko da bada  
 zuloan lur-utsa:  
 anima infernura  
 Luziperren poza!  
 Arren! urtu-dezagun  
 negarrez biotza!  
 gure ondoren dabil  
 beti eriotza.

## 7

Naigaberik ez eman  
 Jaungoiko jaunari;  
 gorputz uztel au degu  
 zapoen janari;  
 ilta norako-geran  
 oroitzen danari,  
 biotza triste eta  
 anima txit larri,  
 batere duda-gabe  
 bear zaizka jarri.

## 8

Adiskide maiteak  
 izan arren milla,  
 ildakoan, ez-asi  
 bakar baten billa;  
 apenas izango du  
 ura ere piña,  
 sentitzen dutelako  
 usaia egiña;  
 guziak aren-igez  
 ibilliko dira.

**9**

Ill bezin laister ditu  
maitati berriak:  
usai zikiñarekin  
liztor ta euliak,  
sartzen zaiozkalarik  
abotik erdiak,  
beste gañerakoak  
jan-bear begiak;  
aita Eusebiok dizku  
esaten egiak.

**10**

Iltzen-danaren aide  
guzien ansia,  
etxetik botatzeko  
balego jantzia:  
Ojala ura-ere  
ez balu ausia!  
iru edo lau atsok  
nola nai josia;  
zuloratuko-dute  
gausa itxusia.

**11**

Maitatu arren askok  
lenago kalean  
gutzik egon-nai-oidu  
illaren aldean;  
ezkutatuko dute  
zulotzar batean,  
bañan ez lagatuko  
an ere pakean,  
zapo ta arratoiak  
dana jan artean.

**12**

Zabalera iru oñ,  
luzetara zazpi,  
bizi-leku txatarra  
izango-du lazki;  
sagu ta arratoiak  
zapoakin nasi,  
ardura asko-gabe,  
ongi edo gaizki  
an sartu bearco-du,  
naiz ezurrak ausi.

**13**

Ill arterañoa  
esan det nola dan,  
gero-ere ba dago  
eskuak bete lan:  
larri egon bear du  
animak orduan,  
sartuko dan zerura  
edo infernuan:  
gaiztoa izan bada  
erre bear-du an.

**14**

Juzgatzeko pixua  
daukate jarria;  
anima gaxoaren  
arako larria!  
txit izango du langai  
ikaragarria,  
betiko pena edo  
betiko gloria;  
diferentzia ori  
guziz da lodia.



**15**

Gizon jakintsu anitz  
 ibillitu dira  
 diferentzia lodi  
 andi orren billa;  
 ongi ezaguturik  
 animaren miña  
 izkribatu ere bai  
 egi asko milla:  
 orien birtutez gu  
 onduko bagiña.

**16**

Kondenatuen penak  
 aiñ dira andiak,  
 ezin ager-litzake  
 nere memoriak,  
 batez ere guziak,  
 ain gutxi erdiak;  
 bañan ez da faltako  
 nork esan egiak  
 sendatu nai badira  
 anima eriak.

**17**

Gure animak dauzka  
 igaro-bearrak  
 zubi altu luzeak  
 eta txit melarrak;  
 erorten baldin-bada,  
 sasiakin larrak;  
 kiskaldu-bear, berriz,  
 suak eta garrak:  
 ez du asko balio  
 orduko negarrak.

**18**

Erretzea utsa da,  
 ez baliz geiago;  
 bañan beste pena bat  
 gaiztoa an dago:  
 naiz ditzala urteak  
 milloika igaro  
 eta gertatu beste  
 ainbeste milagro,  
 bein-ere irteteko,  
 usterik ez dago.

**19**

Guzia iristen du,  
 ai ura labea!  
 tormentu izugarri  
 kaburik-gabea;  
 artipizio askoz  
 daukate parea,  
 Luzifer dutelarik  
 maisu ta jabea:  
 Nori egingo zaio  
 arako zalea?

**20**

Emengo atsegiñak,  
 ez du an balio;  
 animak izango du  
 bere-kontrario,  
 zein-aldeetatik zuen  
 munduan bizio,  
 serpiñtiak andik  
 itxatsiko dio:  
 ala esplikatzan da  
 aita Eusebio.



## 21

Tiraka sartuko-du,  
Kueba batera  
tormentu generorik  
asko ematera;  
iges-egin nai arren  
leku apartera,  
an irtengo zaiozka  
dragoiak jatera;  
ez diteke sekulan  
kanpora atera.

## 22

Luziferrek berekiñ  
leizera-etzkeru,  
kanpora irteterik  
ez du zer espero:  
artu bearko ditu  
otzak eta bero,  
nai-ez-duela, zenbait  
tormentu genero;  
orain ontzen ez danak  
damuko du gero.

## 23

Infernua, da guziz,  
toki bat illuna;  
Ez egin, Luziferrek  
esaten diguna;  
etorri bear-zaiku  
oraindik eguna,  
Jauna ofenditua  
damuko deguna;  
animari lenbait-len  
eman osasuna.

## 24

Konfesioa dago  
artako jarria;  
urtu bedi biotza,  
ez-bada arria;  
Ill bear deguna da  
fedeko egia,  
beragatik, anima  
ipini garbia,  
gozatu nai duenak  
betiko gloria.

## 25

Arretaz bear-degu  
egin esamiña;  
orobat konfesatu  
bekatu egiña;  
infernuko su-garraz  
oroitzen bagiña,  
naiko-genduke ongi  
sendatu anima;  
izan ez dezakegun  
sekulako miña.

## 26

Ar gaiztoa da guziz  
animako kezka;  
Bekatuan beñere  
bizi bear ez da;  
aixa ill dezakegu  
maiz konfesatuta,  
orain degu denbora,  
baita-ere beta.  
Kanta oen egille,  
ni naiz Iztueta



## OITURAKOAK

*«Mi amigo Iztueta: Recibí a su tiempo los cuatro ejemplares de la contestación de Ud. al Padre Calparmona... Su lectura me divirtió bastante, y ha gustado aquí, con particularidad el Cuentecillo de la Vieja sobradientes, y los versos relativos a él, los cuales parece hicieron también reír a nuestro amigo el crítico...».*

(De una carta de Juan Bautista de Arrizabalaga, secretario de Juntas y Diputaciones de la Provincia, desde Tolosa el 1 de abril de 1828).

*«Amigo Iztueta: Para servir a una persona que le aprecia, deseo hacerme con las canciones de ezkonberriak y las de la venta de Tocino en Navarra que principian "urdai saltzera..." y siendo Ud. el inventor de los primeros y sabedor de los segundos, vea Ud. de obsequiarme con ellas mandándome por el correo».*

(De Domingo de Iraunta desde Motrico, 16 de agosto de 1844).

## EIZTARIANAK

Idazkera, izkera ta erok, Iztuetarenak. Bere dantza liburuan, Iztuetak askotan aipatzen du Idiazabal. Idiazabal dantza zalea zan, izan ere, ta eiza zalea. Zerbaitegatik, Goierrian, «axariak» izengoitia daukate.

### 1

Maiatzaren illeko  
elurte andiak  
estali ditu aurten  
sasi ta mendiak:  
beretatik jatxirik  
basoko pistiak  
arrapatu dituzte  
aixa eiztariak.

### 2

Idiazabaltarrak  
jira eta bira  
azeriaren gisa  
eiztariak dira:  
naiz dala ollo, eper,  
orobat erbia,  
seguru dute, itxi  
ezkero begia.

### 3

Artakoak dirala  
jakiñean nago  
Bikario, barbero  
tan don Jose Galo:  
eizerako giroa  
ikusi ezkero  
beretakorik iñor  
ez da egongo lo.



## 4

Maiatz illaren ogei  
ta bederatzian  
asteazken egunaz  
nere iritzian:  
irurak erbitara  
irten omen ziran,  
ugari billatzeko  
pozkida bizian.

## 5

Bañan ezin arkituz,  
zutelako etsi  
etxerantzko bidera  
omen ziran jetsi:  
Mendizabalek zeban  
fortunaz ikusi  
basoaker andi bat  
sasitik igesi.

## 6

Arras ikaraturik  
esan zeban garbi  
zer deabruzko erbi  
ote degu ori:  
nondik nolatan zaiku  
onara etorri?  
Bikarioak zion  
tiratu berari.

## 7

Jaun prestu au izanik  
aiñ tirari ona  
eizari kendu zion  
bertan osasuna:  
perdigoi bakar batez  
ura zan fortuna!  
Ea non billatzen dan  
alako gizona.

## 8

Beraren lagun biak  
jarririk goiean  
ikaraturik zeuden  
aldegin naiean:  
astean ere bai ta  
geiago jaiean  
guztizko eiztariak  
dirade maiean.

## 9

Barbero jaunarekin  
don Jose Galori  
basakerra zitzaien  
oñetan erori:  
ikusi zutenean  
burutik elbarri  
despitan omen ziran  
alkarrekin jarri.

## 10

Bata zegoalako  
ondo ikasia  
eri jarten diranai  
kendutzen bizia:  
juezetara bage  
beingoan guzia,  
laster erabaki zan  
jaun oen auzia.

## 11

Bikarioak zien  
muñotik otsegin  
geldi zegoen eiza  
etzezatela ill:  
polikitxo loturik  
artu ez zezan miñ  
gorde bear zutela  
bizi ote zediñ.

**12**

Mendizabalek ere  
bere iritzia  
manifestatu zeban  
garbiro guzia:  
opa bear zaiola  
eizari bizia  
ikusit ezkeroztik  
humil ta etsia.

**13**

Barberoa bildur zan  
guztiz arrigarri  
adarra sarlegion  
akerrak tripati:  
eriak menderatzen  
berak ondo daki,  
tiro bat eman zion  
buru muñetati.

**14**

Don Jose Galo eta  
barberoa noski,  
akerra ill ta ere  
beldur ziran lazki:  
erabilli baitzuten  
aztalarik aski  
adar luze zorrotzaz  
ote zitza josi.

**15**

Sokaz ondo lotu ta  
sarturik makilla,  
kontuz eraman zuten  
basoaker illa:  
iritzi ziraneko  
arekin errira  
berreun atso bederik  
ba ziran begira.

**16**

Kentzeko pisti gaizto  
menditarren kezka,  
urrungo igandean  
egin zuten pesta:  
mutil eta neska  
baturik asko gizon  
basakerrik geiago  
azalduko ez da.

**17**

Funtzio aih gozo au  
Idiazabalen  
elur andien bidez  
izandu da aurten:  
konbidatuak baizik  
ez da maiean jarten,  
amabi lagun ziran  
basakerra jaten.

**18**

Bazkaldu zuteneko  
ba zuten bisita  
erriko gazteria  
arturik musika:  
barberoa pozturik  
aek ikusita,  
ihork ezin ixildu  
ojuz garraxika.

**19**

Don Jose Galo ere  
onekin batean  
asi zan deadarka  
ondotxo jartean:  
guziak itzegiten  
alkarren artean,  
garbiro entzuten zan  
guztiz apartean.

**20**

Ormaiztegi menditik  
jaun oen jolasak  
entzun omen zituen  
Aseginolazak:  
mingañaz igortzirik  
agiñ eta ortzak,  
ezagutu ere bai  
etzeudela otzak.

**21**

Basakerraren pesta  
orain da bukatu,  
egia dan edo ez  
ez da zer dudatu:  
bear ez dan gauzatan  
baldin banaiz sartu,  
nere esanik ez da  
zer puntura artu.

**ERBIA JAN ONDOAN**

Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak. Asmamen eta  
zirto aundiko bertsoak.

**1**

Erbia jan ondoan  
ai zer atsegiña!  
arrapatzeko egin  
gogoz alesiña;  
salsa badu koipean  
ondotxo egiña,  
guztiz gozoa baita  
aren gitzurdiña.

**2**

Zaldibian eiztari  
azkarrak ba dira,  
zuzenki bear zaio  
erbiari tira:  
dala buru aldera  
edo ipurdira,  
bestela joango da  
bizirik mendira.

**3**

Ikusi izan ditut  
nik berso berriak  
eiztari ustekoak  
tabernan jarriak:  
ez ditu sendatuko  
gaixo ta eriak  
eskopetaz jaun oek  
ildako erbiak



## 4

Erbi zarrak iltzeko  
aste ta jaiean  
jarri izan dirade  
askotan gaiean:  
nolanai tira arren  
lurrera ta aizean  
arras eiztari onak  
dirade maiean.

## 5

Eizera joanarren  
igaz eta aurten,  
tira bide onean  
ez dirade jarten:  
erbi-apari asko  
ez dute ematen;  
bestek arrapatutik  
ba dagite jaten.

## 6

Gertatu izan dala  
artu det barria,  
ez dakit dan gezurra  
edo dan egia:  
lotan zegoalarik  
apian erbia,  
tira eta utsegin  
a, zer eiztarial!

## 7

Bakulua arturik  
apropos illtzera  
joan izandu zala  
det nik aditzera:  
tiroa aurrera ta  
erbia aitzera,  
bete betean jarten  
biziro gaitze da.

## 8

Eskopeta jarririk  
bakulu gañean,  
tiratu omen zion  
sosegu onean:  
polboraren usaia  
entzun ondorean,  
erbiak arantzarik  
etzuen oñean.

## 9

Erbia igesi ta,  
ura naigabea!  
ez omen zan kontentu  
bakulu jabea:  
ikusi izan balu  
maiean pare,  
ondo gisatuaren  
gutziz da zalea.

## 10

Edozeñek badaki  
dala txit gaiztoa,  
gertakari txar txar bat  
berez alakoa:  
naiz dala gizena ta  
orobat flakoa.  
gozoagoa dala  
uste det gaurkoa.

## 11

Erbia baldin bada  
menditik jetsia,  
guria izango da  
beraren txitxia:  
are gozoagoa  
zopatan bustia,  
tiratzalle onari  
zor zaio guztia.



## 12

Eiztariak dakite  
mai ona ipintzen  
eta adiskideak  
bertarako biltzen:  
goiz batean bakarrik  
iru erbi gizen,  
bakulu bagetanik  
zeñek ditu illtzen.

## 13

Anton eta Manuel  
goien eta bean  
jarri ezkeroztanik  
tiratzeko eran,  
eizak pensatuko (...  
seguru (...  
ikusi (...

## NERE LAGUN MAITE

Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak. Gertaldi onen  
aitzindaria, Camara da.

## 1

Nere lagun maite ta  
adiskide Enbil;  
zure mandatua nik  
zuzenki det egin,  
testiguak arturik  
kolpatuarekin,  
asuntoaz jueza  
enteratu dedin.

## 2

Ikusi duenean  
asunto larria,  
juezak formatu du  
bertan sumaria;  
Eloy asi zanean  
klaritzen egia  
illun ifinten zion  
Camarak begia.

## 3

Zuen bien artean  
zer zuen ikusi  
Eloy esplikatutzen  
argiro zan asi:  
Camarak naizuela  
makilka ikasi,  
jo zendueta bañan  
ezurrik ez ausi.





## 4

Juezak galdeturik  
—esazu, ala da?  
defensaren egiten  
asi zan Camara:  
bengatu nai duela  
iñolaz al bada,  
egin geniolako  
farra ta algara.

## 5

Camarari juezak  
dio kargu egin,  
ea zekien nor zan  
Don Frantzisko Enbil?  
eman arren buruan  
makillarekin min,  
pozik dagokeala  
etzuenean ill.

## 6

Aserre jarri zan txit  
Camara orduan  
esanaz min zuela  
oraindik buruan;  
gizona tratatzea  
alako moduan  
kondenatzen zutela  
legeak munduan.

## 7

Legeak zuzenkiro  
ezarriak daude  
bañan indarra oi da  
beti aien jabe;  
nik gezurra badiot  
edozeñi galde,  
makilka ezin ikasi  
miñik artu gabe.

## 8

Nai badezu, Camara,  
makilka ikasi,  
urrena etorzean  
Enbillekin asi;  
gorgolloak artzera  
bear dezu ezi,  
ordañak emateko  
bigar edo etzi.

## 9

Ez nuen gorgollorik  
kolpea egotziz,  
bañan min artzen nuen  
kalaberan guziz,  
jarri zitzaidalako  
bertan ekimosis  
zeña kuratu nuen  
ardo on egosiz.

## 10

Kolpeak meningean  
ez dirade txit on,  
antxen sortu zitzaidan  
niri congestión;  
es menester ifini  
Enbil en prisión  
besteri alakorik  
egin ez degion.

## 11

Juezak esan dio  
Camara jaunari:  
—Ezin diet termino  
oriei igarri;  
bañan ikusitzen det  
argiro ta garbi  
kolpeak artu arren  
etzaudena eri.



## 12

Ematera noa ni  
nere sententzia  
ikusirikan ongi  
prozesu guzia:  
gozoa txit gutxitan,  
askotan gazia  
badakizute bada  
oidana auzia.

## 13

Auzitan asitzea  
guzientzat gaizto,  
igarotzen da zenbait  
onelako chasco.  
Enbillek bear ditu  
eman sei ollaisko  
baduela uste det  
kastigurik asko.

## 14

Camarak ere busti  
bear du beatza  
pagatzen dituela  
ardo ta legatza,  
arrasalde bat ona  
dezakegun pasa;  
medikuen langintza  
txit da aberatza.

**TXURRUT ZALEARI ADISKIDE BATEK**

(Bolera-doñuan)

Idazkera ez du ematen Iztuetarena danik. Zuzena izaten da. Ta emen makurtua agertzen da. Baste gauz batzuegatik ere bai. Bertsoak, Iztuetarenak izan leizke. Ondoren datozen zortzi-koak diran bezela, idazkeraz gorabera.

## 1

Kantari asitzen naiz  
adi nazazu;  
nik dakidana zeurtxok  
jakingo dezu:  
egon ixillik,  
gauza pollit askoak  
esan ditut nik.

## 2

Txurрут txurрут asi da  
urlia edaten,  
zer gertatuko zaion  
ez du pensatzen:  
mingaña lodi  
itzak zeñek aditu  
orduan ari?

## 3

Buru keaz betea  
zorabillaka,  
iritxi dabilela  
lurra jiraka:  
begi zakarra,  
uste du bi dirala  
argi bakarra.



4

Ibilltzen asitzean  
 ankak gurutze,  
 burua makur oker,  
 lepoa luze:  
 siaska egiña,  
 biderik zabalena  
 ez da aren diña.

5

Ederra dek planta ori  
 gizon batentzat!  
 nik ez nitek ala nai  
 nerezat beintzat;  
 tonto lapiko!  
 oitura zirzill ori  
 noiz duk utziko?

6

Oa etxera eta  
 oian sartu  
 inork ez ekusteko  
 i ain zoratu;  
 lotsagarria,  
 iturriz itzali zak  
 goiz egarria.

7

Ez baduk ik utzizen  
 oitura txarra,  
 igatik egingo dik  
 munduak farra;  
 ez duk andia!  
 ongi irrigarri duk  
 gizon ordia.

8

Orra konsejtxoak  
 ongi kunplitu:  
 egjarikan aski  
 dezu aditu;  
 zurezat obe  
 betezen ba dituzu  
 lasaitu gabe.

9

Ibillzen ez bazera  
 edanaz arin,  
 esanak esan, eta  
 egiñak egin,  
 ortik ibilli!  
 ez nik kaso geiago  
 astotzar orri.



## OIEK BERAK ZORTZIKOETAN

1

Kantari asitzen naiz  
aditu nazazu,  
nik dakizkidan gauzak  
jakingo dituzu.  
Egoten bazerade  
aditzen ixillik,  
gauza pollit askoak  
esango ditut nik.

2

Txurrut txurrut ari da  
urlia edaten,  
zer gertatuko zaion  
ez du ark pensatzen.  
Laster gelditzen zaio  
mingaintxoia lodi,  
auko itzak orduan  
nork adiera-azi?

3

Buru keaz betea  
ai zorabillaka!  
uste du dabilela  
lur ori giraka.  
Begi makar-jario  
ondikoz zakarra:  
iritxi, bi dirala  
argi bat bakarra.

4

Ibiltzen asitzean  
zangoak gurutze,  
buru makar okerra,  
lepo ori luze:

ibiltzeko moduan  
siaska egiña,  
biderik zabalena  
ez duk aren diña.

5

Ederra duk planta ori  
gizon dan batentzat!  
ez nuke ala naiko  
nik neretzat beintzat.  
Ezagu zak okerra  
bein, tonto lapiko,  
oitura zirtzill ori  
ez al duk utziko?

6

Oa etxera eta  
laster oian sartu,  
iñork ez ekusteko  
orren zoratu,  
gizon, erriarentzat,  
ain lotsagarria;  
iturritz itzali zak  
goizeko egarria.

7

Ez baduk ik utzitzen  
kostunbre ain txarra,  
igatik egingo dik  
mundu orrek farra;  
ez, ordea, pensatu  
dala gauza andia,  
ongi irrigarri duk  
gizon bat ordia.

8

Orra konsejutxoak,  
zeurk ongi kunplitu:



asko egia eder  
dituzu aditu.  
Betetzen badituzu  
lasaikeri gabe,  
gureztat on izain da  
ta zurezkat obe.

**9**

Ez badezu izan nai  
edanean ariñ,  
esanak esan dira  
ta egiñak egin:  
zabiltza zere gisa  
ta ortikan ibilli  
kasorik ez egingo  
nik astotzar orri.

## LAGUN ARTEKOAK

*«...y Ud. conserve su buen humor».*

(De una carta de Juan Bautista de Erro  
desde Azpeitia, mayo, 26. 1833).

*«Veo que mantiene Ud. el humor de siempre, bendito sea Ud. e  
imitado por todos, siendo envidiable su jovialidad en esa edad...».*

(Agustin Pascual Iturriaga  
desde Hernani el 7 de agosto de 1840).



## BIZE-PRESIDENTE

Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak.

### 1

Bize-Presidente da  
Oiarbide jauna,  
mundu guztiak daki  
artakoa dana;  
emeki egingo du  
artzen duen lana;  
bedeinka bedi bera  
egin zeban ama.

### 2

Kapillau dutelarik  
don Joaquín Campos,  
abilla da bera txit  
buruz eta zankoz:  
prestua ta zuzena,  
alegreá gogoz,  
jantzia arkitzen da  
doain eder askoz.

### 3

Bokal don Jose Galo  
Mendizabal-koa,  
gizontasunean da  
txit gain gañekoa;  
jostaldiarako prest  
beti du gogoa;  
ez da erraz billatzen  
non-nai alakoa.

### 4

Don Jose Antonio  
Aseginolaza,

onen aldetik ezta  
galduko jolasa;  
lagun ondraduakin  
egongo da lasa,  
sekretariotzera  
omen zaizu pasa.

### 5

Lau gizon maitagarri  
prestu oen griña,  
ezin altza nezake  
bear dan adiña:  
alde askotara da  
arras atsegiña,  
ojala alakoak  
guziok bagiña.



## AI, AU KONSUELOA

Idazkera, izkuntza ta erak, Iztuetarenak.

### 1

Ai, au konsueloa  
dadukat nerekin  
arkitzen naizalako  
lagun prestuakin;  
maitatzen ditudana  
badakite berdin,  
onara etorria  
ez det batere miñ.

### 2

Magdalena izanik  
ain santa andia,  
toki onean zuen  
autatu aulkia;  
beraren zorionaz  
gaitean balia,  
ondratzen degularik  
gaur Erreteria.

### 3

Egia esan gabe  
ez nezake utzi;  
gende prestua da txit  
Renterian bizi;  
alkatea koplatu  
nai det lendabizi  
goi-gora altzatzea  
berak du merezi.

### 4

Gipuzkoa oi dabil  
beti onen billa

ezaguturik dala  
txit gizon abilla;  
beraren serbitzari  
on izan dedilla,  
aspaldi igaro zan  
berri au Madrilla.

### 5

Badakigu txit gizon  
maitatia dala;  
igaz Diputadu zan  
aurten ere ala;  
jakintsuna da eta  
txit kolko-zabala,  
Jaunak urte askoan  
konserba dezala.

### 6

Egokia dalako  
auturik daukate  
Erreterian bera  
Juez ta Alkate;  
gañera Terzio-en  
dago komandante;  
luzaro bizitza  
ez du iñork kalte.

### 7

Egiteko guziaz  
aldebat utzita  
gustora bear degu  
gaur entzun musika:  
dama eder batekin  
dantzan asi eta  
ikusi nai nuke nik  
emen Sasi (eta) [¿Arrieta?]



## NERE ADISKE ON

Idazkera ta izkuntza, Iztueta renak. Bizkaiko itz eta aditzera batzuk kendu ezker. Idazki onen jabea, Etxeberria agertzen da. Iztueta ren bigarren abizena bait da. 1827-1830 urteen artean, Abandoko perratzaille Paulo Ulibarri Galindez'ekin idazten zala badakigu. Arremanak ikusi, Balentin Berriochoa anaiak dakartzkianak, Boletín de los Amigos del País'en, XVII urtean. Irugarren kuadernoan, 3-11 orrietan. Donostia, 1961. Jakitekoa, irugarren estrofan datorren «Buru-ontar» Fernando itza. «Bourbon=Buru-on» itz-sustraiarekin. Ta «tar» atzizkiarekin. Jakingarri auetan gure denborai aurreratzen zala.

### 1

Neure adiske on  
irme ta mamia,  
artu det izkida, zeuk  
euskaraz jarria;  
aiñ dago goixoa, ta  
ederki neurria,  
irakurten emon deust  
atsegin andia!

### 2

Berbatik ezagun da  
gizonaren griña,  
agerri da zerala  
euskaldun tint piña;  
esker onak emonaz  
zeuri asko milla,  
gura neuke erantzun,  
baino ez naiz diña!

### 3

España guztiko  
jaun, eta jabea,  
buru-ontar Fernando  
geure Erregea:

biotzetan daukagu  
ondotxo gordea,  
ezin gentzake izan  
beste bat ohea.

### 4

Bere alaba, anai,  
emazte ta guzi  
urte askoz dezala  
Jaungoikoak bizi;  
biotzeko mamitio  
ez gentzake itxi,  
euskalduna maite du,  
ez alere gitxi!

### 5

Kantauritarrekaz da  
itzkuntza euren,  
mundu guzti-guztian  
izan zan lenena;  
oraingino-etan  
danik ederrena,  
nork eztaki gu aen  
tokian gaudena?

### 6

Geuren asaba onak  
euskara garbia  
gordairu zuten ondo  
zeren dan argia;  
aek bezin maite guk  
bagendu Erria,  
ikasola bertatik [1]  
legoke jarria.

### 7

Txori-buru puztuen  
lumatzar ariñak,





jalki izan dituzte  
berba latz samiñak:  
galtzeko euskararen  
erro mardul piñak,  
baino alperrrik dira  
euren alegiñak!

## 8

Gure euskara ezta  
burutik jauzia,  
sasoian arkitzen da  
oraño guzia:  
irabazirik, bidez,  
besteai auzia,  
agertuko da noizbait  
ederki jantzia.

## 9

Paulo Urribarriko  
gogoangarria,  
badakit zeradela  
euskaldun garbia:  
Jainkoak deutzatzula  
zori-on ankaia,  
zeure gurarirako  
naz Etxebarria.

## AU DA FARRAGARRIA

Idazkera, izkuntza eta bertso auetan agiri dan izakera, Iztuetarenak. Aurreneko aapaldiak ezkerreko ertza ondatuta dauka, ta erabat osatzerik ez dago, zoritxarrez. Laugarren estrofan lenengo bertsoa erren dago, ta «ta» bat jarri zaio. Seigarrenak «tildea» bat dauka, ta zer izan leiken ez dakigu.

## 1

Au da farragarria  
(ene!) vālgame Dios!  
(agur)e zar zar bati  
(bertso) berriok...  
(Orain) norbaiti ere  
ekin bear diot,  
(non)dik ote ditudan  
(esp)antu andiok.  
(Itz)a eman diot  
(m)illa amorioz  
nagola serios;  
ixilduko ditudala  
erronka-andiok

## 2

Bertsolaria zein dan  
ezta deklaritzen;  
sasitik asi zaizkit  
arri tiratzen;  
ukitu ez banindu  
ixillik negoen;  
ezdakit neregandik  
zer nai ote duen;  
ez naiz ni arren men,  
ez orain ta ez len,  
zenbat uste duen,  
frututik ezagun da  
arbola zer den.



## 3

Uztegiko Argiña  
bertsolari piña,  
ba daukak fantasia  
konbeni adiña;  
ogei ta launa urtez  
igual bagiña,  
iri koplak ematen  
zer tripako miña!  
eniok aitziña;  
nai dukan adiña  
egik alegiña;  
parti darekin mintza-  
tzen aiz, argiña

## 4

Uztegi-ko argiña,  
mortero-gillea,  
errodek paratu dek  
jardun-bidea;  
zarrak ateratzeko  
auxen dek tildea!  
Jaunak eman grazia  
ez al duk irea;  
argintxo noblea,  
naiuke nonbrea  
nik baño obea;  
graduren bat falta duk  
ik (or) ordea.

## 5

Anuiz-tar balleko  
koplari berria:  
(goi)goieneko mallan  
ago jarria,  
lurreratu naiean  
agure elbarria;

nere urte joanaz  
nai badek balia;  
para juzkaria,  
naiz predikaria;  
errain dik egia,  
zeñengan gelditzen dan  
jakinduria.

[1] Ikastola, Paulo Uribarri'ren ametsa zan.



## POEMA MUSICAL

Idazkera, izkuntza ta egikera, Iztuetarenak. Bertsoak,  
dantza eresiai eratzeko, Pedro Albeniz eta Manuel Larrarte'kin  
ibilli zaneakoak?

### 1

Ut, re, mi, fa, sol, la, si  
oju, ta garraixi,  
musika kizkar piña  
ikasten naiz asi:  
zarrabet, txirol, bolin  
txun, txun eta guzi  
zarzaroko baneza  
zerbait irabazi.

### 2

Brun, brun, kikiri, tirtrat  
gozoak eta miñ,  
musikaren puntuak  
bear dira jakin:  
batzuek donarioz,  
besteak txit ariñ,  
prist, prust, brin, brun, ta fite  
oi dirade egin.

### 3

Seminima, kortxea,  
fusa, ta kalderon  
au ikustean geldi  
bearko det egon:  
turruntun, txiruliru,  
tarrapatan, pinpon  
guztia jakitea  
gizonak txit du on.

### 4

Ikasi al baneza  
nago ni premian  
maisu onak daduzkat  
Aitxeri-Errian:  
musika(ko) itzkuntza  
zar eta berrian  
trebe arkitzen dira  
nere idurian.



## AMODIOZKOAK

*«Irakurtu det bedorren papera, eta bihurtzen diyot milla eta milla  
eskerrik askorekin. Atsegin andiya eman dirate bedorren gaztetazuneko  
amoriyo-zamurra. Ez nuben-bada oraingizano irakurtu orrelako bertzo-  
ederrik gure euskeru garbijan...».*

(Joaquín María Berrerenekoa desde San Sebastián  
el 25 de junio, 1840).

## KONTZEZIRI

1825'an, Pablo Mendibil erbestetuaren bidez Londres'en argitaratu zan liburuxka batean, aín ezaguna dan olerkia, Iztuetak berak bere eskuz idatzitakoa, ta jabeak egindako erderazko itzulpenarekin, Bilbaon dago. Olerki onen ikerketa bat, 1877'ko Jose Manterola'ren «Cancionero Vasco»n arkitzen da. (Serie 1.ª, tomo 1.º, 39 ta ond. orr.) 1844 arte etzala argitaratu esaten duana, egia ez baldin ba-da ere. Ezta ere ez da egia, «la melodía de esta canción incluida por Iztueta en su álbum de bailes y cantos populares, y que se cree sea como la letra, composición del mismo». Aipatutako liburuxka ortan esaten bait zaigu, «además procuró con ella introducir en la poesía vascongada la medida de cierta canción castellana conocida con el nombre de "Churripampli", que en aquel tiempo se cantaba mucho en todas las provincias de España, y había también penetrado en Guipúzcoa, usurpando los derechos del antiguo zortziko».

Baita ere ikusi ontarako, Manuel Lekuona jaunak «Zeruko Argian» egiten duan ikerketa gai ontaz. Baita «La Gran Enciclopedia Vasca»ren III liburuko 1.º eta 2.º liburuxkak, 72-73 orr. 1968'ko mayatzaren 15'an. Antxe dago Kontxesi-ikerketa Joxe Gardendiak egiña, Manterola jaunaren itzulpen eta azalpenen ondorean.

Maitebat maitatzen det maitagarria

Begi ederra du ta guztiz argia;

Daukat urruti,

Bañan ezin kendu det buruti

Aren itxura;

Saldu albaliteke pisura,

Urrearen truke

Nork erosi faltako ez luke.

Nork erosi, etc.

Ogeita lau leguaz nago aparte,

Bitartean ba dauzkat milloi bat ate,

Guztiak itxirik;

Nai arren ezin egon ixillik;

Beti negarrez,

Nere maite maitearen galdez:

Otedan bizi,



Biotz-biotz nereko Kontzezi,  
Biotz-biotz nereko, etc.

Egunaz argi gutxi, gauean illun,  
Konsuelorik ez da neretzat iñun

Maitea gabe;  
Egin otenadiñ aren jabe  
Oroitutzean,

Zenbait pena nere biotzean  
Ditut igaro;

Maite det eta ez da milagro,  
Maitet det eta, etc.

Ai au bakardadea eta tristura!  
Nere biotz gaxoa ezin piztu da,  
ain dago illa;

Beti dabil konsuelo billa,  
Bere artean,

Banengo maitearen aldean,  
Ordutxo biko,

Pena guztiaz lirake ilko.  
Pena guztiak, etc.

Nere maitea zutzaz ni oroitzen naiz  
Egunaz ere baita gauetan txit maiz,

Lotan ere bai;  
Zu ikusitzera nik joan nai;  
Libre banengo

Or nintzake egun bigarrengo,  
Naiz orduan ill,

Ez nuke izango batere miñ.  
Ez nuke, etc.

Leneko gau batean egin det amets,  
Bañan pentsamentuak beti al rebes

Irteten dira;  
Ustez nengoen zuri begira,  
Maite polita,

Kofrearen gañean jarrita,  
Kontu kontari,  
Nai nuen bañan ez nintzan ari.  
Nai nuen bañan, etc.

Maite nerea daukat beti gogoan:  
Ai orain banengo ni aren alboan  
Iñoiz bezala!

Jaunak amets au kunpli dezala,  
Balitz konbeni,  
Konsueloz ilko nintzake ni  
Nere ustean,  
Maitexoren biotza ikustean.  
Maitexoren biotza, etc.

Nere maite polita ez da zer etsi,  
Bigar ez pada ere or nazu etzi  
Lengo lekuan,

Allegatutzen naizan orduan,  
Ai ura poza,

Nere maite maitetxo biotza!  
Zuri begira,

Pena guztiak aztuko dira.  
Pena guztiak, etc.

Zure gauza polit bat oi det nerekin,  
Izkidaturik dago letra birekin:

K ta B dira,  
Askotan nego oei begira;  
Ain dira piñak!

Maitetxo polita, zuk egiñak  
Sedaz ederki;

Kolkoan gorderik dauzkat beti.  
Kolkoan gorderik, etc.

Esperantzetan bizi, maite gozoa,  
Noizbait kunplituko da gure plazoa;

Eta orduan,  
Gauza txarrik ez artu buruan;



Lengoai utzi,  
 Ez degu pasatzen pena gutxi;  
 Preso sei urtez  
 Onduko gaituzte nere ustez.  
 Onduko gaituzte, etc.

## ATSEGIÑETAN ARKITZEN NAIZ

Idazkera, izkera ta tankera, Iztuetarenak. Bertso ausiaren  
 beste eredu bat.

### 1

Atsegiñetan arkitzen naiz ni  
 arkitzen naiz ni  
 ezkontzen diralako maite gozo bi  
 gustora  
 artako jaio ziran mundura  
 Gipuzkoa guztia txit poztu da.

### 2

Alaiak dira ezkongai biak  
 ezkongai biak  
 diralako euskaldun garbi garbiak  
 zañeti  
 ekusten dan gauza beti beti  
 fruta pin gozoa txertu oneti.

### 3

Jatorri ona iroso dedin  
 iroso dedin  
 ezkontza naigarri au gogoz da egin  
 segurki  
 doai au etorri zaie zeruti  
 ala bearrez bide zuzeneti.

### 4

Don Pedro Jose bai Iturriza  
 bai Iturriza  
 Azpeitian egin du gustoko eiza  
 emeki  
 tirabidean jarririk zuzenki  
 gauza ona zer dan berak badaki.

**5**

Galai prestu au pare bake da  
 pare bage da  
 artzen du emaztezat Doña Ageda  
 maitaro  
 gau gozo anitz ditzeke igaro  
 aren enbidian zenbait badago.

**6**

Emazte eder ta aberatsa  
 ta aberatsa  
 gizona, badagoke onekin lasa  
 munduan  
 gerra gaizto au bukatu ondoan  
 pozkidatuaz beraren alboan.

**7**

Seme galantak eta txit anitz  
 eta txit anitz  
 eragiteko eran jarriko balitz;  
 nai nuke  
 aitaren antza izango balute  
 Gipuzkoak guztiz mesede luke.

**8**

Ekusiko da bizi bagera  
 bizi bagera  
 seme askoren ama Doña Ageda  
 errian  
 Iturrizaz beterik ur garbian  
 etxeandre enitzen enbidian.

**9**

Lanari gogoz lenbaitlen ekin  
 lenbait-len ekin  
 asi bage ez baidu izango berdin  
 batere,  
 elizak artako jarriak daude  
 ez arren gelditu semerik bage.

**10**

Gau ta egun oso guztiak  
 oso guztiak  
 Iturrizak daduzka gozo eztiak  
 benetan  
 lenago ibilli baita neketan  
 baita ere asko aldiz kezketan.

**11**

Orain batere beldurrik bage  
 beldurrik bage  
 egin dalako andre onaren jabe  
 erazki  
 gusto onekoa artu du lazki  
 ditxa on asko berarekin daukazki.

**12**

Agur Don Pedro Brigadaria  
 Brigadaria  
 guztiz toki onean dago larria  
 betiko  
 dadukan onorea, nereko,  
 ez dio inork ere eregiko.



## AMODIO BEROAK [1]

Zortzikotan

Idazkera, Izkera ta eraikera, Iztuetarenak. Dantza eresien liburuko bertsoetan, askotan irtetzen da «chachancho» itza. Aita Santiago Onaindiak, au ta urrengo olerkia, euskerak daukan maite-miñezko eun olerki onenetan, sartzen ditu.

### 1

Amodio beroak  
guztiz arrigarri,  
nere biotza dauka  
estu eta larri:  
adirazo naiean  
argi eta garbi,  
nere sentimentuak  
dama eder bati.

### 2

Biotz biotz nereko  
txantxantxo argia,  
esango dizut nere  
barrungo barria:  
gaztetan izandu naiz  
arras jostatia,  
bañan naitasunaren  
guztiz beldurtia.

### 3

Amodiozko su gar  
portitzen igesi,  
oraindaño, maitea,  
izandu naiz bizi:  
bañan zure itxurak  
zain odol ta guzi,  
arras beti betiko  
biotza dit josi.

### 4

Nere maite maitea,  
ustez ustekabe,  
betiko egin zaizkit  
biotzaren jabe:  
iltze gogorraz ondo  
loturik alere  
nere korde guztiak  
geroztikan daude.

### 5

(Ikusi) albazentza  
jarririk begira  
nere biotz gaixoan  
dagoen erida:  
batean bazterrera  
bestean erdira,  
gorputz guztian dabil  
jira eta bira.

### 6

Egunaz ere bai, ta  
gauaz asko aldiz,  
nere odolak pill pill  
irakiten dabiltz:  
ixuriko nituzke  
ala bear balitz,  
maite zaituralako  
biotzetik anitz.

### 7

Aingeru gazte eder  
goixo eta piña,  
zu maitatuzeko da  
beti nere griña:  
sendatu albazentza  
nik daukadan miña,  
nere biotz gaixoak  
a zer atsegiña!



**8**

Maite maitagarria  
 zugana begira,  
 nere biotz biguña  
 urtutzen ari da:  
 egun oetan guztiz  
 estu ta larri da,  
 azal uts biurturik  
 neketan jarri da.

**9**

Biotz biotz nereko  
 maitati maitea,  
 nere pena andiaz  
 urriki zaitea:  
 zure eskuan dago  
 nere izatea,  
 indazu osasuna  
 ta atsegin betea.

**10**

Nere maite polita  
 iñolaz albada,  
 ez nazazula arren  
 penaturik laga:  
 zu maitatzeagatik  
 ala bear bada,  
 bizia utziko det  
 orain bereala.

**11**

Galdu arren bizia  
 sekula betiko,  
 amodioa ezdit  
 iñork erekiko:  
 zu maitatu bage nik  
 ez nuke etsiko,  
 biotzaren mamitik  
 etzaitut utziko.

**12**

Ezur ta mami oso  
 zain odol ta guzi,  
 maite zaitut maitea  
 ez alere gutxi:  
 naitasun bero oni  
 ez aterik itxi,  
 zure albo gozoan  
 nai nuke nik bizi.

[1] Amodioak lotua daukan galai gazte lirain batek, biotzaren erdi erdiko mamitik txit asko nai dion dama eder bati biraltzen diozkan itzneurtuak.



## AMODIOA ZER DAN

Idazkera, izkera ta eraikera, Iztuetarenak.

### 1

Amodioa zer dan  
azaltzeko ongi,  
kanta berri eder bat  
jarzera noa ni:  
munduak jakitea  
guztiz da konbeni  
nola bizitu diran  
txatxantxo gozo bi.

### 2

Badakigu dala txit  
gozo ta eztia  
enamoratutako  
gazteen bizia:  
duda bage da oen  
atsegin guztia,  
eraz eta sarriro  
alkar ikustia.

### 3

Biotz bi unituak  
maitaro alkarri,  
laztandurik betiko  
oi dirade jarri:  
atsegin andietan  
guztiz arrigarri,  
itz goixoak esanaz  
batak besteari.

### 4

Aditutzean batak,  
bestearen itza,

bien biotzak pozez  
pill pill pill dabilta:  
eztitan oi dabillen  
euliaren gisa,  
zeñek gozatutzen du  
onelako ditxa?

### 5

Zoriontasun andi  
gozo onen jabe,  
Gipuzkoa onetan  
bi gazte ba daude,  
elizaz unituak  
gustora alere,  
iñork prenda artzeko  
beldurrikan bage.

### 6

Goqoratu zait neri  
garbi esatea,  
amanteak nor diran  
bata ta bestea:  
zarauztar Don Juan Jose  
Alzuru gaztea,  
ta Doña Mariana  
bere emaztea.

### 7

Txatxantxo maitati au  
dalako alaia,  
beti beti izanda  
guztiz askok naia:  
batetik ederra da  
bestetik ernaia,  
ezta erraz billatzen  
onelako gaia!



## 8

Aitortu bear bada,  
garbiro egia,  
dama polita da ta  
guztiz egokia:  
goiz aski bota zion  
Alzuruk begia,  
artu ere bai ongi  
goruntzen neurria.

## 9

Amasei urterekin  
txit gain gañekoa,  
Doña Mariana zan  
guri sasoikoa:  
begia txir txir, eta  
alegre gogoa,  
nork maitatuko ez du  
ziñez alakoa?

## 10

Milla zortzi-eun ogei  
ta bederatzián,  
txatxantxo goixo oek  
laxtandu zirean  
pena asko pasarik  
bai zazpi urtean  
ezkondurik daude gaur  
pozkida betean.

## 11

Amante oek nola  
izan diran bizi  
ikusit bage ezin  
lezake sinitsi  
Alkarganatu naita  
iñok ez nai utzi  
egun gozo au nekez  
bait dute iritsi.

## 12

Naitasun geiegia  
izanik alkarri  
ikusit dute zenbait  
estura ta larri  
baita igaro ere  
pena arrigarri  
ezkondurik gustora  
diran arte jarri.

## 13

Ezkontzeko denpora  
danean iritsi  
ez dute bada izan  
atsekabe gutxi  
Azpeitian egon ta  
apartean bizi  
nai arren ezin alkar  
gustora ikusi.

## 14

Berronkalkoan bata  
Ibiron bestea  
poz andia zuten txit  
alkar ikustea  
eguna alegre ta  
gaua txit tristea  
gogoratu zitzairen  
argiak piztea.

## 15

Gauaz eta egunaz  
alkarri begira  
loaz oroitut bage  
ernai egon dira  
au izan da txatxantxo  
goixo oen ira [jira?]  
plazan ibilli arren  
zezenen korrira.



16

Abuztuko illaren  
bigarren eguna  
amante oentzako  
etzan txit illuna  
orduan izan dute  
guztizko fortuna  
Jaungoikoak diela  
beti osasuna.

## DOZEN ERDI BAT BERSO

Idazkera, izkera ta eraikera, Iztuetanak. Berdiñ, «Mundu guztian dauka», ta «Noiz izango ote ditugu».

1

Dozen-erdi bat berso  
bear ditut jarri  
erregalatutzeko  
dama-galai biri:  
guztizko naitasuna  
diote alkarri,  
non ta nongoak diran  
esango det sarri.

2

Andoain-en dago bat,  
Tolosan bestea,  
gustatuzen zaie maiz  
elkar ikustea:  
dama ederra da ta  
galaia gaztea  
ez ta gaizki izango  
onen emaztea.

3

Gazte maitati oek  
txit ditut urriki  
batak bestea bistan  
nai dute iduki:  
aspertu bagetanik  
gau ta egun beti,  
Andoain-dik Tolosa  
ez dago urruti.

4

Galai au nor dan iñork  
nai baluke jakin,



apellidua Imaz  
izena du Joakin:  
artutako sallari  
gogoz zaio ekin,  
gusto obeko lanik  
ez dezake egin.

### 5

Maria Mikaela  
de Elorriaga,  
dama maitati eder  
zurigorria da:  
Imaz-ek beretzako  
nai luke al bada,  
ezta non-nai billatzen  
alako alaba.

### 6

Tolosa-ra joaten  
billatzeko bera,  
Etxarri-ren bitartez  
izaten du era:  
iñoiz ikusi ditut  
gustora daudela,  
Joakintxo Imaz eta  
Mikela ederra.

## MUNDU GUZTIAN DAUKA

### 1

..... a da  
gutziz egokia  
aspaldian zenbaitek  
gogoan eukia:  
kontentu da galaia  
orobat nobia,  
A, zeñek leukakean  
gaur oien tokia!

### 2

Mundu guztian dauka  
gizon prestu fama,  
Don Jose Franzisko da  
Arrieta jauna:  
zuzen egiten badu  
artu duen lana,  
zoriontsu da orren  
jabe egin dana!

### 3

Ongi dakigu nor dan  
eta nolakoa,  
Doña Mari Antoni  
Bidaola-koa:  
berez alaia da, ta  
sasoi onekoa,  
inon arkitu beste bat  
au bezelakoa!

### 4

Gazte gaztetatik da  
doañez jantzia,  
bere amak alboan  
guriro azia:



Jaungoikoak emanik  
alako grazia,  
goxo ta maitati da  
esan al guzia!

## 5

Ezkontz au ikusirik  
oien gurasoak  
atseginetan daude,  
orobat auzoak:  
Jainkoari eginaz  
erregu gozoak,  
izan ditezen beti  
garbi ta jasoak.

## 6

Zeñek egingo ez du  
pozkidaz algara?  
nere gogoia beintzat  
gaurkoan ala da!  
Jaunari eskaturik  
iñolaz al bada,  
izan ditzaten asko  
seme ta alaba.

## 7

Burnia egiteko  
beti da autua  
Olako sutan arri  
ongi berotua:  
ugari emango du  
ark bere frutua,  
lenago sarritxotan  
ez bada urtua.

## NOIZ IZANGO OTE DITUGU

Noiz izango ote ditugu  
orren ezteiak?  
Lenik bota bear deiak  
badakit dituen gaiak  
ordea ez dira erraz ase-  
tzen orren naiak.  
Zartzen asi ezkeroko galaiak  
a, zer amorraiak!  
nekez arrapatu sare lasaiak  
ain dira ernaiak.  
Noiz edo noiz itsutzen ditu  
ur loiak  
diradelako txisarekoiak;  
askotxo jan ta garrasi ta  
orroiak  
irabiatzen dituzte beak eta  
goiak.



## IZTUETA'REN ESKUTITZA AGUSTIN PASCUAL ITURRIAGA'RI

Be-aldean daude oarrak. Berdiñ, Arozamenak bildutako  
amodiozko gaiñentzeko bertsoetan.

### 1

Nere adiskide txit  
prestu ta argia:  
artu baitet bedorren  
karta pozgarria;  
aiñ zegoen gozoa  
ta ongi jarria  
ez da bedorrentzat au  
mirari aundia.

### 2

Ezkontzak izan oi du  
asko langai modu,  
batean irabazi  
ta bestean galdu;  
alaba utzitzea  
ez nuke aiñ damu,  
baldin senarrak ongi  
maitatutzen balu.

### 3

Erri aundi oetan  
askotatik gutxi  
senarrarekin ongi  
oi dirade bizi;  
batzuek zatika ta  
besteak igesi  
ezkondu bezin laister  
oi dituzte utzi.

### 4

Egin ezkerotzani  
alakoen jabe  
eraman bear ditu  
zenbait atsekabe.  
Neska zar egoteaz  
ere lanak daude  
iñork ez nai gelditu  
bat edo bat gabe.

Nere adiskide mamia: txit etorri da bedorren karta egokia, ta den-  
bora bear danezkoan, zeñaren zati guztiak azaldu diozkadan nere alabari  
[1], gure adiskide jakiñen aurrean, eta serbitzatu sermoirik onenak baño  
ere geiago. Ez det lekuriñ gaur. Bedorrena beti, Iztueta.

[1] «Ezkontza» deritzan bertsoetan aipatzen da Bautista Garralda. Ignacia, Iztueta'ren  
eta bere bigarren andre Kontxesi'ren alaba, 13-7-1806 jaiotako; eta ezkondu Azpiazu'tar Jose  
Antonio rekin 3-3-1828, Donostia'n. Alaba au aitarekin bizi izan zan, eta Iztueta bera illa-  
bete gero, 8-4-1828 ezkondu zan, irugarren aldiz, Asuncion Urrozola'rekin. Kantan noski  
alaba au aipatzen da.

[2] Onela erantzun zion Iztuetak Pascual Iturriaga'ri, zeñek biralduzion berso oek:

Dabidek, zartu eta  
Sunamita artzeko  
esan zian zuela  
oñak berotzeko.  
Adiñ ortan, Batista,  
dek askoz ohea  
Palentziako manta  
ez andre gaztea.

Ez badu gauza orrek  
erremediorik  
artzak konsejutxo bat  
gaur nere aotik!  
Esnatzen aizenean  
goizean lotatik  
ostikoka botazak  
andrea aldetik.

Bi bakarrik ipintzen ditugu emen. Berez, sei dira.



## NERE MAITE POLITA

### 1

Nere maite polita  
 zutzat oroitzian  
 odola pil-pil dabil  
 nere biotzian,  
 Kanpora irten nairik  
 alegiñ guzian;  
 miñ onek bearko du  
 sendatu iltzian.

### 2

Amoriyoz biotza  
 daukat nik zulatzen;  
 zuregatikan zenbat  
 detan nik sufritzen!  
 zergatikan ez zera  
 zu nitzat kupitzen?  
 Zuregatik ari naiz  
 ezur uts gelditzen.

### 3

Maitasunak indarra  
 artzen dubenian  
 erruak uzten ditu  
 biyotz barrenian;  
 zuretako jaio naiz  
 zuretako azi,  
 zuregatikan nai det  
 mundu ontan bizi.

## MANUELATXO

Belaunikaturik  
 zure aurrean nago,  
 nai zenduen gisan,  
 alkarren jabe  
 zuk nai badezu  
 egin gaitian elizan.





## EZKON BERRIAK

Zorioneko ezkon-berriak,  
alai ikusten dituzuen begiak  
«pil, pil, pil»  
mingaña ixil biotzak itz-egin  
lo pixkatxoren bat nai dute egin.  
Lotaratzean orain ta beti  
Jaungoikoaren legea zuzen eduki  
gozotan.

Etsai guztiak garaitu ondoan  
bera egon dedin zuen alboan.  
Oeratzean, ai ura pozal!  
Gozotoro esanaz maite biotza  
alkarri.

Esker onak eman Jaungoikoari  
nai eran zaituztelako jarri.  
Itzaldi goxo ezti eztiak,  
gau artan oi dirade guzti guztiak,  
emeki [1].

[1] «Viejas canciones donostiarras. Donostiko kantu zarrak», pág. 106, 170 y 202. Jesús María Arozamena y Tomás Garbizu. Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 3.ª edición. Liburu ontatik artu ditugu «Nere maite polita», «Manuelatxo» ta «Ezkon berriak».

## DANTZA ERESIEN LIBURUAREN ITZAK

«...veré con mucho gusto (si Ud. envía) la música de nuestros apreciables soñus sarres y aunque no entienda de música haré que un inteligente me cante para calcular si es cual yo he oído, y sé algunos; no deje Ud. de la mano el asunto de la impresión del cuaderno, aunque sea por suscripción, muchos lo comprarán y podrá ser muy útil...».

(El vergarés Santiago de Unceta, diputado a Cortes en carta de 1 de julio de 1824).

«Jakin det Larrartegandik molderatzekoak dirala sarri aurrekoak dantzatzen zituzten soñu zur berorrek biribillatu dituenak, baita ere beren itz neurtuak...».

(A. Pascual Iturriagak Donostitik Iztuetari garillaren ogeita bostean 1824).

«Ya que no copió Ud. los versos renglón por renglón, no es extraño que me haya engañado en su medida. Los haré cantar a D. Manuel (Larrarte) y diré a Ud. mi dictamen».

(De una carta de A.P. de Iturriaga desde Hernani el 12 de marzo de 1824 (?)).

Sin duda estas líneas hacen referencia a las letras del libro de las melodías de las danzas.

«Historia de los antiguos bailes guipuzcoanos, y reglas instructivas para ejecutarlos bien, y cantarlos en verso» Iztuetaren liburuari [1], Jose Ramon Elorzak ontzako eman zionean, dudik gabe, 1750'ko epaillaren 12'an, Iruña'ko gotzai Gaspar Miranda Argaiz jaunak, agiriko dantzak galerazteko eman zuan agindua bete naiaz, ala idazten du: «...pero por desgracia una diversión inocente... ha llegado a ser el escollo fatal de la inocencia, la red barredera, que envuelve y enreda a la incauta juventud, el foco principal de amistades peligrosas, y de consiguiente el fecundo origen de la corrupción de costumbres, meneos y ademanes...».

Gero Iztuetaren liburuari au erasten dio: «Sólo hallo un reparo, que no me parece pertenece al fin principal de ella, sino a lo más a su perfección accidental. Hablo de varios versos que cantados en una taberna o en medio de un grupo de gentes, que generalmente concurren a oírlos, sería poco el escándalo, que podrían causar, pero estampados en un libro dado a la prensa, repasados y estudiados por la incauta juventud, y cantados con frecuencia entre jóvenes sencillos, acarrearían mucho daño por los equívocos sentidos de muchos de dichos versos, que a la simple lectura



ofenden el pudor y la honestidad. Así, sobre ellos soy de sentir, que si el autor los considera por parte esencial al fin y al objeto principal de la obra, sustituya otros indiferentes que no sean materia de amor, y cuando no, borre de la obra todos los que van anotados con una manecilla al margen de cada uno de ellos. Este es mi sentir, porque en lo demás no encuentro cosa que se oponga a nuestra santa Fe y Religión ni a las buenas costumbres. Azcoitia y septiembre, 18 de 1824».

Tamalgarria benetan eskuz idatzia galdua izatea!

Iztuetak, berak egin zuan oarrear, onela adierazten du: «Obra onen zatirik guzietan agindu deran bezela, jarriak neuzkan soñu-zar gogoangarrien itz-neurtuak: baño Korrejidore jaunaren agindua egitearren (beraren lizentzian ikusiko dezuten bezela) ez ditut ezarri».

Apaiz azterlearen aolkuari gure Iztuetak, muzkeri bat egiñaz, azkereri onekin erantzun zion. Liburuaren azkenean, amarreko 26 aapaldi jarri zituan, «Nere kristau maiteak» izena zutenak. Erriko agintariai eskeiñita zeuden [2]. Itxusiak ziralako, «korregidoreak» kentzeko ta beste batzuk jartzeko agindu zizkionen ordez, jartzen zituan.

Dantza eresien jatorrizko liburua ez degu ezagutzen. Nun dagoan ere, iñork ez daki. 1877'ko «Cancionero Vasco»an Manterola jaunak dienez, 1826'an, bere iru ate-aurre ta guzti, argitaratu zan 35 orri aundiko liburua ere, ez degu aztertzerik izan. 1824'ko dantza liburuaren osagarri bezela zetorren, eta aituta dago. Berriz ere aldundegi edo diputazioko liburutegira joan gera, bere txartela an dagon ezker. Baiñan, Jose Arretxe jauna an lanean asterako, zoritxarrez azkeneko alea izkutatuta zegon.

Orregatik, Gipuzkoako Aurresti Kutzak egin duan ateraldia erabilli izan bear degu. Bera ere, «Sociedad de Estudios Vascos»ek, 55 orritan atera zuanaren bir-argitaraldia da. Ta, Burdeos'en Landais jaunak ezarri zituan, 52 ereski dauzka. 52 eresi auetatik, ogei ta amarrek bakarrik daukate itza. Gaiñentzeko ogei ta biak, itzik gabe daude.

Itz-aurrean, beste gauzen artean, Iztueta au dio: «en las diversas composiciones, se descubre el *amor del pueblo bascongado al bello sexo*; pero de un modo, que sin salir de los límites de una decorosa moderación, previene en favor de la genialidad de sus habitantes».

Auraxaxago, dio: «En la música que publico ya con palabras, ya sin ellas, y aplicada especialmente al baile, se notan un giro y una animación que indican la agilidad y vigor de los habitantes de estas montañas».

Eta jarraitzen du: «No diré que todos los *retazos* que he reunido, sean de una *remota antigüedad*; pero muchas, es evidente que la tienen, y conviene no perder de vista que algunos son *marchas guerreras* que acaso inflamaron el ánimo de nuestros más

*remotos antepasados, y acompañaron sus esfuerzos para repeler el yugo extranjero y trasmitirnos la dichosa independencia y paternal gobierno de que gozamos*» [3].

Gaurkoa, «*Ondarrabia txikia*» bakarrik dala, dio.

Eta au esanaz bukatzen du: «Que reunió a varios que las cantasen, y que la laboriosidad del organista de Hernani [4], D. Manuel de Larrarte, proporcionó al distinguido profesor D. Pedro Albéniz [5] la ocasión de escribirlas y ordenarlas, formando así la colección que ofrezco al público». «O nik kantatuaz», Albéniz Pedrori.

Eta beste leku batean: «Ezin nezake utzi esan gabetanik. D. Manuel Larrarte edo organistak egin dizkidan laguntza aundiak musikari itz-neurtuak ezarten itz-neurtu edo bersoak musikarekin batean».

Bere bizitzako poz eta gogo-berotasun aundienean, irudimezez ikusi dezakegu gure Iztueta jauna jauzika ta dantzan, itzak eta bertsoak ezarten eta saiatzen... Benetan lan zailla. Eta eskola asko eskatzen duana.

1827'ko uztaren 2'an, Gipuzkoa osoari dei-agiri bat egin zion, adieraziaz: «Haber ajustado (D. Pedro de Albéniz) [5] á las reglas del arte los *cantares que improvisaron nuestros abuelos en las cimas y desfiladeros de las montañas guipuzcoanas*». Jarraitzen du: «nunca podrían entonarse con más oportunidad los *himnos de triunfo inspirados a los Antiguos Bascongados* por el genio de la Patria que cuando acaba de asegurarse la victoria de los Fueros que nos legaron, por los esfuerzos de sus más nobles y dignos descendientes, y que nunca será mejor ocasión de expresar el respeto debido a las autoridades, consagrado en sus cantos por nuestros *Trasabuelos*, que cuando nuestro amado y justo Soberano acaba de ofrecernos el más relevante motivo de gratitud... y que nunca por fin resonaron en nuestros profundos y risueños valles con más alegría las *cantinelas amorosas que en ellas se oyeron por primera vez*, que cuando nuestros robustos y bulliciosos mancebos son excitados a unirse al bello sexo por la idea de dar el ser a unos hijos y que *nada hay más mío que el cuidado de recoger estas canciones*»...

Idazki ontan, oso «Txuri» agertzen zaigu gure Joan Inazio. VII Fernando erregeari txalo ta goratzarre egin nai dizkio, baiñan erdi-gezurrean erortzen da. Euskaldun, arbasoen burrukak eta gerrak eta kantak aberriaren alde, «amodiozko» kantakin nasten ditu. Naikoa degu idazkia pixkat aztertzea. Nun dira ta nun daude guda kantak? Iya itz eta kanta guztiak «amodiozkoak» dira-ta! Itz bat ere ez burrukazkorik. Eta bat edo beste, oiturai ta ardoari egiten dizkionak, danak «amodiozkoak» eta maite-miñez beteak daude. «Txuri»ak-ba ziri txiki bat sartu nai digu. Erbiaren ordez, katua.



Bertsoen tankera ta izakerak Iztuetarenak dirala adierazten badigute ere, 1825'ko liburuxka batean, badaukagu bere aitormen bat. Urrutitik datorrigu. Londres'tik alajaña! Eta bertan, geyago ere egin dituala esaten digu. An esbestetuta zegoen Pablo Mendibil [6] jaunak argitaratu zuan, 1824-1826 tartean, seguru asko 1825'an. Eta ara zer dion:

«El autor promete dar en otro tomo (dantza liburutik berezia) toda la música de todos ellos a una con los versos acomodados a la tonada; *pero estos versos no serán los antiguos tradicionales, sino otros nuevos que él mismo ha compuesto, sujetándose (ez dakit emen egia esaten ote duan) a la supresión de aquellos, ordenada por los censores del libro, por parecerle que algunos ofenden demasiado el pudor y la honestidad para correr impresos, aunque, según se expresa la censura, cantados en una taberna o en medio de un grupo de gentes que generalmente concurren a oírlos, sería poco el escándalo que podrían causar*».

«Korrejidoren» gaitzespen ondorean, Iztuetak darabilzkian bi arpegi ta bi jokabide klase, nabaritu ditzagun. Alde batetik, «cuya autoridad, en nombre de un gobierno despótico, se hace sentir con tanto más peso en ese punto», eta bestetik, Fernando erregeari jaurtitzen dizkion txalo ta loreak... Agian, politika giroa aldatu zalako, Iztueta denbora berriaz baliatzen ote zan-ba, Jose Ramon Elorza azterleak kentzeko esan ziona, doiñu ta eresipean jartzeko?

Iztuetaren irugarren emaztearen ondorengo dan Bilbao'ko Pérez Yarza Bajineta sendian, aren eskuz idatzitako paperen artean, 17 zenbakiarekin dago ezarri edo arakatuta, aiñ idazkera ederra daukan, 17 orriko liburuxka zoragarria, ain zuzen Joan Inaziok bere eskuz eta izkiaz idatzia.

1829'ko garragarrillaren 18'an, Vergarako ordezkari edo diputadu Santiago Uncetak, liburuxka ori aipatzen du eskutitza batean. Ona emen bere zati bat: «Mi estimado amigo Iztueta: He recibido la apreciable de usted del 12 con el escrito publicado en Londres acerca del cuaderno de danzas bascongadas de usted, que me ha gustado muy mucho, y doy a usted muchísimas gracias por el cuidado que ha tenido en enviarme, tomándose el trabajo de copiar por su mano...» (Obras inéditas de Iztueta, por José Garmendia, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968, pág. 138).

Dantza eresien liburuaren itzak ez dirala antxiñakoak beste batek ere esaten digu. G. Borrow'ek zerbait entzuntzuan bere liburuan «La Biblia en España» itz oek ipini zituan: «Poseen (los Bascos) mucha música original, alguna extremadamente antigua, según dicen. De esta misma se han publicado algunos trozos en Donostia (San Sebastián) en el año

1826, editados por un tal Juan Ignacio Iztueta. Consisten en unas marchas rudas y emocionantes, a cuyos sonos créese que los bascos antiguos tenían la costumbre de bajar de sus montañas para pelear con los romanos y después con los moros. Al escucharlas llega uno con facilidad a creerse en presencia de un combate encarnizado. Oye uno las resonantes cargas de la caballería, el ludir de las espadas y el rebote de los cuerpos por los barrancos abajo.

»Esta música va acompañada de palabras, pero qué palabras. ¡No puede uno imaginarse nada más estúpido, más trivial, más desprovisto de interés! Lejos de ser marcial, la letra refiere incidentes cotidianos, sin conexión alguna con la música. Las palabras son evidentemente de fecha moderna».

Esanda dago. Itz gogorak Iztueta'ren kontra, batez ere Londres'en ateratako liburuxkoan berak idatzi zuana jakiñez: «Además tiene cada uno de estos sonos inmemoriales una letra o cantinela propia, cuyos compases regulan los movimientos, y cuyas palabras avivan la expresión, el ademán, la animación del que danzando los ejecuta, porque le recuerdan y ponen presente el objeto para que se compusieron».

Eresi ta muskarik gabe, nere ustetan aurreneko aldiz, argitaratzen diran itz eta bertsoetan, etengabe «amodiozko» ta maite-miñezko gaiak dabiltz Joan Inazio Iztuetaren luman eta biotzean. Arrazoi osoarekin sartzen dira-ba liburu ontan. Doiñuari egokitzeagatik, estrofa ta bertso asko bukaera ta neur-bideari lotzen ez badira ere.

Manterola jaunak uste duan bezela, Iztuetak Kontxes'i'ri egin zion olerkia, 1844 urte arte etzala argitaratu, ez dala egia esatera aztuta genden. Esandako egunean argitaratu zan, eta, bere gaztelera itzulpen bikañarekin, gaiñera.

Liburu ontan sartu ta argitaratzen ditugun bertso ta itz guztiak, jatorriz Joan Inazio Iztuetarenak dirala ezin esan badezakegu ere, alaz ta guztiz, danak or dijoazte, gai ontan argitasun ta bereiztasun geyagoko egunen bat irixten dan arte.

[1] Imprenta de R.I. Baroja, San Sebastián, 1824.

[2] Ikus 53-56 orriak. Eta aldakuntzak 51-53'an. Zaldibi'n idatzi bear izan zituan. Besterik baiño dotoreagoak eta ikasiagoak dira.

[3] Guk azpimarkatzen degu.

[4] Agustín Paskual Iturriagak, beste bi maixuakin, Hernanin ikastola bat eratu zuan. Bere anai Kayetano ta Manuel Larrarte, gipuzkoar musikari on bat. (Gregorio Muxica).

[5] Donostiko San Bizenteko organista. Au ere musikari aundia.



[6] Arabako Alegrian jaioa, (1788-1832+) bitartean, Londres'en egona. Zaragozan ikasi zituan Legeak. Eta aurreneko aldiz 1813'an igesi egin zuan, liberal frantzes-zale bezela. Manuel Silvela jaunak eraturako ikastolan, irakasle izan zan. Bien artean, españiar idazleen idaz-bilduma egin zuten. 1820'an Españira bihurtu zanean, «El Liberal Guipuzcoano»ren zuzendari izan zan. Seguru asko, Iztuetak garai ontan ezagutu zuan. Jaurgo-erakundea benetan onartu zuten liberal frantzeszaletako bat. Oni esker, itzuli ziran aberrira. Baiñan, berriz, 1823'an erbestera joan zan. Burdeos'en, frantsesa ta gaztelera erakutsi zituan. Españiko ta inglesen aldizkarietan idatzi zuan. Ackerman liburugilleak esanda, liburu asko itzuli zituan, eta bereak ere argitaratu zituan.

1831'an, gaztelera erakusten jarri zuten «Kings College»an. «University of London» liberalari arpegi emateko, eskubitarrak jasa zuen ikastola. Bere sarrera itzaldia eginda, andik bi illabetera il zan. 1824'ko jorraillatik 1826'ko urri'arte, «*Ocios de Españoles Emigrados*»-en idazle izan zan. Zazpi liburuen bilduma gordetzen da. Zeatztasun geyago nai dituanak, «*Liberales y románticos. Una emigración española en Inglaterra (1823-1834)*». Vicente Llorens. Editorial Castalia (1868)», ikusi beza.

## ZUARRENTETAKO ERREGELA

Agian aurreneko aapaldi osoa Iztueta'rena da. Itzkerak, Napar-Laburdikoa. Egokiera batzukin. Goyeri'ko itzkerak asko dago. (Neur, neuri, zetik).

Zuarrentetitan  
nai nituzke nik  
nere ixil-gauzak argitaratu;  
nere Jaungoikoa, Zuk erakustazu  
zer egin, nola itz egin.

\* \* \*

Laga nituen nik  
nere ixill-gauzak  
Maitetxo baten-gan;  
saiatu bear det jakitera  
mudatu ote dan.

\* \* \*

Triste daukat biotza, nere laztana!  
zugaitik zer egin ez dakit;  
erremedia nazazu pena onetatik,

\* \* \*

Aingerutxoal, jarri ziñaden  
biotz nerean betiko;  
ala deritzat nerekiko.

\* \* \*

Damu det bestek eramatea  
zu biotz neretikan;  
ez deritzat mudatuko zerala  
oraingo fedetikan.

\* \* \*



Aingerutxo oni esanaz nago beti:  
biok alkarrekin bear degula bizi.

\* \* \*

Sartu zat biotzean  
neuregana eta  
ezin apartatu;  
zer egin erakustazu.

\* \* \*

Egin det alegiña  
sartu zat zure miña  
egun da santa sekulako  
nere aingeru piña.

\* \* \*

Ai, au penaren aundia!  
esan dezadan egia,  
zabala dago zure begia,  
nere pena  
guzien konsolagarria.

\* \* \*

Erramuren mezpera ezkerotzitan  
etzerade, nere maite polita,  
beñere ateratuko  
neronen biotzetikan.

\* \* \*

Biotzean sartuta ezin apartatu;  
arren, konsola nazazu.

\* \* \*

Beti penaz, oi! nago urriki;  
et zaizkit Zeru altua;  
zerroren ondo dakizu  
nere trabajua.

\* \* \*

Nere buru guzia galdurikan  
ni emen nago;  
erremedio on bat, arren, indazu neri,  
il baño lenago.

\* \* \*

Esperantza dadukat nik, Maitea!,  
maitea zugandik  
sendatuko nazula miñ onetatik.

\* \* \*

Nere maiteak ezagutzen bait du  
daramazkidana pena andiak;  
aditzera ematen asi dirade noizbait

\* \* \*

aren begiak,  
nere Maitea,  
ez bada, arren,  
geiago egin negarririk;  
zure suspiroak neuri  
biotza erdiratzen dit.

\* \* \*

Bostetan esan dizut nik zuri  
biotz nereko berri.

\* \* \*



Nere itzaren jabe nago ta  
badakizu ez dirana bi;  
beragatikan zor dizkidatzu  
graziak partikularki;  
aspaldi da esan nizula  
zuretzako nengoela ni.

## SAN SEBASTIAN

Bilduma zatar eta anker bat besterik ez dira. Bertso erri-  
koi batzuen egokiera ta antz-aldatzea.

Ardoak para gaitu kantari bi  
eta dantzari;  
ez gaituk, mutillok, egarri,  
ez ori segurki.

\* \* \*

Gure kondizioak  
beti tabernarako;  
eskean gure finak  
berdin bearko.

\* \* \*

Ezin faltatu;  
kondizioak guk onak ditugu;  
goizean joaten gera tabernara  
eta arratsean beranduan etxera  
gerok joaten gera.

\* \* \*

Bañan alere,  
betor ardoa  
edan dezagun eta  
gauden alegere.

\* \* \*

Atzo eta egun ta  
eranegun ere bai  
izandu diagu.  
gure errian jai.

\* \* \*



Tabernan beti sarturik gaude  
edanaz ardo gorriti,  
orditu gabe zuti.

\* \* \*

Arropea zar eta  
eztarria garbi,  
zorra franko bai baña  
artzeko gutxi.

\* \* \*

Bart gure etxean aserre,  
batzuetan bai neu ere;  
ez orain bere;  
gauden alegere mentean,  
egongo geraden artean,  
leku batean,  
pitxar-aldean;  
berdin gure fiñak  
bearko dik ospitalean.

\* \* \*

Au da San Sebastian;  
orain dantza gaitean,  
orain dantza gaitean,  
ia goaz erdian zurrera.

\* \* \*

Dantzan dabillanak  
ariñ zetik oñak;  
baldin ezpaditu  
oñak ariñak,  
ez du luzitzen;

bañan orrek ederki  
dik dantzatzen.

\* \* \*

Ardoaren bentajak ain dirade  
guretzat aundiak  
gure biotzak  
ardorikan edan gabez  
zeuden otzak.

\* \* \*

Atzo goizean tabernan ongi neurria  
edan nuen txopin erdia,  
edan nuen txopin erdia.

\* \* \*

Esan bear det egia.  
Aretxek il ziran  
neuri egarria.

\* \* \*

Zorionean nintzan  
mundura ni jaiio,  
zergatik deran naiago  
ardo gorri nafarreti  
andrea baño.

\* \* \*

Ardoa ta kartak  
ditut adiskide;  
ez det nik  
beste maiterik.

\* \* \*



Ez det bearrerako  
afiziorik  
alerik;  
ardoak naduka  
enamaturik.

\* \* \*

Ardorik ez bada,  
neronen biotza  
gelditzen da motel  
eta ill-otza.

\* \* \*

Luzatuko liket  
biziak  
neretzat balira  
ardo guziak.

## GALANTAK

Iya dana Iztueta'rena dirudi.

Dama gazte galant bat  
ekusi det bart arabaketan  
engañatutzen nauela  
bere ustetan!  
Ez naiz fiatuko berriz  
aren itzetan

\* \* \*

Maite nauela aniz  
esan izan dit asko aldiz.

\* \* \*

Dama gazte galant oni  
nai izan diot ongi  
oraindañoan:  
gau eta egun idukitu det gogoan.

\* \* \*

Maite ninduzula aniz  
biotz biotzetik,  
esan didazu askotan,  
zerrorek jakingo bait dezu zergatik.  
Aingerutxoa, nai dituzu,  
besteak bat bezela zuk bi

\* \* \*

Nai badezu ekin  
maite biren jabe,  
gelditu zinteke,  
bada, batere gabe.

\* \* \*





Galaia, alai, nik naia  
 zerade zu beti;  
 irudipen gaiztoak kendu  
 bear dira buruti;  
 munduan diraden gizonak  
 utziko ditut nik zugatik  
 baldin nai banazu ni.

\* \* \*

Galai gaztea,  
 zu penaturikan ikustea  
 ba dakizu dala neretzako iltzea.  
 Egizu gauza oek burutik uztea.  
 Atoz, nere aldamera zaitea;  
 biotzetik etzaitut utziko,  
 nere maitea.

\* \* \*

Dama gazte, begi argia  
 esaten banazu egia,

\* \* \*

Zurea izango naiz beti,  
 itza ematen banazu biotzeti.  
 Begira, ordea, niri,  
 besterekin ibilli jostatzen;  
 alakorik etzait guztatzen.

## TXANTXAKAK

Bertsoak berez errikoiak dira. Baiñan Iztueta'k ere pran-  
 ko jarri duala dirudi. Gure aldetik, bere bertsoetan Iztueta'k  
 «Chachancho» itza asko erabiltzen duala esango genduke.

Txatxantxo gazte polit bat  
 maitatzen det aspaldian.  
 Bera bezelakorikan  
 ez dago errian.

\* \* \*

Gorputz galanta du, egokia,  
 illea guziz lodia,  
 begi beltz alaiak,  
 gerri liraiñ,  
 ezpaña txit gorria.

\* \* \*

Galai gazte aniz  
 damatxo onen ondoren dabiltz  
 gau ta egun:  
 beste bat alakorik  
 ez baitago iñun;

\* \* \*

ederra da segurki,  
 berak ere badaki;  
 bizia galdu lezake  
 edozeñek argati;  
 engañaturik gaduzka  
 beste asko eta ni.

\* \* \*



Gaztetanik du ainguru onek  
guztiz asko ikasi;  
aldamenen beti nai ditu  
aberatsak ikusi.

\* \* \*

Aingeru au eta beste lau galai gazte  
arrats batean  
polikitxo eta gozotxo  
zeuden alkarren aldean;

\* \* \*

itz egiten zioten ederki;  
bañan ez dakit maite ote duten  
biotzeti.

\* \* \*

Zure ondorendik dabilzan galai gazteak,  
baldin badirade etxe-oneko semeak,  
beren idekoak naiko dituzte emazteak.  
Zu utzirik artuko dituzte besteak.  
Maite zaituztela esanagatikan zuri,  
izango zaizkitzu itzuli.

\* \* \*

Ezkontzeko firme eman arren itza,  
galai aberatsakin kontuz zabilta.

\* \* \*

Izan zentzake miña,  
orain ez bada ere bai gero,  
adiskide oriek egiña.

\* \* \*

Nai dizutela asko asango dizute beti  
bañan ez, nik bezela,  
biotz-biotzeti.

\* \* \*

Galai maitagarria;  
iru urte onetan badakizu bai  
nere barrengo berria.  
Nai ditut asko biotz biotzetik,  
ez det inñor zu beste maiterik.

\* \* \*

Gau eta egun, beti zauzkat gogoan;  
zu beste maiterik ez det munduan.  
Galai aberats guzi guziak ditut utzi,  
zergatik nai dedan zurekin bizi.

\* \* \*

Oroitzen naiz ongi  
nola esaten nizun arrats batez  
geundela bakarrik  
itzegiten gelan zu ta ni,  
beste guziak baño  
askoz maiteago  
izango zinduztala beti, beti.



## EUN DUKATEKOA

Aurreneko aapaldia errikoia da:

*Eun dukatxo  
ba nituan nik  
orain bi urte nere  
aitak emanik.*

Gaiñontzean, Iztueta'ren lana dala ikusten da.

Eun dukatxo banituen  
bada nik  
orain bi urte nere aitak  
emanik.

\* \* \*

Erdiak maiteari  
niozkan eman,  
eta beste erdiak  
edan eta jan.

\* \* \*

Ez det orain batere:  
orreatikan maiteagana  
ioan nintzan bart ere;  
izango ere bai,  
nere maite politak  
baldin badu nai.

\* \* \*

Nola naiko ez det, maitea,  
etorzea zu,  
baldin zeuretzako izan  
bear banauzu?

## BETRONIO TXIKIA

Errikoia dirudi, baiñan agian gure folklore edo erri-  
jakintza zalearenak dira.

Betronio, zu, diruak  
aituagatik  
maite zaitut bada  
biotz-biotzetik.

\* \* \*

Baldin zuk ni ala  
nai banazu izan,  
Jainkoaren legeak  
agintzen duen gisan,  
zure emazte izateko  
jaio nintzan.



## BETRONIO AUNDIA

Errikoia dirudi, baiñan agian gure folklore edo erri-  
jakintza zalearenak dira.

Betroniok Papatxori dio  
biotzetik amorio.  
Zu zera Betronio aundiaren  
txatxantxo piña.  
Bestek eramatia izango  
nuke nik miña.

\* \* \*

Aurra maitea, zerorrek dakizuna da  
gauzarikan oberena dala gizona;  
indarrak berak dituana,  
ba dakizu bada nai izateko dana;  
argatik dizut nik aditzera ematen,  
bizi bear degu alkar maitatzen.

## AZA-LANDARE

Errikoia dirudi, baiñan agian gure folklore edo erri-  
jakintza zalearenak dira.

Aza landare saltzera  
maitea, ziñan etortzen,  
begiak argi eta  
koloreak gorri.

\* \* \*

Naitasun aundia zenidala  
sinistu nuan egia zala;  
baiñan geroztikan jakindu baitet nik  
bestegandikan ixillik,  
ez dirazula naiko  
ezpadet dirurik,  
banekike segurki  
ori dala egia,  
penaz il naizala ni  
zenduke berria.



## ERREGELA ZARRA

Olerkiak Laburdi-kutsua dauka. Baiñan Iztueta'rena ere asko dago. Liburu ontako maitasun itz eta adierazpenak era berekoak dira. Agian atzean Joan Inazio izkututzen zaigu.

Atsekabe gaizto bat  
dadukat biotzean;  
eritzen nau, maite,  
zuzaz oroitzean;  
egunaz eta gabaz,  
ordu guzietan,  
nai nuke kendu, baña  
gelditzen zait bertan.

Ar gaizto au portitza da,  
zulatutzen nau lazki;  
urte bete onetan  
narabil txit gaizki:  
ezin jan, ezin edan,  
ezin lorik egin,  
nere barrengo korde  
guzietan det miñ.  
Gaitz au kentzeko zera,  
maitia, endakiñ.

Aingerutxo, badakizu  
miñ au nondik datorren;  
galkitatuago ez dedin,  
senda egidazu, arren,  
len baño len, guztia ezpada,  
erdia bereren;  
il bear det bestela,  
egun gutxi barru.  
Aurkitzen naiz ia  
ez mami ta ez larru.

Ainbeste biguntasun  
nere maiteak al du!  
muga-aldia on au  
galduko nai ez du!  
beretzat izateko  
usterikan badu.

Zuri itz egin eta laster  
esan nioten aita-amai,  
zu bear zinduztala,  
baldiñ bazuten nai.  
Bata bezala mintzatu zitzaidan bestea,  
zu izango ziñala nere emaztea.

Aien borondatea zala,  
zuk nai bazenduen ala.  
adierazo nizunean nik  
aien borondatea,  
naitasuna agertu zenidan  
nere maite-maitea.

Gerozti izan dezu  
aldaira aundia,  
nai badezu esan egia;  
orduan alaiago zenidan  
ifinten begia;  
besteri nai diozula  
artu det berria.

Utsik aurki geldi zintezke  
aingerutxo gaztea,  
ni seguru naukazularik  
nai badezu bestea.  
Esan bear dirazu bertan egiazki:  
baldin nai badirazu niri,  
eman bear diozu etximena besteari;  
ezin izan zindezke, iñolaz ere bi.



Galai gaztea engañaturik  
aurkitzen zerade,  
ez det maite inor besterik,  
zu zerade nere jabe.  
Iduripenak dizkitzu  
eman naitasunak;  
ez det maiterik inon  
baizik ezagunak.

Inoiz egiñagatik  
oekin jardunak,  
ba dakizu dirana  
zure gazte-lagunak.  
Izan zaitez gizon;  
zu ainbat maite  
deranikan ez det  
bada nik inon.

Uste baldin badezu  
besterena naizala,  
engañaturik zaude,  
ez naiz bada ala.  
Itza eman nizun ta  
nai nuke ornitu,  
jostaketara ez naiz oitu;  
ain gutxi bestek itza  
zuk baizik kojitu.

## EUN DA BIKOA

Soñu onen puntubak  
dira eun ta bi.  
Adiskide bati  
beste ainbeste dukat  
emanik nago ni.  
Nere ustez aurkitzen da  
pagaturikan ongi;  
geiago bear baldin badu  
esaten diot ori,  
eskatu nai badio  
ba duela nori:  
langai orretatik libre  
aurkitzen naiz ni.

Naitasunik baldin badiosu  
ba du biderikan aski,  
ematen badizu nik ainbat,  
ezta izango txit gaizki.

\* \* \*

Nai dezunean atoz  
artzekoen eske;  
nik badet ainbeste,  
bidezkoa dezula  
baldin badezu uste,  
zorrak geroko utzi gabe  
pagatu nai nituzke;  
lengoak eman nizkitzula  
oraintxe da bi urte;  
etxean baneuzka gaur  
naiago neuke:  
ala ere beti  
izango zaitut maite.



## AMOREA MARGARITATXO

Seguru asko Iztueta'gandik sortua. Bi aldiz esaten dan «zagoz goierriko-bizcaino»k, eta bitan bere maiteak beste bat maiteko ote duan susmoarekin, adierazten du.

Amorea, Margaritaxo!,  
nola zagoz tristerik;  
zagoz alegererik?  
Zu orrela ikustea  
ez det nik atsegiñ,  
nai badezu jakiñ.

Atsekaberik asko  
zu ikustean nik,  
oi daramat, maitea,  
biotzean ixillik,  
bañan alferrik.  
Jakiñean aurkitzen naiz  
etzaudela neretzat;  
bañan ezin aztu zat.

## PUNTA MOTZ

Garbi errikoa. Abestiaren itzkera Gipuzkoako Goyerrikoa.

Gure akerrak ditu  
punta biak motzak,  
zeren galdu ziozkan  
neguko izotzak.

\* \* \*

Aker galanta da ta  
guziz egokia;  
damurik ikusten det  
puntak ebakia;  
alferrik ematen diozkat  
jana ta jakia.



## ERRIBERA

Erriberaren alaba kolore-gorria,  
ederki dantzatzen dezula  
zabaldu da berria.  
Plazan ikusi nai zinduzket,  
txantxan maitagarria.

\* \* \*

Deituko zaitut bada  
urrengo jaian,  
serbitu nai banazu  
bear dan gaian.  
Nere pozkida aurkitzen da,  
dama, zure naian.

## ONDARRABIA AUNDIA

Ondarrabian daude dantzari bi ederrak;  
ezagutzen ditu Bernardak.  
Dantzara ezpadute eramaten berak  
gajo onek egiten ditu benazgo negarrak.

\* \* \*

Bata da Martin, eta bestea Patxiko:  
au ikusi gabetanik ez luke etsiko.  
Soñu zarretan ere dantzariak dira;  
zoraturik dago beti Bernarda, oieri begira.





## ONDARRABIA TXIKIA

Felipe Bost-garrena  
 zanean etorri  
 Españi-ara agintari  
 Irunen dantzatu zan  
 Patxiko txikia;  
 arritu zuen gende guztia  
 arren dantzatzeko jakinduriak.  
 Pozkidatu zituen  
 Españiako gizon aundiak.  
 Errege maite du Ondarrabiak.

## NAPARTXO

Naparroatik etorzen da  
 ardo gorri goxoa;  
 artxek konsolatzen dit  
 niri biotz gaxoa.

\* \* \*

Bizikai ona bai ta guztiz  
 erosteko dirua balitz  
 edango nuke asko aldiz  
 naiz etxera eraman zaldiz.

\* \* \*

Ez det abererikan,  
 dirurikan ain gutxi,  
 bañan, adiskide tabernako Luzi;  
 ez nezake bada nik edan gabe utzi  
 zergatik berak nauen bizi.

\* \* \*

Ardorik edan gabe nagoen eguna  
 eduritzen zait bada niri dala guziz illuna  
 Pitxarra ongi bete bedi;  
 eta sarrita eman edatera niri;  
 biotza aurkitzen zat motel eta eri.



## ORMATXULO

Ormatxulo batetik  
gau batean igesi,  
arratoi beltz andi bat  
nuen nik ikusi;  
zijoan pizkorki.

Nora nai saltatzeko  
etzegoen gaizki:  
baño atzaparra zion  
katu batek ezarri  
humildu zan sarri.

## UPELATEGI

Edan ezak goizean txuritik  
onetik,  
arratsaldian gorritik,  
obetik.  
Ala egiten oi diat nik;  
eta ik egik  
albadagik;  
on egingo dik.



## TXIPIRITONA

Plazaren erdira irtenik  
 andrea ta gizona,  
 dantzatu bear dute ongi  
 biak txipiritona;  
 antziñako usario au  
 txit da ona.

## ERREBERENTZIA

Bertso guztiak Iztueta'renak dirudite.

Erreberentzia  
 Gorputz-egunean  
 elizan sarturik  
 Jaunaren aurrean,  
 ezpata birekin  
 laudatuaz gure Jauna,  
 ba dakigu dantzatzen dana.

\* \* \*

Onestasan guziz andiarekin  
 lendabizi Jaunari agur egin;  
 ala agintzen baitigu legeak,  
 zeren gaituen guztiok bereak.



## TXAKOLIN

Txakolin, txakolin,  
txakoliñak, on egin:  
Maritxo, arintxo  
da Martintxo.

\* \* \*

Ase naiz nafarrez:  
txuri-gorri ta beltzez  
jarri naute miñez,  
gabe ere onik ez.

## MIZPIROTZ

Zure aitak esan dit, nere maite polita  
mispirak dazkatzula usteltzen jarrita.  
Janari gozoa da guziaz mispira otz-ustela;  
plazan saldutzen zaudela,  
begira erosleai  
benaz eta ernai;  
galdua zera bestela.

\* \* \*

Salmenta txarra dute mispira zimurrak,  
bigundu arteraño mami ta ezurrak.  
Salmenta onekoak badira mispirak,  
erosi gabetanik gelditzen ez dira;  
gozoa eta piña,  
eguteran egiña,  
ez da izango miña.

\* \* \*

Ikaratzen baditu agin eta ortzak,  
jaten asi orduko mispera ustel otzak,  
gozoa dalarikan, ditu bere tatzak:  
arantzakin ostu txit latzak,  
zimurtu ezkerotik elkor ta minkatzak,  
ba dakit dirana gaitzak.

\* \* \*

Kuidadu andia bear du,  
zeren eltzen da txit berandu,  
sasoia egin arte, elduegia ere  
ez baita on beñere.  
Arretaz kontu egin bear zaio misperari;  
lanik asko izango baita ala ere!  
esaten dizut zure onerako,  
etzaizu bada sekulan damutuko.



## GRAZIANA

Amorioak nauka biotzetik eri,  
 esan gabetanikan ezin nengoke ni;  
 pena bat oi! daukat biotzean gorderik,  
 Graziana ikusi nuen ezkeroztik.  
 Ai au pena ta naigabea, maitetxo, Graziana!  
 zureganako miña sartu zat nigana.

\* \* \*

Badakite zeruak maite zaitudala;  
 nere poza litzake baninduzu ala;  
 zuregan dago nere ona eta gaitza:  
 eman biar dirazu itza,  
 bestela il bear det, nere maite biotza.  
 Maite izango zaitut beti  
 zuk ala biotzetik baldin banazu ni.

## BELAUN TXINGOA

Euskal errietako soñu ezti,  
 izan dana beti  
 guzien gañeti,  
 billatu det lurpean sartua  
 bai eta aztua,  
 zeren dan zartua.

\* \* \*

Ateratu bear nuke plazara  
 nerekin dantzara,  
 oraindik, gauza da,  
 ikusiko da zein atsegia;  
 bizarra urdiña,  
 baña txit ariña.



## ALKATE SOÑUA

Alkate jauna,  
bedori  
ezagutzen degu  
agintari.  
Jostaldiatu nai genduke  
bedorrek atsegin  
baluke,  
nai-erara ta garbi.

\* \* \*

Iñori ez gaitzik egin  
izan ez nezakean min:  
atsekaberik ez eman neri:  
jostatu zaitzte emeki  
erria pozkida dedin.

## PROZESIOKO SOÑUA

Gure Jaungoiko maitatia  
izanik ongille aundia  
zerutik etorri zan,  
bai, lurrera,  
Adanen pekatu gaiztoa  
sendatutzera;  
bestela ginjoatzen galtzera.  
Guztion Jaun ta Jabe Zu zera.



## EZKONBERRIAK LOTARATZEKO SOÑUA

Ezkonberriak  
pozkidaz daude,  
egin diralako gaur  
alkarren jabe  
elizan.

Gauza ederragorik  
ezin izan,  
ai! orain  
banengo ni  
zuen ditxan!

## AUR TXIKIAI LO-ERAGITEKO SOÑUA

Aurtxo txikia,  
negarrez dago;  
ama, emazu titia;  
aita gaiztoa  
tabernan dago,  
pikaro jokularia.



## EZPATA-DANTZA

### 1

Gaur ezpata-dantzari  
aurren-azkendari  
Korpus-da San Joan  
dituztela gogoan,  
Zaldibitarrak,  
gazte eta zarrak,  
oi dabiltza dantzan  
beren erriko plazan.

### 2

Gozo edo miña,  
Martin danboliña,  
arturik berekin  
Errikardorekin,  
dantzari ariña  
omen da kapagiña  
Juan Martin,  
nik ori ondo jakin.

### 3

Geldi, geldi, geldi,  
Berdillariri  
erabilli konpasa,  
ez dakion pasa;  
Martínek badaki  
nola erabaki  
aren zortzikoa  
ez du lendabizikoa.

### 4

Zubieta  
ba du beta;  
dantzatzen zortzikoa  
guziz da pijoa.

Ermentaria  
zer dantzaria!  
eta Longinos  
ikusi ditut iñoiz.

### 5

A! nolakoa  
Olakoa!  
dantzatzen ezpata bi  
ikusirik nago ni;  
aren anka  
eta planta  
ez da itxusia,  
plaza asko ikusia.

### 6

Diego beltza  
asko oi da altxa;  
arturik ezpata  
dantzari polit bat da;  
iru txiki,  
eta txiki, txiki,  
geienean aurrean  
biak alkarren parean.

### 7

Ettxerik etxe  
an ta ementxe,  
gizonak eta mutillak,  
salto ta brinko  
egiñik pijo,  
ustuzeituzte botillak.  
Zeñek atxi  
Olako Patxi  
erabilten ezpata!  
zankoak arin  
orain, baldin  
arras galdu ez bada.





## GIPUZKOAKO ERRI, FUERO TA KONDAIRA-KO BERTSOAK

*«Yo por mi parte no puedo menos de volver a importunar a Ud., a fin de que se apresure a aprovechar de los pocos días que le restan de vida para sacar a luz pública las observaciones que tendrá Ud. hechas de las antigüedades de nuestro país, y que sería lástima bajasen con Ud. a la sepultura con perjuicio de la humanidad...».*

(De Ramón Guereca, desde Zarauz el 21 de diciembre de 1826).

*«...con que animese Ud. a decir más y más de nuestra Euskara y del genio, usos y costumbres de los antiguos enskaldunes, a quienes ojalá imitásemos en todo y por todo».*

(Santiago de Unceta desde Vergara el 18 de junio de 1829).

Iztuetak bere bertsoak Gipuzkoako erri askoi eskeñi zizkien: Ordi-ziako Billafrankari, Tolcsari, Ondarrabiari, Errenteriarri... Tolosan, peria ta aren inauteriak ospatzen ditu. Gipuzkoa asko ezagutzen zuanez, eta berdiñ Gipuzkoak Iztueta, bere erriaren oitura, lege ta fueroak sutsu abestu zituan. Baita, bertso prankotan, erromatarren aurkako eta burrukak ere. Zati au, bere «Condaira» ikasiaz, bukatu dezagun.

Iztueta ilda, andik bi urtera, 1847'an, argitaratu zan bere «Guipuzcoaco Condaira». Il-ondoko argitaratze ontan, Hernani'ko apaiz eta ipuigille Agustín Paskual Iturriagak zer-ikusi aundia izan zuan. Gure folklore edo erri-jakintza zale ta dantzariaren aiñ lagun aundia zana.

Oso zaballdua dago, Iztueta bere «Guipuzcoaco Condaira» ezin bukatu ibilli zala bere azken egunetan. Ez da egia. Dantza liburua egin zuan ezkeroztik, «Condaira» ori egitea pentsatuta zeukan. Ortarako, arrezkeroztik, kondaira gaiak biltzen eta pillatzen aritu zan. Onela, 1825'an, Pablo Mendibil'ek Londres'en atera zuan liburuxkan, auxe irakurtzen degu: «para demostrar debidamente esta proposición sería necesario detenernos en formar un cuadro especial de estas mismas costumbres considerada en la vida política, civil y doméstica, objeto en que nos proponemos ocuparnos cuando tengamos a la vista el tomo tercero que el mismo Iztueta intenta publicar con este mismo fin».

1840'an, Zestuan bildu ziran Batzarrean, Azpeiti'ko ordezkariak euskaldunen bikaintasuna agirian jartzeko, erri onen oiturak ta izakera ager-

tu ta kondairatzeko, lanean ari ziranen gogoia ta asmoak indartu egin bear zirala, Batzarri adierazi zien. Eta «que teniendo noticia de que el guipuzcoano don Juan Ignacio de Iztueta se ocupa *hace tiempo* en escribir una obra de esta naturaleza, desearía que se le consignase una pensión vitalicia, que le sirviese de incentivo para la conclusión de dicha obra y de premio para la que anteriormente tiene publicada sobre las danzas y canciones antiguas del País...».

Aitormen auek naikoa izango dira noski, Iztueta aspalditik ari zala bere «Guipuzcoaco Condaira» gertutzen, konturatzeko. Euskeraz, aurrenekoa izango zan «Guipuzcoaco Condaira».

Liburuaren atal bakoitza, lau bertso estrofarekin bukatzen du. Au da, Iztuetak atal bakoitza estrofa batean bildu nai izan zuan, Gipuzkoako kondaira osoa kanta bat egiten zuala. Bere zartzaroan, kondairaren bilduma bat ziran estrofak, kanta marmarrean abesten zituala... Agian, erriak Gipuzkoako kondaira bertsoan jakin eta abestuko zuala pentsatzeak, ematen zion pozarekin... Etziran bete bere naiak... baiñan, emen dauzkatzu, irakurle, Iztuetaren kondaira-bertsoak.

Bere gaztetasunean egindako bertsoak denborarekin obeagotzen aritu zan bezelaxe, (eta gauz onen agiri garbi askoa, dantza liburuaren bukaeran agintariai eskeñi zizkietan, eman degu) beste orrenbeste gertatu zitzaion bere «Guipuzcoaco Condaira»ko batzuetan ere.

Zaldibi'ko Erriko-Etxeko liburuetan, auntza ta landaretegiatzaz 1799'ko ilbeltzaren 7'an emandako agindu bat, gordetzen da. Kulpitutik irakurri bear zan, erriko elizan. Sororen batean ikusten ziran auntz guztiak, garbitu egin bear zirala esaten zuan [1].

Agindu au zala ta, Iztuetak bertso batzuk egin zituan, eta gero bere «Condaira»n sartu zituan. Ori aipatu nai du, dionean: «*Auntzak askori ematen dio bizia, / berari ipiñi arren iltzeko sententzia*».

Bikaiñ borobildutako bertso mamitsu ta aberatsetan, Iztuetak ibillketa luze bat egiten du Guipuzkoa zear, gure erriaren izakera ta aunditasunak bildu ta kantatzeko. Etengabeko kanta sutsu bat dira. Guipuzkoari eskeintzen dion lore-sorta eder eta politt bat. Irakurlea laister konturatu da, au onela dala.

*«Probintziako jende leial ta argia  
maite dezutelako zeuen sorteria  
ezkiñitzen dizutet euskaraz jarria  
Ama Gipuzkoaren bizitza garbia» [2].*



Bitxi auek denak bildu ta alkartzea bearrezkoa zan noski. Alkarren-gandik sakabanatu ta utsunerik gabe, danak errezkadan irakurtzeko. Alaxe egiten alegindu gera. Danak daramate beren atalari dagokion izen-burua.

[1] «31 de agosto de 1798. Por decreto de la junta quinta de las generales celebradas en la N. y L. villa de Zarauz por julio próximo del año pasado por el que se manda el exterminio de yeguas y cabras y dijeron súplica al Sr. Vicario de esta parroquia a fin de que sirva de hacerlo desde el púlpito».

[2] Burdeos'en, Haritschelhar jaunak gure erriaren kondairaz eratu zuan batzar batera, Koldo Mitxelena jaunak, «Iztueta, testigo político de su época» izen-buruarekin, lantxo bat bidali zuan. Lan au, Mitxelena jaunak, neri bialtzeko begiramena izan zuan, eta 30 oarrean ala dio:

«El texto de *Condaira* merecería un repaso, ya que la edición es claramente imperfecta: sí, en la pág. 258, Marco Aurelio y Cleopatra están convertidos en Mario A. y Elio Patra, etc. Compárense las diferencias que se observan entre el texto original de la carta-prólogo de Larramendi a Mendiburu (1747) y el trozo copiado en *Condaira*: junto a retoques imputables a Iztueta, faltan algunas palabras indispensables y hay otras erratas. Por otra parte, la página final del primer capítulo del ms. de la *Historia de Guipúzcoa* cuyo facsímil da Garmendia no coincide más que en líneas generales con lo que se imprimió en 1847».

Emen dakarzkiten bertso auek, ez daude artuta, Donostia'ko Diputazio edo Aldun-Etxean dagon eskuz idatzitako liburutik; Bilbao'n, Iztueta'ren irugarren emaztearen ondorengoan diran orri batzuetatik baizik. Eta onela diote:

«Gipuzkoatar prestu argiak,  
ona emen Euskaraz jarriak:  
zuen guraso maitagarriak,  
egindako azaña andiak.

Irakurri beraz  
gogoz, ta arretaz  
Ama onaren bizitza osoa  
Guztiz garbia ta txit gozoa!

Zuen serbitzari, biotzeti,  
izan ta izango ere da beti  
anaia amodioz betetakoa  
zeña dan  
Juan Ignacio Iztueta-koa».

## VILLAFRANKA-KO ERRI

Idazkera ez dirudi Iztuetarena danik. Agian, «Bertso berriak» egin zituanak berak, Iztuetaren idazkiren bat idazki-aldatu zuan. Itz bat dago zalantzakoa: *Iruñkia? Irurkia?* Arritzekoa da, *ballera* bi aldiz idaztea. *Billeru izan* bear lukela, dirudi. Iztuetaren eskuz idatzia izan bazan, olakorik ezin zitekean gertatu.

### 1

Villafranka-ko erri  
prestu ta leiala  
ba dakigu guztiok  
Gipuzkoan dala:  
ango iru galairi  
iñolaz al bada  
sei edo zazpi berso  
bear diztet para.

### 2

Bata apez dago ta  
besteak ezkongai  
gauza txarrik aientzat  
ez nuke esan nai:  
batetik zintzo dira,  
bestetik txit alai  
alkargana batutzen  
dira aste ta jai.

### 3

Erdaraz tertulia  
euskaraz ballera,  
au izango da nere  
bersoen sarrera;  
orain lau illabete  
asi zuten bera  
amar libra kandela  
argitan erre da.



4

Sarobe irurkia  
 Sel Triunbirato  
 eman zaion izena  
 ez baitu girako:  
 gaurkoa igaro ta  
 prest dago bigarko  
 ongi anaiatuak  
 beti daudelako

5

Sei ta erdietatik  
 zortzirak artean  
 egoten dira berak  
 atsegin batean:  
 irakurri, jolastu  
 kantatzen pakean  
 kandela ifiñirik  
 bonbilla batean.

6

Jarriak dauzkate prest  
 beti iru silla  
 gela artan besterik  
 ez diteke billa:  
 oek dituztelako  
 berentzako diña  
 geiago ez jartzeko  
 artu zuten griña.

7

Urte askoz dedilla  
 ballera au bizi  
 gauza ona beñere  
 ezta bear utzi:  
 oraindano izan da  
 orrelako gitxi  
 gizon prestu danari  
 ez aterik itxi.

## VILLAFRANKATAR JAUN PRESTU

Villafrankatar Jaun prestu  
 erri-eramantzalleak,  
 ez izan zuen goi-zaleak;  
 malla oetan arra aztu  
 gutiziak. Ez beldurtu!  
 Laga amodio zuenkoiai,  
 gustien onari jarrai;  
 artako zaute abeak,  
 egiñak gure jabeak;  
 egon sendo, zuzen ta ernai.

Iztueta jaunak 1832 urtean Villafranka-ko erriko-etxentzat eta bere enkarguz euskeraz ipiñi zituan Gómez Manrique-ren bertsoak Toledo-ko erri-etxean eta bere atean daudenak. Erderaz onela esaten due:

«Nobles, discretos varones  
 que gobernáis a Toledo.  
 En aquestos escalones  
 desechad las aficiones,  
 codicias, amor y miedo.  
 Por los comunes provechos  
 dexad los particulares.  
 Pues vos fizo Dios pilares  
 de tan riquísimos techos,  
 estad firmes y derechos».

Aurrenean ipiñi ditugun Iztuetan bertsoak arkitzen dira Villafranka-ko erri-etxean burni-koi (burnizko eztenez) berunean eta arrian betirako ezarriak.



## BIBA TOLOSAKO ERRIA

Itzak, izkera ta eraikera, Iztuetarenak. «Larunbat=larunbat». Onela deitzen dio Iztuetak larunbatari bere «Gipuzkoako Kondaira».

### 1

Biba Tolosako erria  
larunbat —oro du feria,  
biltzen dala det berria  
Gipuzkoaren erdia.  
Oi, oi, tira, tira,  
Tolosan ibiltendira.

### 2

Zar ta gaste prestu anitz  
saldu-erosian dabiltz  
eta apez jaunak berriz  
ase naiean eperkiz.  
Oi, oi, etc.

### 3

Eperrik onenak non diran  
kale guztietatik jiran  
eskopetarekin miran,  
fidatu zaitezte nigan.  
Oi, oi, etc.

### 4

Begia erdi itxirik  
apezak tiro uts gitxi dik:  
kogitzen badu bizirik  
mutilduko du ixillik.  
Oi, oi, etc.

### 5

Arkitzen badu eperra  
beren artean dute gerra,

endemas bada ederra,  
jan bear dute berela.  
Oi, oi, etc.

### 6

Apezak humillatzen lan da  
endemas badaude edanda;  
eperkirik jaten emanda  
ixiltzen da aien demanda.  
Oi, oi, etc.

### 7

Kalean eta basoan  
apezak badu auzoan  
eperra janari gozoan  
eroriko da lazoan.  
Oi, oi, etc.

### 8

Lumatu berrian beti  
eperra maingu da egoti,  
edan ezkerro gogoti  
ardo goxo oneti.  
Oi, oi, etc.

### 9

Eper gazte odol beroak  
ez dira jatorriz geldoak;  
baiño lumatzean egoak  
geienak dira eroak.  
Oi, oi, etc.

### 10

Ardo on ta bizkotxoak  
eta amorrai leuntxoak  
diralako aiñ goixoak  
nai ditu eper gaixoak.  
Oi, oi, etc.

**11**

Apezak nik baiño obeki  
gauza ona zer dan ba daki:  
txurikaturik ederki  
jaten du zenbait eperki.  
Oi, oi, etc.

**12**

Eper gaztearen txitxia  
koipe utsa da guztia,  
odolki leunean bustia  
txit da janari ezta.  
Oi, oi, etc.

**13**

Agorra eta urria  
eper eizerakoak dira:  
orduana dute furia  
ta istar mardul guria.  
Oi, oi, etc.

**14**

Artoa eta gaztaña  
ugari ba dute, baña,  
eper gaztearen maña,  
naigo dut arraren zaña.  
Oi, oi, etc.

**TOLOSAKO GAZTERIA PRESTU LEIALAK**

1845-garren urteko zaldun-iñute egunean,  
Beren erriko langin maiztuak idurikatuaz,  
plazan egitera dijoazen jostallu atsegingarria

Ederki egindako bertsoak. 1845'ko Tolosako Iñauteritarako  
egiñak.

**Martxa****1**

Zaldun-iñote egun gozo au  
Dalako guztiz pozgarria,  
Jostaldiatu nai genduke guk  
Maite degun jaiot-erria:  
Izanik bada iñoteria  
Apropos artako jarria,  
Kantuz plazara gatoz dantzari  
Gaur Tolosako gazteria.

**2**

Gidari artu degu Gonzalez  
Zanpantzartar ongi egiña,  
Izatez txalkorra bada ere  
Jakinduriaz txit abilla:  
Erritik errira balebilke  
Au bezalako baten billa,  
Plazan jendeari emateko  
Pozkida eta atsegiña.



## LANGIÑEN ITZ-NEURTUAK

### 1

Guraiza txorrotxalle  
 Eta tonelgiña,  
 Erakustera datoz  
 Beren lan egiña:  
 Izan ezkeroztanik  
 Merkea ta piña,  
 Salduko da Tolosan  
 Nai duten adiña.

### 2

Dendari abilla ta  
 Arotz jakintsuna,  
 Badakigu Errira  
 Etorri zaizkuna:  
 Modara apaintzeko  
 Auxen da fortuna,  
 Bientzako Tolosa  
 Txit da leku ona.

### 3

Txapelagiñarekin  
 Pelukagillea,  
 Badaki kizkurturik  
 Edertzen illea:  
 Laster aberasteko  
 Nolako idea?  
 Baldin balute beti  
 Irabazbidea.

### 4

Ermentaria eta  
 Perra-iffinlea,  
 Bata gain gañekoa  
 Bestea obea:

Ezagutuko dute  
 Agudo, ordea,  
 Burni ta mandoaren  
 Matxura gordea.

### 5

Zapataginarekin  
 Eun kolaria  
 Gau ta egun oi dago  
 Nekera jarria:  
 Langintza mea dute  
 Bañan txit garbia,  
 Ustelak ezpadira  
 Larru, ta aria.

### 6

Pertz arabatzalle ta  
 Txokolategiña,  
 Guzienean badute  
 Oek zer egiña:  
 Bata nekatu arren  
 Bestea adiña,  
 Irabazia dute  
 Guztiz desberdiña.



## ZORTZIKOA

### 1

Tolosako Erria  
 Guztiz antziñati,  
 Jostaria dala txit  
 Munduak badaki:  
 Doai au datorkio  
 Bere jatorriti,  
 Argatik gordetzen du  
 Zintzokiro beti.

### 2

Ai au atsegiña ta  
 Pozkida betea!  
 Lenbaitlen datorrela  
 Urrengo urtea:  
 Baldin bizirik bada  
 Gonzalez maitea,  
 Uste det nik Tolosan  
 Pestan ibiltzea.

### 3

Jendeak deitutzean  
 Biba, eta biba,  
 Txalkorra azkar dabill  
 Jira eta bira:  
 Irteten dan orduan  
 Plazaren erdira,  
 Zoraturik legoke  
 Berari begira.

### 4

San Juanetan ere  
 Tolosan Erriak,  
 Egiten ditu pesta  
 Gogoangarriak:

Artarako daduzka  
 Oituraz jarriak,  
 Antziña-antziñako  
 Pardon-dantzariak.



## GIPUZKOAKO FUEROEN ATSEGIN LELOAK

Zortzikotan

Idazkera, izkera, sentipenak eta goi-atsa, Joan Inazio Iztueta-arenak.

### 1

(Gipuzkoa) txit leial  
(eta) maitatia,  
(aspald)i zun edana  
(amaren) titia:  
(ia) itzatic zeralako  
euskaldun garbia,  
non-nai ezaguna da  
zure jatorria.

### 2

Lau milla ta geiago  
urteren buruan,  
Gipuzkoak badaki  
jaiotza non duan:  
itzegiten debanik  
orduko moduan,  
beste naziorikan  
eztago munduan.

### 3

Zorioneko gure  
ama Euskalduna,  
seme bitore asko  
azi dituzuna:  
zedori zeralako  
prestua ta ona,  
mundu guztiak daki  
maite zaituguna.

### 4

Zure itzkuntz gozo ta  
oitura eztiak,  
gordetzen dizkitzute  
seme jakintziak:  
galtzera utzi bage  
zearo guztiak,  
oen bearra badu  
gure Probintziak.

### 5

Gipuzkoaren seme  
gazte eta zarrak,  
(zer)nai gauzatarako  
(dira)de azkarrak:  
(bada)kite sapaltzen  
(ote e)ta larrak,  
(baita) ere itzaltzen  
(suak e)ta garrak.

### 6

Sei urteren buruan  
txit nekez bildua,  
begietan daukagu.  
onen ispillua:  
aserre bat izan da  
portizki mindua,  
bañan ekusten da gaur  
arras bigundua.

### 7

Aserreak beti du  
berekin nekea,  
gose, egarriz eta  
izurriz betea:  
alde guztietatik  
dario kaltea,  
gure Ama maiteak  
egin du pakea.



**8**

Egikizun onetan  
dudarikan bage,  
zure seme prestuak  
nekatu dirade:  
atsegin andietan  
arkitzen gerade,  
egin zeradelako  
Fueroaren jabe.

**9**

Ama Gipuzkoari  
ondra ta bizia,  
Fueroak gordetzen  
diote guzia:  
oen alde nor diran  
dago ekusia,  
nekazaria eta  
bere nagusia.

**10**

Etxejaun prestu oek  
ba dakigu berdin,  
alegiña andiak  
dituztela egin:  
Gipuzkoa betiko  
ondo geldi dedin,  
antziñako oitura  
bere-bereakin.

**11**

Beren lanak utzirik  
apropos Madrilla,  
etxejaun andizki bi  
azkar joan dira:  
jatorriz dutelako  
artarako griña,  
gure Fuero maite  
gozatsuen billa.

**12**

Etsai anitzen kontra  
egin dute lana,  
Gipuzkoatarrentzat  
nola nai ta ala:  
bata Aldamar-koa  
bestea Zabala;  
urte askoz Jainkoak  
bizitu ditzala.

**13**

Gertatu izandu da  
langai au len ere,  
Felipe Bost-garrena  
zalarik Errege:  
gure Fuero onak  
nai zituzten erre,  
Zabalaren Asabak  
ezbalitu gorde.

**14**

Esaera bat oida  
guztiz antziñati,  
euskaldunen artean  
ez dakit zergati:  
«bedarra zañeti ta  
kondea kastati»,  
nere ustez ezdago  
jarria aiñ gaizki.

**15**

Egiteko onetan  
izan da barrunen,  
Enparango Nagusi  
on Jose Manuel:  
gordetzalle izan da  
beti Fueroen,  
Ama on Gipuzkoak  
badaki nor duen.

**16**

Gipuzkoaren ona  
 nai duten guziak,  
 izan ta izango dira  
 etxenagusiak:  
 jatorriz diralako  
 garbi ta biziak,  
 maite ditu txit asko  
 Ama Probintziak.

**17**

Beren egin-al onak  
 agirian daude,  
 begien aurretikan  
 ezkutatu bage:  
 atsegin andietan  
 zoraturik gaude,  
 egin geradelako  
 Fueroen jabe.

**18**

Onelako semeak  
 oi dirade gitxi,  
 artutako lanari  
 ez diote utzi:  
 esker on andi asko  
 dituzte merezi,  
 Fuero bagetanik  
 ez gaitezke bizi.

**19**

Iritsi zaizu egun  
 zorionekoa;  
 bizi bedi luzaro  
 Ama Gipuzkoa:

bular gozoa du ta  
 zabala kolkoa,  
 ugaz-umea ez du  
 bere gogokoa.



## EUSKERAREKIÑ EUSKALDUNEN ATSEGIN-LELOAK

Zortzikoa [1]

Donostian egon zan denborakoak. Mayas Llorenteri,  
Tragiari, Juan Bautista Errori... egiten dizkien ainbeste aipame-  
nak, garbi asko adierazten dute.

### 1

Bukaera nai diot  
Eman obra oni,  
Bai eta onoreak  
Kantuz euskarari:  
Ikusi-ditu onez  
Zenbait egun-gorri:  
Bañan garaitpendurik  
Txit dago gaur ongi

### 2

Gure euskara-maite  
Jakintsun ezta,  
Aienatu nai zuten  
Arrotzak guztia:  
Iguñ badute-ere  
Bera ikustea,  
Urteak joan arren,  
Txit dago gaztea.

### 3

Erdaldun mingain-latzak  
Orain zenbait-urte,  
Euskara gaztetzerik  
Ez-baitzuten uste:  
Alegiñ aundiak  
Txit egin dituzte,  
Galduko dutelako:  
Bañan ezin dute.

### 4

Bere seme prestuak  
Ongi apiñdurik,  
Agertu da euskara  
Aitz zuloetatik:  
Sasoikoa dago ta  
Piskorra oraindik:  
Ez da itzkuntza bat au  
Berdintzen debanik.

### 5

Gozoa dalarik-da  
Guzizko zintzoa;  
Izkera guzietan  
Lendabizikoa:  
Beraren egille zan  
Gure Jaungoikoa,  
Argatik da euskara  
Ain gain-gañekoa.

### 6

Nagusi eta buru  
Dala egiazki,  
Egiñ izan diote  
Ixukarik aski:  
Erabilli ere bai,  
Etsaiak txit gaizki:  
Bañan orain guziak  
Azpian daukazki.

### 7

Euskararen etsaiak  
Dirade argiro,  
Mayanekin Llorente  
Eta Osorio:  
Asmatu-arren zenbait  
Gezur ta sesio,  
Aien esker gaiztoan  
Gañera da igo.



## 8

Beste anitzek ere  
Txarkeria asko,  
Esan izan dituzte  
Euskararentzako:  
Batzuetan inki ta  
Besteetan mako,  
Izuturik txokoan,  
Egongo dalako.

## 9

Maians eta Armesto  
Gorputz bat egiñik,  
Ari ziran euskara  
Puskatu eziñik:  
«Jo-ezak» andik eta  
«Jo-ezak» emendik,  
Moldatu baitzituen  
Aita Larramendik.

## 10

Uste etzuten gauza  
Zitzaien gertatu,  
Etzekiten lanean  
Ziralako sartu:  
Asi baziran eta  
Bai aiei damutu,  
Astiñ-aldia txarrak  
Etzituzten artu.

## 11

Maitaro naiko zuten  
Euskara ikusi,  
Baldin bear bezala  
Balute ikasi:  
Ezagutzen eztana  
Mendekatzen asi,  
Nola nai zuten bada  
Baza irabazi?

## 12

Ondoren agertu zan  
Don Joakin Trajia,  
Naspillatu naiean  
Euskara garbia:  
Aotan artzen zuela  
Naparren erria;  
Ustez etzuelako  
Izen berekia.

## 13

Gutziz gauza aunditzat  
Trajiak esanak,  
Desekindu zituen  
Astarloa jaunak:  
Aiñ ziraden traketsak  
Eta txit baldanak,  
Ezagutu ditzake  
Eroa ez danak.

## 14

Astarloaren obrak  
Dira agiriko:  
Alakorikan iñon  
Ezta nerekiko:  
Mingaiñ latz arro zenbait  
Astotzar lapiko,  
Ixilduko dituzte  
Sekula betiko.

## 15

Mundu guzi-guzia  
Jakiñean bego,  
Biziko da euskara  
Oraiñ eta gero:  
Beraren aundizkatzen  
Gogaltsu ta bero,  
Itzkribatzen ari da  
Aspaldian Erro [2].

**16**

Atera ditu onek  
 Bi obra berriak,  
 Esaten dituela  
 Beretan egiak:  
 Aiek irakurtean  
 Etsaien erdiak,  
 Ezur uts egin ditu  
 Sabel-arrabiak.

**17**

Txori buru puztu bat  
 Egiñik txit aundi,  
 Etsai irten zitzaion  
 Gure euskarari:  
 Apez jantzian zuen  
 Izena estali,  
 Aditu baitzituen  
 Bereak eta bi.

**18**

Luma lodi zatar bat  
 Zorrozturik gaizki,  
 Asi zan itzkribatzen  
 Arroturik lazki:  
 Euskara ixilltzeko  
 Asmoetan naski,  
 Erronkak botatzea  
 Ezta, ordea, aski.

**19**

Kakoa ortik eta  
 emendik makoa,  
 Esaten zuen zala  
 Montuengakoa:  
 Uste bazuen ere  
 Zala goapoa,  
 Astin bat artu zuen  
 A zer nolakoa!

**20**

Naiz joan batera ta  
 Naiz joan bestera,  
 Non-nai aurkitutzen da  
 Argiro euskera:  
 Eman bear diogu  
 Zor zaion eskerra,  
 Bestela gu beraren  
 Semeak ez gera.

**21**

Euskara piztea da  
 Erdaldunen miña,  
 Ez dakit nondik duten  
 Orrelako griña:  
 Mundu-guzian dago  
 Sustraiak egiña,  
 Itzegin oizalako  
 Bera txit antziña.

[1] Gipuzkoako Dantzak, 198, 199 eta 200 orrialdetan.

[2] Erro-ko Juan Bautista Andoaindar jakintsuaren lenbiziko liburuaren izena da «Alfabeto de la lengua primitiva de España».



## GIPUZKOATARREN KONDAIRA ERROMATARREN DENBORAN

(Ogei amarreko aunditan)

Bere dantza liburuaren azkenean, Iztuetak jartzen dituan bertsoak. Garai ortan antolatuak dudik gabe, edo 1823 baino lehen-  
txeago.

### 1

Ogei eta sei bat urte alde  
Jesus baño lenagotik,  
etsai gogorrek etorri ziran  
gure kontra Erromatik;  
bildur aundirik ustez etzuen  
bada izango gugatik;  
Asmo gaistoak kontrara ziran  
egiñal egiñagatik,  
euskaldunak bai garailariak  
len eta orain ta beti.

### 2

Antistio an eta Firmio  
an Marko Agriparekiñ,  
Oktabiano buruzaria  
ere an zuten berekiñ:  
iru talderi etorri ziran  
lau nagusitzar oiekin,  
banidadea arren banderan  
ongi zabalduarekiñ  
modu onetan sartu ziraden  
ausardi gogorrek.

### 3

Lenengo lana atiak itxi  
itxasoz eta legorrez,  
bañan etziran luzaro egon  
arpegi eman bildurrez:

loa gabean ariña, eta  
begia-k allert egunez,  
bereala ziran balientiak  
asi galdetzen lagunez,  
aitaren seme irten ziraden  
orain leitutzen degunez.

### 4

Gogoan gorde leikeana da  
seme orien esana;  
«Erromatarrak or datozkigu  
peleatzera gugana;  
aal guzia biribillatu  
bear degu alkargana  
bildurrik gabe sartu aurrera  
gogor etsaiarengana,  
bentzi dezagun indarrarekin  
onuntza agertzen dan».

### 5

Uste etzala samiñdu ziran  
erromatar oien farrak,  
Gipuzkoa mendi-mutillak  
ziradelako azkarrak;  
buruzariak ere etziran  
orientzako aiñ txarrak,  
oñak ariñak, gorputz lirañak,  
gogor berriz atzaparrak;  
Ainbeste milla gizon mendean  
gure probintzi bakarrak!

### 6

Asi ziraden etor berrian  
erromatarrak gogorki,  
bost bat urtean zenbat pelea  
galdu zituzten nork daki?  
Alegiñ asko egin det, baña  
nik au ezin erabaki.



Gerraren gura baziran ere  
aspertu ziran ederki,  
soldatu arro orgullosoak  
jolastun agonagati.

## 7

Izu-ikaren arkitzen zala  
etsaiaren talderia,  
Oktabiano-k atera zuan  
erritarretan berria,  
nolabait ere agertu naiez  
bere guda galgarria,  
batalla onradu bat egin eta  
batak besteri legia,  
al zan lenena bukatu zedin  
Kantabriako gerria.

## 8

Euskaldunaren agintariak  
ori entzutearekiñ,  
erantzun zion: «Konforme gera  
gu zure esanarekiñ;  
irureun mutill eskojituak  
emen dauzkat nik nerekiñ,  
azken batalla nai badezute  
onela egin gurekiñ,  
buruz buruan etor zaitezte  
soldadu onenarekiñ».

## 9

Bear bezela kunplitu zuten  
beren itz onorezkua,  
señalaturik zegoan bada  
batallarako lekua;  
Gipuzkoaren onra andirako  
zelai bat Errezillgua,  
makiñaren bat erromatarrak  
bizia utzitakua.  
Egun beretik da erri ori  
esan dan izenekua.

## 10

Ordu ta laurden iraun zuan  
gauzak gutxi gora-bera,  
eta batalla beti bezela  
mendi-mutillen aldera:  
erromatarrak iya guztiak  
erori ziran lurrera.  
Oktabiano-k ekusirikan  
bere jendeen galera,  
zer gertatzen zan laister biraldu  
zuan Erroma aldera.

## 11

Albista ori jua da laister  
an Erromako errian,  
Senadu danak erantzun zuan  
guziz kolera aundian:  
«Pelea ori irabaz dute  
txit errez beren errian;  
guk ere ori egingo degu  
nai bada geren lurrian;  
gizonez gizon euskaldun oiek  
etorri nai dutenian».

## 12

Uste gabeko erantzuera  
arrokerizko orrekiñ  
euskal mutillak berotu ziran  
onra-nai aundiarekiñ:  
Oiarzun-en zan Jauregi-etxe bat  
Lartaun-en izenarekin;  
ango galai bat giari berriz  
eun mendi-mutill oñakin  
peleatzeko pozez jua ziran  
bada danak alkarrekiñ.



## 13

Erroma ondoko Tiber zeritzan  
 ibai zabalen erdian,  
 zelai polita antxe zegoan  
 arras leku ederrian;  
 exola-esiya zeukan egiña  
 guziz arreta andian:  
 berreun gizon peleatzeko  
 itxitu orren erdian,  
 igez-lekurik inora ezta  
 etsaiak berriz aldian.

## 14

Erromatikan irten ziraden  
 batallarako lurrera;  
 Kantauritarrak arrimatuaz  
 ibai aren basterrera,  
 beren gabarra zulatu eta  
 bota zuten ondarrera:  
 Erromatarrak ekusten zeuden  
 mendi-mutillen sarrera;  
 salto ta brinko igaro ziran  
 zelaitxoaren gañera.

## 15

Erromatarrak albora ziran  
 etorri galdetutzera,  
 ea zergatik botatzen zuten  
 ontzi ura bazterrera:  
 Kantauritarren buruzariak  
 erantzun zien osteria;  
 lenengo lana, orain goazen  
 zelaian peleatzera,  
 eta ondoren zuen gabarran  
 an gera beste aldera.

## 16

Noizbait bear da bildu ziraden  
 peleara alkarrekin:  
 bi aldetako buruzariak:  
 eun bana gizonekin:  
 lizar-makillak orduko armak  
 puntan burni zorrotzekin:  
 biotzak salto egingo zien  
 ori ikustearekin;  
 Erromatarrak geienak iltzen  
 lenengo golpearekin.

## 17

Ogei eta bat gizon ziraden  
 illak Kantauritarrari;  
 larogei eta geiago berriz  
 oiek Erromatarrari;  
 euskaldunak an irabazirik  
 batalla sonatu ori,  
 une artantxe eldu zioten  
 etsaiaren ontziari,  
 eta betiko berendu zuten  
 Transtiberiko lur berri.

## 18

Erromatarren presidentek  
 Senaduko itzarekin  
 euskaldun aiei au esan zien  
 frankeza guztiarekin:  
 «alkardadean bizi nai degu  
 orain aurrera zuekin;  
 seme orduko nai badezute  
 izan ill arte gurekin,  
 egingo degu guren alabak  
 emazte emanarekin».





## 19

Euskaldun aiek animaturik  
 guztiak baten itzera  
 erantzuer-au esan zioten  
 jaun prestu aiei estera:  
 «jarriko gera zuen alabak  
 gure emazte izatera,  
 pake gozoan gerta gaitezen  
 gu alkarrekin aurrera:  
 anaiatasun guziarekin  
 Errroman biziko gera».

## 20

Bi erri oiek pake gozoan  
 orduti ziran gelditu:  
 zer gertatu zan, orra nik esan  
 inork nai badu aditu.  
 Gipuzkoa onak bere fueroak  
 egundaño gorde ditu:  
 Probintzi onek seme leialak  
 oraındaño izan ditu;  
 aurrera ere ala dezala  
 beti, dan arte segitu.

## KONDAIRAKO BERTSOAK

Len esan degun bezela, euskeraz aurreneko *Gipuzkoako Kondaia* dan liburu ontan, Iztuetak Zaldibi'n bizi zala sortu zituan bertso batzuk sartu zituan. Griña au, il arteraño izan zuan. Liburuko atalak, lau bertsoak aapaldietan biltzen du. Bere zartzarotan, eta Iztuetaenea'ko bere etxean, ikustekoa ta entzutekoa izango zan nola ortz-artean kantatzen zituan gure Joan Inazio agureak!... Utsune ta etenik gabeko irakurgai batean, aurreneko aldiz argiratzen dirala uste degu. Era ontara, askoz obeto ulertuko degu gure Iztueta, bai bertsolari bezela, bai gure erriaren abeslari bezela. Egia esan, garai artan askotan oi zan bezela, Guipuzkoaren aundi ta bikañtasunak puztu egiten baditu ere. Jatorrizko lana, Donosti'ko Diputazioaren Liburutegian arkitzen da.

*Iztueta.* (X orrialdea)

Probintziako jende leial ta argia,  
 maite dezutelako zeuen sorterrria;  
 ezkiñtzen dizutet euskaraz jarria,  
 Ama Gipuzkoaren bizitza garbia.

\* \* \*

*Gipuzkoako Probintziaren asiera noiztik eta nola dan.* (Aurrengo zatia, 1.0 kapitulua, 5 orrialdea)

Tubalen etorrera txit antziñakoa  
 izandu zalako ain zorionekoa,  
 oroituzean ere pozturik gogoa  
 naierara bizi da beti Gipuzkoa.

\* \* \*

*Españara lendabizi etorri izan zan itzuntzaren errazoa.* (11 kap., 10 orr.)

Sinistmen osorikan ezin artu oni,  
 euskara ezagutzen ez debanak ongi;  
 bañan aitortuko du gogoz eta garbi,  
 bera ikasitzera nai debanak iarri.

\* \* \*



Azaleko irudiña  
denbora gitxiko diña.

*Españaren izena noiztik, nondik eta norakoa dan argibidea.* (111 kap.,  
15, 16, 17, 18, 19 eta 23 orr.)

Euskarari ifinia,  
ez puska berekia,  
baizik arabakia,  
eta arrotz etorkia.

\* \* \*

Jarri ezkerro begira  
arras ezagunak dira  
Uriga eta Briga;  
Astarloak ditu jira  
nor bere Amaren titira.

\* \* \*

Eta guk diogu dala, *Uria*.  
Astarloak esaten du egia  
euskaraz kanpora, *Bria*  
txit dala soil eta urria;  
bañan Españan guztiz ugaria  
eta arras Euskara garbia.

\* \* \*

Izen oentzako zer esanik  
izango ez dutela uste det nik  
urrengoentzako ain gutxi  
Euskalerrian diralako bizi  
ta maitatzea dutelako merezi.

\* \* \*

Bañan Astarloak oen tokia  
arkitu izan zeban txit egokia;  
beragaitik dakigu dala, *Uria*  
Españatar Euskara garbia:  
eta agertu izan zala, *Bria*.

(Aurrena)

U bokalaren lekuan V berria  
eta gero onen ordean B jarria.

\* \* \*

O Euskara gozatsu zintzo jakintia!  
Ezagun da zu bizi zeraden tokia;  
izan ta izango da beti maitatia,  
gogoz edan debana zedorren titia.

\* \* \*

*Gipuzkoako Probintzia non arkitzen dan, zenbat leku betetzen duan eta  
bere mugak nondik nora ta norekin dauzkan.* (Bigarren zatia. 1 kap.,  
31 eta 32 orr.)

Egia zierto garbia  
ez da gauza mingarria?  
billatzea paperean jarria  
balitz bezala fedeko egia!  
Gipuzkoan biltzen dan arto ta garia  
ez dala bertan bear danaren erdia  
eta nork daki zenbat onelako astakeria?  
Jakin beza mundu osoak  
Gipuzkoako lur gozoak  
ematen dutela maitaro  
bertan bear dana ta geiago.

\* \* \*



*Gipuzkoako mendi gogoangarrien azaldurea.* (111 kap., 39 orr.)

Gipuzkoatar prestu zintzo ta argiak  
gogoz maitatu ondo erriko mendiak;  
beti izango dira guztiz naigarriak  
beretan daudelako ondasun andiak.

\* \* \*

*Zenetan jarriko dedan Gipuzkoan bere izen euskarazkoakin ezagutzan  
diraden beraren argibidea.* (IV kap., 48 orr.)

Nor izango da orain esango debanik  
euskarak ez debala berarren izenik?  
Naita ere sinistu ezin nezake nik  
jaioko ere dala alako gizonik.

\* \* \*

*Gipuzkoako arrobi baliosoen ugaritasuna eta berak ematen dituzten arri  
bitore ikusgarrien doaiak.* (V kap. 59 orr.)

Gizon arrotzak ere gure ondragarri  
aitortu izan dute argi eta garbi  
Gipuzkoan dalako arria ugari  
etxe ederrak non nai dirala agiri.

\* \* \*

*Gipuzkoako meatzak non ta nola eta zer gisatakoak diraden.* (VI kap.,  
75 orr.)

Onenbeste meatze ain toki gitxian  
nola arkitzen diran gure Probintzian;  
engañatzen ez banaiz nere iritzian  
ez dira topatuko Europa guzian.

\* \* \*

*Gipuzkoako iturri garbi on ugaritsuen azaldurea.* (VII kap., 109 orr.)

Gipuzkoan arkitzen diran iturriak  
izan ta izango dira txit maitagarriak;  
berenez direlako osasungarriak  
gain gañeko tokian daude gaur jarriak.

\* \* \*

*Gipuzkoako ibai andien azaldurea.* (VIII kap., 124 orr.)

Orra zer eskubide andi ta gozoak  
lenago oi zituen Ama Gipuzkoak;  
maitaro izan ziran gorde ta josoak  
bizi ziran denporan gure gurasoak.

\* \* \*

*Gipuzkoako baso zabal andi eta zuaitz lirain galanten berri zuzen egiaz-  
koa.* (IX kap., 136 orr.)

Gipuzkoan arkitzen diraden basoak  
ugariak dira txit eta erosoak;  
emango lituzteke ondasun gozoak  
baldin bear bezala baleude jasoak.

\* \* \*

*Gipuzkoako mugapean bildu oi diran garauen errazoria.* (X kap., 145  
orr.)

Aberatsak dira ta gozatsu eztiak  
Gipuzkoan arkitzen diran sagastiak;  
gure asaba onak oparo utziak  
arras maitagarriak dirade guztiak.

\* \* \*



*Matsaren doaiak.* (149 orr.)

Antziñako denporan Gipuzkoan matsak  
badakigu zirala guztiz aberatsak;  
bide bagez galtzera onelako gauzak  
mingarri da uztea gizonaren antzak.

\* \* \*

*Gaztañaren ontasuna eta ondasunak.* (151 orr.)

Gipuzkoako maizter ta etxe-jabeak  
ez dira alfer, nagi, ardura bageak;  
osotoro gorderik alor, ta larreak  
gaztañadi galantak dauzkate pareak.

\* \* \*

*Intxaurren etekinak.* (152 orr.)

Intxaurrek izatea Errian ugari  
ezkerrak zor zaiozka bertako lurrari;  
eta gitxiago ez batere urrari  
ditxa on au Jainkoak eman zigun guri.

\* \* \*

*Ezkuurren mirariak.* (154 orr.)

Zuaitzak aizkorari diola beldurra  
sinistatu bear da ez dala gezurra;  
baldin artzen ezpada denporaz ardura,  
Agur gure basoak ta agur ezkurral

\* \* \*

*Baratza berarrak.* (159 orr.)

Aralarko mendia izanik aiñ latza,  
nor asiko zan bertan landatutzen aza?  
Iñori gogoratzen etzizaion gauza!  
Oraiñ non arkitzen da alako baratza?

\* \* \*

*Lore begitangoakin usan-berar gozoak.* (166 orr.)

Probintziako aitzak dauzkate gordeak  
landare ederrakin berar ta loreak;  
txuri, beltz, urdin, gorri, berde ta moreak  
zer nai gauzatarako, non dira obeak?

\* \* \*

*Gipuzkoako abere-en izatera eta berak ematen dituzten etegiñak.* (XI kap.,  
176 orr.)

Zer nai gauza jarten da paper berrietan,  
argaitik nago, bada, orain erriertan;  
mundu guztiak dakuts bere begietan  
arkume asko dala gure mendietan.

\* \* \*

*Abelgorriak.* (XI, 182 orr.)

Lurрак ematen daben ondasun garbia  
goieneneko mallan oi dago jarria.  
Izan ta izango da txit maitagarria  
nekazaria ongi bizi dan Erria.

\* \* \*



*Zamari edo zama-abereak.* (XI, 185 orr.)

Lurrari agertzeko barrungo mamiak,  
ez dirala ain onak mando ta zaldiak,  
Jobellanos-ek ditu esaten egiak,  
obeak diradela beiakin, idiak.

\* \* \*

*Azienda beltzak.* (XI kap., 188 orr.)

Sinistpen osoa da gizon andietan  
gezurnik ez dutela jarten paperetan;  
bañan inoiz arkitzen dirade benetan,  
Andienetako bat ona emen bertan!

\* \* \*

*Auntzak.* (XI kap. 188-181 orr.)

Orain datorkit bada auntzen itz-aldia,  
Bañan andizkatzea oen larru, esne, ta mamia,  
Zenbait gizonentzat da txit bekatu andia.  
Guztiaz ere esan bear det nere iritzia,  
Izango bada ere bazterrean utzia;  
Auntzak askori ematen dio bizia,  
Berari ipini arren iltzeko sententzia;  
Nolakoa ordea?  
Gaitzgillerik andienentzako gordea,  
Ken dakiotela auntzai kordea,  
Suautsarekin balaz  
Egunaz ere bai ta orobat gauaz,  
Kanpoan dabiltzan guzi guziaz arras.  
Da gauza iakiña,  
Auntza ere dala gizonarentzako Jainkoak egiña;  
Batzuentzat gozoa; eta besteentzako samiña,  
Errapea bezin ona duelako agiña.  
Ezin ukatu leike, bada, dituztela auntzak,

Guztiz zorrotzak  
Agiñakin ortzak,  
Baita ere errapeak  
Esnez ondo beteak.

Eta uda ta negu bazkatzen guztiz merkeak.  
Onen ugari gozoa ematen duten auntzak,  
Nola utzi ditzake nekazariaren antzak?

Baldin egiten badute katea,  
Ezarri muskillarekin katea,  
Artarako ipinia dago Alkatea.

Auntz jabeari ematen bazaio zakelan miñ,  
Aren auntzak ez dezake zuriketa asko egin,  
Zergaiti bera kontuan egongo dan ernai, zintzo, ta pin.

Beldurak gordetzen debala mastia,  
Esan izan zebana etzan gezurtia!  
Nekazariaz artzen dala urrikia,  
Guziari eman dakiokoe erabakia.

Ez da, bada, ain nekeza artzea neurriak,  
Gorputz bat egingo balirake Erriak;  
Bañan auntzen etsaiak diralako ardiak,  
Poztu egiten ditu oen illberriak.

Auntzak eta basoak ezagutu izan dira beti  
Munduaren lenbizi biziko asierati.

Eta orain zergatik  
Ez degu bear auntzik  
Ez gitxi ta asko?

Basoak galtzen dizkigutelako!  
Utzi zizkiguten, bada, guren gurasoak  
Txit ugari ta erosoak  
Auntzakin basoak,

Utsaldiarik bageko oso osoak.  
Bañan geroztik dijuaz.  
Auntzak gitxituaz,  
Eta basoak txikituaz.  
Aek ill ta oek ebaki

Egin dituztelako ausarki,  
Modu onetan ezin diteke basorik jaiki.  
Egia da landareen eritzallea dala auntzaren ortza  
Eta, basoen illtzallea? Aizkora zorrotza!



Ikatzgiña sartzen dan basoan

Eta beraren inguruko auzoan,  
Akullu gairik ere ezta ikusiko gizaldi osoan.  
Bañan auntzaren ausapaia izan arren gazia,  
Baldin basoa arkitzen bada zertxobat azia,  
Eder ta galant, berde ta mardul egongo da guzia.

\* \* \*

Ez det luzeagotu nai nere esankizuna;

Auntz gaxoai  
Eta baso goixoai,  
Jaungoikoak diela betiko osasuna;  
Gipuzkoak izan dezan ugari ondasuna.

\* \* \*

*Abere basati edo lar-abereak.* (XI kap. 195 orr.)

Lar-abere asko zan orduan erori,  
Alere sortu dira nondikbait iori;  
Kalte anitz diote ekiten iñori,  
Bañan ezin diteke sendatu miñ ori.

\* \* \*

*Gipuzkoan ezagutzen diran egazti eta pistie guztien arrazoiak.* (XII kap., 201 orr.)

Eizagana ifinten badute begia,  
Zuzen aski artuko diote neurria;  
Dala arranoa ta naiz txantxangorria,  
Lurrera izango da plostetz eroria.

\* \* \*

*Gipuzkoaren mugapeko itsaso eta ibaietan arrapatzen diran arrai gogo balio andikoen azalduera.* (XIII kap. 208 orr.)

Bale-arrapatzalle azkar ta zintzoak  
Gipuztarrak ziraden lendabizioak;  
bide bage kendurik oei itsasoak,  
Ingeles ta Frantzesak dira gerozkoak.

\* \* \*

*Gipuzkoatarren erlijioa zer ta nolakoa dan.* (Irugarren zatia. I kap., 212 orr.)

Erlijio Santua Gipuzkoatarrek  
Maitatzen dute anitz, gazte eta zarrak;  
Doai on au emanik Jaungoiko bakarrak,  
Zer nai gauzatarako dirade azkarrak.

\* \* \*

*Gipuzkoako biztanle prestuen doai grina, izqera eta eginbideak.* (II kap., 219 orr.)

Probintzia onetan guztiz ondrosoak  
Beti izan dirade dantza ta bersoak;  
Idurikatuz ongi geren gurasoak.

\* \* \*

*Gipuzkoako biztanle beargilletsuen langintzarik aurrengoak.* (III kap., 230 orr.)

Gipuzkoako artzain zintzo ta argiak  
Izan ta izango dira gogoangarriak;  
Maite dituztelako oitura garbiak  
Beren guraso onak antziña jarriak.

\* \* \*



*Nekazaritza noiztik eta zeren bidez asia dan. (IV kap., 236 orr.).*

Gauza askoren izen txit antziñakoak,  
Maitaro gorde ditu Euskara zintzoak;  
Berenez diralako eztitsu gozoak,  
Gutizia andia diote auzoak.

\* \* \*

*Gipuzkoako erri askotan nekazariak alkarren artean egiña daukaten  
anaitasun pare bagekoaren azaldurea. (V kap. 42 orr.)*

Bizian ta illean Gipuzkoatarrak,  
Alkarri laguntzeko txit dira leialak;  
Ikusi dira ondo beren egiñ-alak,  
Ditxa andia bait du emen bizi danak.

\* \* \*

*Gipuzkoatarrak plaza agirikoetan jokatu oi dituzten pillota-partidu, idi-  
tema eta beste apustu mueta ankoren errazioa. (VI kap. 245 orr. eta 255)*

Amar joku ta sei zeudenean  
Erribera-ren kopeta,  
Bazirudien bazekarrela  
Elurrarekin tormenta;  
Elizaraño sakatzen zeban  
Zortzi ontzako pillota.

Baztandarrak itzak eder  
Malmotea kolkoan;  
Erraz irabazi uste zuten.

Partida galdutakoan,  
Negarra mardul egiten zuten  
Hernanin Eliz-ondoan.

Astigarran mutil txiki bat  
Probestuaren semea

Non billatzen da errestorako  
Bera dan baño obea?  
Ikaraturik biraldu bait du  
Naparroako jendea!

Gipuzkoako jende leial eta piña,  
Onean goixoa da, galtzean samiña;  
Plazan egin arren nork bere alegiña,  
Alkar maitatzeko du jatorrizko griña.

\* \* \*

*Erromatarren etorrera; eta oekin Gipuzkoatarrak egin izan zituzten jazara-  
rra andien azaldurea. (VII kap., 274 orr.)*

Gipuzkoako jende Euskaldun garbia  
Aurrekoetatik da zintzo ta argia;  
Erabakirik ondo guda galgarria,  
Erromatarretara izan zan jarria.

\* \* \*

*Wisigodoak, Sueboak eta Alanoak noiz ta nola etorri izan ziran España-  
ra. (VIII kap., 276 orr.)*

Naitasuna dionak jaioterriari,  
Jarraitu bear dio leialtadeari;  
Denpora guztietan ixil ta agiri,  
Berak gorde izan du Gipuzkoa garbi.

\* \* \*

*Arabe-en etorrera eta Godo-en ondamentia noiz eta nola izandu zan. (IX  
kap., 285 orr.)*

Gipuzkoak luzaro zintzoki eta piñ  
Serbitzo asko zion leialkiro egin;  
Bañan azkenerako artzen zebala miñ,  
Asperturik zegoen Nafarroarekin.

\* \* \*



*Gipuzkoako Probintzia noiz ta nola eta zeren bidez Nafarroagandik  
aldendurik jarri zan Gaztelako Errekeagana. (X kap., 285 orr.)*

Errege ondraduak gizon prestu gisa  
Badakite gordetzen emandako itza;  
Lege on bidezkoak zuzen badabiltza,  
Izan ta izango da Españaren ditxa.

\* \* \*

*Gipuzkoatarrak Gorritiko gaztelua noiz ta nola artu zuten. (XI kap.,  
294 orr.)*

Batalla onetako itzbide andiak,  
Historia askotan daude ifiniak,  
Utsaldiarik bage, garbiro egiak,  
Denpora berpereko gizon jakintiak.

\* \* \*

*Tolosako erri ernaiak bere auzo-erri banaka batzuekin batean Nafarroa-  
ren menpeko erri Leiza ta Areso noiz ta nola artu izan zituen. (XII kap.,  
297 orr.)*

Tolosa-tar pizkorrak arin ta garboso,  
Nafartarren lurreen sarturik eroso;  
Artu zituztelako Leiza ta Areso,  
Fama andia zeban Gipuzkoak jaso.

\* \* \*

*Gipuzkoako Probintziak noiz ta zeren bidez.. biraldu izan zituen bi  
milla ta geiago bere seme azkar ondo armatuak Portugalgo Erregeke ertsi-  
turik zeukan Burgos-ko gaztelua lokabetzera. (XII kap., 299 orr.)*

Gure Errege Jauna  
Billatu degu basoan,  
Goizean eizera joana  
Pozkida bete osoan,  
Berak dituelako ikusi,

Batzuk ill eta besteak bizi,  
Portugesak amilka igesi.

\* \* \*

*Milla bostean eta amabigarren urtean Frantzesak zeren bidez etorri zan  
Nafarroara eta Gipuzkoako Probintziara eta bietatik zer gisatan biraldua  
izandu zan ariñ aski, bideak galdurik eta armak utzita. (XIV kap., 307  
eta 312 orr.)*

Borbonek Donostia zebanean itxi,  
Ez omen zerabilen arrotasun gitxi;  
Bañan nai zebanikan etzeban iritsi,  
Bostgarren egunean joan zan igesi.

\* \* \*

Egoki ezarriak zuzenki neurrian,  
Gipuzkoaren armak daude agirian,  
Amabi kanoi galant ondra andian,  
Frantzesari kenduak Belate-mendian.

\* \* \*

*Milla bostean ogei ta bigarren urtean Irun Irazun-en Frantzesakin Ale-  
man-en kontra Gipuzkoatarrak egidako batalla andien azaldurea. (XV  
kap., 315 orr.)*

Aleman ta Frantzesak alkarri jarraio,  
San Marzial gañera ezin ziran igo;  
Ah Mondieu! esanaz, negarra jario,  
Gipuzkoatarrentzat deus etzuten balio.

\* \* \*

*Milla bostean ogei ta laugarren urtean eta urrenekoan Gipuzkoarrrakin  
Frantze-en artean izan ziran gertakarien azaldurea. (XVI kap., 317 eta  
319 orr.)*

Oiarzun erretzeko egiñik promesa,  
Gauaz ixil etorri izan zan Frantzesak;





Bañan izanik bertan aín jende artea,  
Gaizki irten zitzaion orduko amesa.

\* \* \*

*Gipuzkoatarrak Frantzesakin zenbat aldiz buruz buru ta bat banaka  
alkar disidaturik egin izan dituzten pelea gogorren azaldurea. (XVII kap.,  
321 orr.)*

Etsaiari ziola portizki eraso,  
Ondra andia zeban Urbietak jaso;  
Batallan txit aurrera sarturik garboso,  
Frantzesai artu zien Erregea preso.

\* \* \*

Frantzesak eldu ziran bi aldiz onara,  
Laster irabazteko pozean jazarra;  
Bañan uste ez dala samintzen da farra,  
Izan ezkerro kontra Gipuzkoatarra.

\* \* \*

*Gravelingas-ko batallan gertatu izan ziran joan-etorrien errazioa. (XVIII  
kap., 325 orr.)*

Gravelingas ondoan gazte eta zarrak,  
Ongi ezagun ziran nor ziran azkarrak,  
Oñak arin zituzten, gogor atzaparrak,  
Frantzesak porrokatzen Gipuzkoatarrak.

\* \* \*

*Milla sei eun ogei ta emezortzigarren urtean Ondarribia ertsiturik egon  
izandu zan egunetako gertakari andien errazioa. (XIX kap., 373 orr.)*

Antziña antziñatik oi dago jarria,  
Goieneko mallan Fuenterrabia,  
Jatorritik dalako leal ta garbia,  
Nork maitatuko ez du alako Erria?

\* \* \*

*Milla ta zazpi eun eta emeretzigarren urteko gertakarien barria. (XX  
kap., 377 orr.)*

Guda au izan arren labur ta ariña,  
ezagutua dago Frantzesaren griña;  
ez du atzo ta egun sartutako miña,  
Gipuzkoa betiko beretu eziña.

\* \* \*

*Milla zazpi eun laurogei ta amairugarren urtean Españarekin Frantzia-  
ren artean sortutako guda zeren bidez eta nola izandu zan errazioa. (XXI  
kap., 405 orr.)*

Gipuzkoan baziran Erriak txit asko,  
Frantzesak etzebanak bururikan jaso,  
Gogor ziotelako beretan eraso,  
gorde izan ziranak garbi eta oso.

\* \* \*

*Milla zortzi eun ta zortzigarren urtean Napoleonek saldukeriaz Españan  
sortu zeban guda kaltarkitsu bidebagekoaren azaldurea. (XXII kap., 414  
orr.)*

Gipuzkoako seme leial menditarrak  
alkar maite dute txit, gazte eta zarrak,  
jatorriz diralako prestu ta azkarrak,  
egin izan zituzten alako jazarrak.

\* \* \*

*Milla zortzi eun ogeita amairugarren urtean Errege Fernando VII'garrena  
Jainkoak beregana deitu zebanean, beraren anaia Karlos-ek eta alaba Isa-  
bel-ek Españako koroiaz jabetzearen gañean alkarren artean artu zuten  
despita andi negargarriaren azaldurea. (XXIII kap., 421 orr.)*

Erabaki naiean itzpidea garbi  
esanaz eta esaten aspertzen ez naiz ni:  
mundu guzti-guztiak orain eta beti,  
gogoan izango du Zumalakarregi.

\* \* \*



*Zenñetan kontatzen diran Gipuzkoatarrak itsasoꝝ sarritan egindako azaña  
gogoangarriak. (XXIV kap., 451 orr.)*

Mendietan ez ezik itsasoan ere  
Gipuzkoatarrak txit azkarrak dirade:  
beren azañak ongi gordeak alere,  
urteak joan arren agirian daude.

\* \* \*

*Gure ama on maitati Gipuzkoak bere hular gogo indartsuarekin gururo  
azpitako seme leial gogoangarri anitz, nor ta non jaioak eta zer gisatakoak  
izan diraden argitasun garbia errien izenak abezekiro dirala. (XXV kap.,  
509 orr.)*

Gipuzkoak baditu semeak ugari  
jakin izan dutenak ekiten lanari:  
erakutsiaz garbi mundu guztiari  
zer-nai gaitan dirala buru ta gidari.

Non nekatu badute gizon jakintziak  
eman nai badituzte emengo barriak:  
bestek ez bezalako doai on andiak  
dauzka Gipuzkoako baztar maitatiak.